

# *Ama eskolako hizkuntza orokorra*



*Felix Zubiaga*

© Felix Zubiaga Legarreta

Azalaren diseinua eta maketazioa: Felix Zubiaga Legarreta.

ekoizpena: Erroteta

ISBN: 978-84-15508-74-8

Lege Gordailua: BI-872-2016

Inprimaketa: Printhaus

Autorearekikoa (para dirigitse al autor)

Teléfono: 94 673 04 86./48340-Amorebieta, Orue (Bizkaia)

edo <fzubiaga@orue.biz>



*Ama eskolako*  
hizkuntza orokorra

*Felix Zubiaga*

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	9
I. GIZA SORKUNTZA BEREKOAK.....	11
1.1. Ama, amatasun orokorra.....	11
1.2. Nut, Egiptoko Ama Andia.....	12
1.3. Maat: zuzentasuna eta jakinduria Egipton.....	15
1.4. Maat eta Mari-ren aginduak.....	16
1.5. Sinbolo eta arketipoen batasuna.....	22
1.6. Erritoen batasuna.....	24
1.7. Ama hizkuntza.....	26
II. BARADISU GALDUEN BATASUNA.....	28
2.1. Sahara mortuko Baradisua galdua.....	28
2.2. Dilmun, Sortzaldeko Baradisua.....	31
2.3. Eden, Bibliako Baradisua.....	34
2.4. Esperide edo Sefarad.....	35
2.5. Eba edo Pandoraren jakinmina?.....	35
2.6. Atlantida edo Sartaldeko Baradisua.....	36
2.7. Saharapeko bantuen Baradisua.....	37
2.8. Amatar amazigeak.....	40
2.9. Ama eskolaren amaia?.....	41
III. SANTUTEGIEN BATASUNA	
3.1. <i>Ekur</i> -mendi, toki santua.....	43
3.2. <i>Ekur</i> > <i>sokorri</i> mendi gurena.....	46
3.3. <i>Ekur</i> > <i>gora</i> eta tokizenak.....	48
3.4. <i>Ekur</i> santutegi deabrutua.....	49
3.5. Gilgames eroiaren gizonkeriak.....	51
3.6. Esharra eta Marduk-en sorkuntza.....	53
3.7. Babel eta hizkuntzen nastea.....	55
3.8. Euskera ez da Babelen ondare.....	56
3.10. <i>Anzar</i> amazig-en errogatiba.....	59
IV. SAHARA, KULTUREN AURRESKOLA	
4.1. Sumeriar kulturaren aurrelari.....	60
4.2. Egiptoko kulturaren jatorria.....	63

4.3. Asia aldeko kulturak.....	65
4.4. Sortzalde bazterreko kulturak.....	67
4.5. Amaterasu disdiratsu Japonen.....	68
4.6. Ama Jainkoa eta Amerindiako kulturak.....	67
4.7. Andeetako kulturak eta “ama, belar ona”.....	73
4.8. Pachamama Jainkosa Inti Jainkoaren aurka.....	75
<b>V. DESLEGE AGIRIAK.....</b>	<b>77</b>
5.1. Ptah magiadun jainkoa.....	78
5.2. Marduk, indarkeriaren jainkoa.....	78
5.3. Deuteronomioko agiria.....	82
5.4. Grekoen klasikotasun matxista.....	84
5.5. Erroma zuhurki saiatzen.....	86
5.6. Enperioko kristinauak.....	90
5.7. Kristinau paganoak.....	92
5.8. Misoginiaren kaltea.....	95
5.9. Jainkoaren heriotza.....	96
<b>VI. ASIERAN BEZALA.....</b>	<b>99</b>
6.1. Amatar eskolak.....	100
6.2. Ama eskolak, ama hizkuntzaren alde.....	102
6.3. Ikastolak eta euskera.....	103
6.4. Feminismoa eta amatar eskola.....	105
6.5. M <sup>a</sup> Montessori, pedagogia ikasia.....	107
6.6. Ama eta maesa.....	109
6.7. Emakumea, jakinduria, nortasuna.....	110
<b>VII. AUTORE BERRIEN LEKUKOTZA.....</b>	<b>113</b>
7.1. G. Dumezil-en indoeuropeismoa.....	113
7.2. Giovanni Semerano mediterraneanar.....	126
7.3. Dogon-era eta euskera Jaime Martin-en gardiz.....	118
7.4. Edu Nyland, euskera aldeko igarle.....	120
<b>ONDORENAK .....</b>	<b>123</b>
<b>ETIMOLOGIAZKO HIZTEGIRAKO MITOANALISIA .....</b>	<b>127</b>
<b>BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>138</b>



**ESKEMAK ETA OHARRAK**

<i>ama.utu.an.ki</i> (aztertzen).....	13
Oihuzkoen analogia, arketipoen arabera.....	20
Gonbaratzaileen analogia, arketipoen arabera.....	22
Nondik Pachamama Amalur?.....	30
Oroitzapenaren loturak.....	38
<i>giza+une&gt;gizon</i> mitoanalizatuz.....	48
<i>Adapa<sup>(s)</sup>/Abata<sup>(eus)</sup>&gt;Ptah<sup>(k)</sup></i> .....	52
<i>amatu/amakatu&gt;magia</i> .....	58
La teología indígena.....	70
Religión, nostalgia de madre.....	73
<i>escriba</i> hitzaren etimologia.....	76
Religión, Ley del padre.....	80
Pertsonak eta izenlagunak gramatikan, arketipoen arabera.....	88
Sendikoen izenak eta <i>maite</i> aditzak, arketipoen arabera.....	100
Alternativa a lo patriarcal.....	108
Etxekoandrearen eginkizunak.....	117

*Sigla batzuren irakurketa:* (**s**) sumeriera, (**k**) koptoa, (**u**) ugaritiko, (**ara**) arameoa, (**ar**) arabea, (**h**) hebraiera, (**g**) grekoa, (**l**) latina, (**ga**) gailegoa, (**ka**) katalana, (**gaz.**) gaztelania, (**f**) frantxesa, (**i**) ingelesa, (**it**) italianoa, (**al**) alemana,

## SARRERA

Abereekino ama izaten dute eskola bide. Amek elikatzen dituzte txikitan eta amek trebatzen ehizean. Hori jakiteko ez da asko aztertu beharrik. "Aficionado a los mitos" bai, hor nonbaiten agertzen denez. Ikerlari, *Eleiker* ahaleginari sor diodanez. Ez nintzan sartuko, hala ere, mitoetan, euskeragaitik izan ezpalitz. Mitoa *mizos* grekoa baino, argiago dakust *mintso mintzoa* ahozkatuz eta *eipon* forma grekoa baino, gurago *ipoin ipuina*, adibidez. Berdinu edo nastatu barik, grekoa berezi egiten dut, geurea den formatik, dena hobeto ezagutu eta batabesteekiko dugun kutsua, ezelako iguin barik, sakonean ezagutu ahal izateko.

Ez nintzan sartuko mitoetan, Jung sikologistak hizkuntzaz esan ez balu: "hizkuntza mito bizia da" eta hala idazten du maisu honek, euskararik jakin gabe. Euskara jakin izan balu, argiago ikus zezaken horren egia. Beste batzueri, euskara jakinarren, kosta egiten zaie hori ulertzea. Denean, baina hizkuntza arazoan bederen, mitoaztertu behar da, arazoa sakonean ulertu ahal izateko, hau da, ondoraino jo eta arakatu, barrua azaleratzeko.

Gure ikasketak Bibliaren exegesia zuan helburu eta Unibersidadeko andereñoak *Mitocrítica* erakusten zigun, hots, liburu santuak eta edozein idazti mitoen argibidetik ulertu ahal izatekotan. Harek idazkieri zien ardura, nik euskarari egozten niola, eta horrela gertatu zan: nik idazkien argibideak kaltetu barik, euskarenak aztertzea eta jainkozko hitzak herriko hitzekin konpontzen hastea. Ez dago kontraesanik, *ama hizkuntza* orokorra eta bakarra delako. Hala azaldu nion andereñoari aurkeztu nion lanean: "mitoaztertzea idazkien argigarri bada, idazkietako hitza ere mitoaztertu zeiketela". Zurtz gelditu zintzaidan andereño gaztea, baina aprobatu egin zidan.

Bardin esan dezaket maisuari buruz: berak hebreoari zion atxikitasunak baino gehiago, eta hainbat beheinipehin, balia ziezakiokela ez zekien euskarak. Zergaitik? Euskara gutxienez hebreoaren garaikidea badelako, zaharragoa ez baldin bada. Ez nion holakorik aitatu. Ez nintzan inor orduan eztabaidarako. Orain bai, gauzak ikertu ondoren, esan dezaket: euskara maisu zaharra dela holakoetan, euskara hizkuntzalarien *roseta harria* halakoa




dela, edo, beste era batera esanda, hermeneutika berezia.

Sartu nintzan, bai sartu, mito azterketan eta uste ez nituen argibideak aurkitu nituan: ez bakarrik euskera beraren *ama eskola* idoroten, hots, amak umeei erakutsi hizkera, bai eta ere herrialde batzuk *ama eskolari* dioten amorrua ohartzean. Zer dela-ta, amorru? Ama eskolako hizkuntza salatari gertatzen zaielako, alegia. Euren politika gaiztoa salatzen duelako, hala nola faxizmoaren estatuak euskara eta katalana, adibidez. Eta kale-kalean gertatzen denak ikusarazten dizu batak bestea dakarrela. Hori ez da teori mailan hain argi ikusten, baina egia hori azaltzen zaiatuko natzaizu. Nola esan duzu? Horixe: *genero biolentzia*, “sexxu indarkeriak” nahi baduzu, hobeto ulertzeko, *ama eskolako* hizkuntza bera ere gorroto duela, ez emakumea bakarrik, bai ta ama eta *ama eskolako hizkuntza* ere. Eta hizkuntza hori nastatzen, lardaskatzen, kontraesaten jardungo ziran Babeleko nasteen bezala, euren Jainkoa ere herriko hizkuntza bakar eta orokorraren aurkalarari eginik.

Bibliak dinonagaitik, herriak ez du sinistuko, baina Bibliak herrietako kaleetan esan zena errepikatzen du, bada idazlari azkarrak, angeruen abotzak barik, herriko bozak eta esamesak hartzen ditu eta eskola bat egiten, eta maiz (ez dinot beti) *ama eskolaren* aurkako eskola, Jainkoaren nahia, “Jainkoak esana” bailitzan, agertu da.

Orain, bada, eskerrak mito azterketan sartu nintzana, “aficionado” bat izatetik asita, urteetan jardun, beste batzueri lekua izteko gertu, nere epea amaitzen deneko: ausaz batek hil egin behar bai-du, esanak eta idatziak beste batek aintzat har ditzan.

Gizonezkoen arrandia eta agintea amaitzera doanean, emakumeengan dut ustea. *Ama eskola* erraietan errotua dutenez gero, eurak izango dira Biblia, eleiza, herria eta euskera bera, ideki, zaindu, sustatu eta ulertu ahal izango dutenak, ohiko klerikarismoaren idazkaritza aldia joana bai-da jadanik. Emakumeak, gure amen alabak gelditzen zaizkigu. Froga gehiagorik behar izanez gero, horra *Zeruko argian*, (2015/11/29) Cat Boyd eta Jenni Morrison andereek Eskoziako indepentziari opa dioten erronka: “gurea ez da klase borroka bakarrik, gurea genero burruka ere bada”. Entzun duzunez, ba dakizu euskararen burruka ere zertan den, *ama eskola* den aldetik...



Mitograma honetan Nut "zeru" Ama Andia agertzen da, izarrezko *ma-+antu>-mantuaz*, jantzita, bere bizkarraz ur goineak goitik biltzen ditula eta uneoro *Geb<sup>(k)</sup><kabe>gabea>Gaia<sup>(p)</sup>* "lurra" *inutzen*. Bere erraibepean *Erra* orobila hartzen du eta egunero babesten. Erdian *Shu* lainoska baten gainean eta *aire*, *amas* bizigarriaren *ank* seinale *ankurak* besoetatik dindilizka dauzkala. *Errak* ontzian biratzen du lurra, *Ma.at*, jakinduriaren Amak, gidatzen duela aurretik, buruan eguzkia eta *ureus* sugeiñoa daramazki, ostetik Toth eskribaria lekuko, eta Osiris zoriontsuak besoak zabalik artzen... Izadiko lau elementuak aurkezten dira: ura *uin Ama*, sua *Shu*, *airea Erra*, eta *loi Lurra*; giza arketipoak, berriz, *Ka+Ba*, *Geb* gizakiak hartzen dituela eta zoriontasuneko astapena *Akh/Aj<sup>(k)</sup>*, *Shu* besoetan agintzari direla.

## I. GIZA SORKUNTZA BEREKOAK

### 1.1. Ama, amatasun orokorra

Gizakiok ama erraietatik gatozena ondo ezagutzen dugu, eza-gutu (besterik da onartzen dugunetz) eta, agian, halako eskar-menduak bultzatu, izadia bera, Ama Andiak sortua izan zelakoa gelditzen da Sumer edo Egiptoko mito zaharretan. Mito zaharren bila, ez jo Greziara edo Erroma klasikora, hareenak gizaki beraren ipuinak baino ez bai-dituzu; eta, asmakari agertzearren, maiz beste aurretikoen kalko txarrak baino ez zituzten egin.



**ama.utu.an.ki:** Sumeriar izkribu hau astertuz, hizkera zaharra iruditzen zaigu, **ama** formak ez bai-tu orandino ergatiborik **utu** adizkeraren gain arduratzeko eta **an, ki**<sup>(s)</sup> “zeru+lur” osatzeko. Arketipo bezala, **ama** bere ume **an** formarekin adosten da, **m/n** kontsonanteak elkarrenak diren einean. Aurretik **ama** dager eta urren **utu** arketipo biak osatzen dute **ama+tu** ekintza, geroago baten latinak ere adizkerak gauzatzeko erabilten duen forma **amatu**<sup>(l)</sup> > **amado**. Arketipo bereko dira ama jainkoen izenak **Ma.at**<sup>(k)</sup>, **Maite** > **Maide**<sup>(eus)</sup>. Bere sorkariak **an** eta **ki** dira, bata familia bereko (arketipokide), “amaren alaba” eta bera ere, maila berean **Antu** ama jainkoa izatera deitua “*antu* > *anditu* > *enchida*” datorrena, bestea, **ki** giza izate einek nortasuna duen arketipoa. Jainkoa ala gizakia al da? Dagoeneko Sumerren ba zan eztabaidarik *Ilu/loi/lur* eredia jainkotzat eman zitekenetz. Hanartean *Inanna*, **An** jainkoaren alabak, aitarren **me** indarrak ebatsi zituan. Euskerak **ka** arketipoa ezkortzat dauka, baina era berean, *kauta, kako, kar* bezala, edo *-ko, -ki* atzizki...

Euskera bera ere honetan bidelagun dugu, beste hizkuntzak bezala, mito bizia delako, Jung sikologizalearen gardiz. Euskera mito biziak bere esakeretan *Jainkoak in da milikatzeko*<sup>1</sup> dinonean, adibidez, Jainkoa AMA dela dinosku, amaren ekintza delako (abereena bederen) bere jaio berria milikatzea. Esakerak sikologia ere ba du: *milikatu* atsegin ematen digun ezta milikatu edo miatzatzen dugu: hala amak bere umea, ezta bailitzan. Ume eder baten aurrean, beraz, euskerak *Jainkoak in da milikatzeko* dino.

Euskera mito bizia da beste esakera honetan: *Zerua eta lurra asarretu ziranean, itxasoa egin zuten*. Horrela adierazten digu euskaldun zaharrak zerua nortzat zeukala, lurra bezala, hots, jainko egiletzat. Eta senar-emazteen arteko aserraldi gazi-goza osteko ekintzat jotzen du itxasoa, Ama Zeru eta Aita Lur arteko zorkaria.

Antxinako mito idazkizunetara joaz gero, Sumerren *Obeid* edo *Ubaid* lehen kultura aldiko idazkia aurkitu zan Ur eta Eridutik gertu, Burano (Eufrates) egalean. Kontuan har Ubaide/-Ubide izena, besteak beste, ibaiak Persiar Golkoari bide egiten diolako. Oltxoan idatziak honela dino: *ama.utu.an.ki* eta “amak

1 GARATE, G. *Atsotitzak, refranes, proverbes, proverbias*, F. BILBAO BIZKAIA KUTXA (1998)





Amatasuna Sumer eta Egipton bustinezko edo harri iruditan: *Nammu*<sup>(s)</sup>/*amuna*<sup>(eus)</sup> eta *Aset*<sup>(k)</sup>/*asetu*<sup>(eus)</sup>>”*saciar*”>*Isis, Aste*<sup>(eus)</sup>>*Ast*<sup>(k)</sup>”*crianza*”, edo eta *eser*<sup>(eus)</sup> *assie*<sup>(d)</sup> Egipton. Ohar *amaren amatigo*>*mitigación*<sup>(gaz)</sup>, haurra *inutu* artean nola egiztatzten den “*titi* bagarik, ezin zerurik” esakera, izan ere, amaren sinboloa *zerua* bera da. Amaren eskolako kulturek ama dute gurari bizi ohargabeen eta egundoko zakarkeria da herriak ama gabe uztea, patriarkalismoaren erabagiz...

itu zero lur” interpretatzen da<sup>2</sup>. (Ikus esaldiaren analisisa 12 or.) Handik haratago ez dago ezeren arrastorik, amaren ama *amuma/amona* izan ezik, *Nammu* deitua Sumerren edo *Num* ezaguna Egipton. Amaren umeko *An* jainko aitortzen da Sumerren eta haren emazteari *Antu* deitzen, hots, ama *antua*>*andia*, *Enki*<sup>3</sup> semearen ama, *An* jainko aitak, lurreko uren oreka-zain izendatu zuan eta Dilmun Paradisuko jabetza eman zion, Persiako Golkoan. Inanna alaba, maite Jainkosari, Ur uriaren zaintza eman zion. Inanak bisita amultsua egin zion Enki nebari eta *An* aitaren *me*<sup>4</sup> indarrak ebatsi zizkion bere uritarren gozamenerako.

2 H. LIMET, “*Cosmogonía (sumero-acadia)*, DR. or. 343. Cf: *ama.utu*>*amatu* dator adizkeraz “ama izan, izatera heldu”. *Ama+Utu* arketipo edo eredu zaharrak “Zeru+Iduzki” dira sinboloz eta *ama+atta* analogiaz Egiptoko *Ma.at*<sup>(d)</sup>, *Maite/Maide* denarekin bat datozenak.

3 *En+ki* “zeru+lur” aztertzen da, jainkoen ertaldi berriak lurreko familien antzeko egiten direla eta haien arketipoekin izendatzen.

4 *Me* indarrak “erritoaren eragina” esan nahi du, ama arketipogandik jasoriko dohaia noski: erritoz esaten/eskatzen dena ziur gerta dadin, agian. Euskarak *mee* erabiltzen du “argal, zorrotz, totil>sotil” adierazteko, *totil* “neska ederra” da, edertasuna bera ere *me* eragin hoietakoa bailitzan. *Me* gehiengo kasuan *meen*>*men* dator, “agintea, *mendea*” adierazten eta izen askoren eraginkor da *-men* atzizki bezala: *salvamen*, *agmen*<sup>(d)</sup>, *gozamen*, etab. Beraz, *mendea* amatar ondarea izan zeiteken, arketipoei begira, eta *agintea* berriz, EN.KI aitatiarra. Euskerak badu beste hitz bat *me* inguratzeke, *eme*, alegia eta gainerakoekin ondo egokitzen da. (Ikus Sumerreko Jainko familia eta halamoduz etxekotu fameriala, pag. 27)

## 1.2. Nut, Egiptoko Ama Andia

Mitografietan *Nut* “Zeru” Egiptoko Ama Andiaren irudia da arri-garriena eta sorkuntza guztia beragandikoa dela adierazten diguna. Gizakiek, gora begira, horrela ikusten zuten *Nut* jainkosa, “bilosik” *nuta*<sup>(f)</sup> egunez eta izarrez jantzita “gauez” *nit*<sup>(f)</sup> (Ikus 11 or.) gizadia oro bere *eñez* eta *uinez inutu*>*nutrir*>*nourrir*<sup>(f)</sup> sentitzen zenean. Euskerara ere gertakizun horren lekuko da eta hori adierazten dugu hitz makurtuez. Egiptoko Sorkuntza teologiaren muiñean *Nut* Ama Andia goiko urak eta beeko urak bereizten agertzen da. *Antu*, Sumerreko Ama jainkoa ere arketipo bereko izena da eta euskeraren oroitzaiko *ur goiena*, *ur barrena*<sup>5</sup> uren cosmogonia gogarazten digu urteroko *Inote* ariketetan ospatzen duguna gure artean (Ikus 17 or.) eta Valentzian *Ninot* deritzaiona, izan ere “berak sortu, beraz mugi eta berak bizi bai-gaitu” (Eg,17:28). *Nut* Ama Andiagan izadia ibilian ikusten dugu, goiko urak bekoekin bat egiten dutela eta *Erra*, haren seme *iruskia*<sup>6</sup>, euskaldunek *Ortsi/Oruse* deitua, ontzi berean eguneroko osterea egiten dutela, berriz ere amarenera joateko<sup>7</sup>. Beean etzanik dagoen gizakia *Geb* da. Gerkar iraultzak, amaren kontra altxatuz, jainkotzat izendatu zuen *Gaia* “ama lurra” aitortzen zuela. Euskerak hobeto daki horren berri<sup>8</sup>. *Geb*<**Ka**+**Ba** arketipoez osatzen da eta bate-tik *ki*<sup>(s)</sup>, *geos*<sup>(g)</sup> “lur” euskerarentzat *gaia*, *gaitasun*, eta bestetik, *baita/barne/psike*<sup>(g)</sup> “gorputza+anima” esateko. *Nut* irudiak Egiptoko momietan *barka*<sup>9</sup> edo atabutetan aurkitzen dira, aspaldi-

5 *Ur goiena, ur barrena* Urteberriz Nafarroko Barrankan ospatzen da, J.M<sup>a</sup>. Satrustegik ohar egin zigunez eta ume sari biltzaileek abesten dute.


6 Euskaldunok *Erramendi/Remendia/Ramonte* (Arabian) izenekin eza-gutzen du, berari opaldu mendi izenetan eta *Orusemendi/Montorsi* bere iloben izeneko mendietan. Ohartzekoa da gure mendi asko ere gure siniste zaharraren lekuko direla. Norbaitek esana da, euskara hilarren, gure mendiek euskera egingo dutela, baina nork ulertu gure mendi izenen berbeta, euskaldunik ezean? Hori daiteke izan, idatzi gabeko *Mendigoizaleen poema*.

7 “*Ba doa eguzkia bere amagana, biar etorriko da, denbora ona bada*” dino Gorbeiaiko artzainaren aitorrak.

8 *Geb*<sup>(k)</sup> *gabe*<*kabe*<*kabia*<sup>(au)</sup>>*Gaia*<sup>(g)</sup>. *Ba*, *baitaren* “anima” da. *Abia* kenduez gero, txoria *gabe* (naigabe) gelditzen da, eta *Benu*<sup>(k)</sup>>*Fénix*<sup>(g)</sup> bihurtzen. Bere etxe duen *abia*>*ave*<sup>(au)</sup> nahi luke, baina ezineko *benaren penaz penatu*, berbiztea du ames.

9 Ohar *barka/barku* hizkunea: harako bulak antzo, bekatuen barkamena adierazten. *Atabuta* hil kutxari deritso. *Abutu* “lo egin” *at*+*abutu* “lo zorroa, *butsuan sartu*”.





*Ma.at* Ama Jainkoa animen juzoan (eskumatik ezkerrean): Besotik helduta *Ma.at* Amak hilotza juzora darama. *Ma.at-en* pisuak *matematikoki* egiten du balantza, duina denetz jakiteko. Alde batean hilaren bihotza eta bestean *Ma-at-en buru koroa*>*fulcro*, ostrukaren luma. Anubis eta Neftis lagungarri ditu eta jarraian Toth idazkariak ondorena zigurtzatzen du. Zindoa bada, arima ezkerrean exerita dagoen Osiris jainkoaren zerurako eta ezpabere, aurrean, mahai gainera igona, begira dagoen otsoaren ahorako. Osiris-en mitoa Isis-enaz lotzen da.

ko kristau elizaren bulen antzera, hilaren gainean, zerurako sarrerak bezala, zabaltzen bai-ziran. Edo, Egiptoko jakinduriarren arabera, “*Ma.at-en* arauak, piramideak baino hobeto gordetzen bai-dute betierea”<sup>10</sup>.

Sumerreko jakindurian ere argi dager amatasunak Jainkoarekin duen lotura, adibidez “emaztea hartzea gizakien zeregina da, baina ama izatea jainkoaren dohaia”.<sup>11</sup>

Aldi zaharragoetako, hots, Paleotitosko, hitzik edo idazkirik ez dugu, baina bai Mary Gimbutas arkeologoaren lekukotasunik, berak *Jainkosaren hizkera*<sup>12</sup> deitzen duen lanean, Windefor-ko Venusaren antzeko irudi askoren lekukotasunaz Ama Andiaren mendea zigurtatzen digu. Besterik ezean, irudioganako atxikitasun andia izan zuten gure asabek, hitzaren peituz, irudiak berak egiztatzen bai-zuan jainkoekiko errittoa eta ospatzen zuten jaia.

10 J. P. CORTEGGIANI, *MAAT*, D.R. O.C., or. 1047.

11 (Proverbios de la colección sumeria, I, 160, DB, nº 26.

12 *Lenguaje de la Diosa w.*



### 1.3. *Maat: zuzentasuna eta jakinduria Egipton*

*Ma.at*, jakinduria eta zuzentasunaren *Ama* Jainkoa zan Egipton; emakume totil antzean agertzen da, burua ostruka lumaz koroatu duela, *matoa* eskuman eta *ank<sup>(k)</sup>* *angura* ezkerrean dituela, zutuniko irudian. *Ma.at*>*mato*>*mazo* hitzek hizkunea egiten datoz, *mendea* eta *manua* berea duela adierazten eta *neurria* berriz, zuzena baizen doia. *Matoa meea* da, luma arina eta, dena den, salbabideko adurra ezkerrean duen *ank<sup>(e)</sup>* *ankurak* agintzen die bere, amaren esana, egiten dutenentzar. (Ikus ohar 61)

*Ma.at*-en antzari *amatigoa* dario, amatasunak orekatu duen emazteari bezala. Eskuan daukan *matoa* berez dagokion *manuaren* ezaugarria da. Ainbeste seme-alaben arteko estabaidan *ongoa* “bakea” sortzeko, *manua* ezezik, *maina*>*maña* behar ditu eta *maisú*>*maese* zuhurraren *amarrua*, etxeoak *mahi* batean *amainatzeko*<sup>13</sup>. *Mato*>*masu/maisu* dator hizkunez, nahiz bere mendearen seme iraultaileak *mazo/makila*>*melek<sup>(w)</sup>* “errege” biurtu herriaren zigorrerako. (Bere juzoko epaiari dagokionez, ikus haren errito osoa, egitiar mitografiaren arabera, 15 orrialdean)

Antxinako hilarrietan M T kontsonanteak agertzen dira eta ba du aMa.aTa izenarekin zerikusia. M-T=aMa+aTA/aTe aztertzen da, ots, munduratu ginduzen ATE bera delakoz beste mundura daroan bidea. “Ama+ata” *Ma.at* da egitiar formetan eta bat dator bere teologiarekin. AMA+AITA>MAITA>MAIDE dator ostera, sorkuntzan ere genero bien batasuna eta gurasotasuna aitortzen. Bide beretik dator MAITE >*matatu*>*amatu*>*amado* bezala eta AMA hitzetik >*amako*>*amigo* “amaren antzeko alaba” edo “amatar semea” adierazteko eta hortik latinak jaso dituen *amiku*>*amigo/amika*>*amiga* herrikoiak. Hortik *mako*<sup>14</sup> “zeru” sinboloa ere, eguzkiak egunero ama ikuskatuz eta omenduz, egiten duen osterea.

Aurrizki delarik, orokortasuna ezarten dio hitzari: *am-+atatu*>*amatau*>*amatar*, *am-+hildu*>*amildu*, *am-+uts*>*amuts*, etab.

13 Euskarak ere *amaren manua* aitortzen du *M/m/n* eredu arketipoari bide egiten diola. Hagaitik letera makurrez bereizten dugu euskararen lekukotasuna.

14 *Mako* izena baino gehiago “arku” forma erabilten dugu, RA/ERRA-ren makoa bera adierazteko, eta jainkoen arteko zela, baino harago jainkozaleen arteko lera ematen du, hots, jainkoen izenekin hizkera ornitzen zutenen jokera..



Donostiako Iñotean iñude “aña” eta unaien ariketa: Iñudeak nini iñosoak daramazkite besoetan eta urteko uiña eta eña inokatzen dute “añoran”, ots, INU jainkoari inoz eskatzen, niniak iñutzeko eña eta unatzeko una. Umeen intziniak amatigatzeko, INUk iñotsi dezala zerutik baratzera uin bizigarria. Orobat unaiak aume, antxume eta aiñe berriak, azokak zer anzoka izan dezan. Urte berria onuratsua izan dadin eta ungoaren meneko mendekoa...


Ama mendekak, aitatiar mendekak baino hobeto gorde ahal izan zuan ama eskolako hizkuntza eta aitatiar eskolarik zakarrenak ere ezin izan du gutzit atzindu amatiar kutsua.

NUT/MAAT izeneko bigarren arketipoa UTU “iduskiari” dagokio. UTU>aita arketipoa da, bata besteari omen egiten die, bai Egipton eta bai Sumerren. Sumerreko idazkietan bederen aitortzen da UTU>iduskia<sup>15</sup> Jainko Aitaren jasako eta justiziaren eragile. (Ikus Hammurabiren lagun, haren legediaren zutabeen, or. 19) Berari dagokia halako tukuz>txutxuz juzoa zaintzea Maat amaren ondoan. Zigordun legeak herriari ezartea ez da Ama mendekoa. Amarenak ahoz-ahoko oharrak ziran, aita agintekoa, oster, ordea zekartenak. Hala ere, Sumerreko legelariak jainkosen izenean onartzen dute herriari arau berriak<sup>16</sup> ezarte-

15 Euskerak UTU aitortzen du, hari eskeinitako Otamendi/Montoto, Itxumendi/Menditxu, Udamendi/Montudo etab. tokizenetan, bai eta ere iduski izeneak berak, Utu+-ski formek Uturen sendiko egiten duelako, iruskik Erra-ko lez.

16 “Nannaren adoreaz, Umma-ri askatasuna eman nion [„]” esaten du Urnamuk Sarreran besteak beste. (MARIE-JOSEPH SEUX, *Las Leyes del Antiguo Oriente*, D.B. n<sup>a</sup> 15, or 16) “Ni Hammurabi naiz [...] Telitu jainkosaren maitalea [...] Istar jainkosaren bihotza poztzen duena...” zigurtatzen digu legelariak Hitzaurrean, (*Ibidem*, or30) Cf: Telitu>Zelutxu>





Kosmoaren irakurketa arketipoen arabera: Goian zeruan, beean lurra. Zeru makopean iNu, amaren semea, beerago, ezkerrean, uTu, "iduski" eskuman eRra, "aire" azpian, lur azalean, iLu, "loi, lur". Horrek dira jainko arketipoak. Baltzean dagerz gizaki beraren arketipoak: goian Ka "gaia, materia", eta bean Ba, norbere baita, kontzientzia eta eskuman aS, "asa, atsa" goikoak beekoekin elkarriketatzeke baimena edo "santutasun errituala". Horrela agertzen dira Sumer eta Egiptoko baloreetan ere."- Arketipo izena, Jung maisu sikiatratrena da: norbere ohargabea argitzen...

ko. "Ama Utu aina da, gizakia argitara ematen du", sumeriar jakinduriak dinonez.<sup>17</sup> Emazte-senarrak *no* eta *to* dira euskararen oroitzan, *Ama+Utu* esateko. *Utu>su* da izatez, *tu/to>zu* nortasunez eta, hagarik *Utu>ide>idem* dator eta giza bidelagun egiten da *>kide*, "bide erratu dabilenaren gida zara" bai-dino bere inoak<sup>18</sup>. Hagaitik hizkune egiten dute *kide>gida>guía*, izan ere, hiztegian *nomen est numen* "izena jainkoa da", ots, jainkoak bizi dituen jainkoen izenekin konpontzen du hitza analogien erara eroso datorkiolako. *Uturi* jarraiki, ba daki zer esan nahi duen *itoitu*, *ota*, *ito*, *Utuk* egunero egiten duen *ostera* delako. Bere "goiena" *ota* da, bere "beroaldia" *uda*, bere *uden* serbitza *odi*, etab. *Utu*, aurrizki delarik, ekintza adierazten du berere: *utu-+ur>utturri>*, *tu-+ortu>sortu>sortir<sup>o</sup>*, *at-+oratu>atoratu>atorar*, etab.

*Utu* senar-emazteen arteko zintzotasuneraren aldeko da: "adizkidearen emazteari begiak jasoten dizkiona goiz daramazu illundira"<sup>19</sup>, ohar egiten du bere inoak, giza lege-zigorren antza ematen diola jainko-jusoari. Jainko honen izena akadiar ahotan *Shamas* da, eta

*>datorke coelitus<sup>o</sup>* formaren lekukotasunez. Hortik datorke "Marje *Teilatuko*/gona gorrije/, eutsi agin zaharra ta/ ekazu barrije..." otoitz zaharra ere.

17 *La Enseñanza de Shurruppak*, D.B. n<sup>a</sup>26, 50 or.

18 *Himno a Shamas*, D.B. n<sup>o</sup> 26, 110 or.

19 *Ibidem*, 88 or.



Hammurabi erregea, eskuak oititzean, *Utu* (Shamas) jainkoaren aurrean. *Utu*, jainkoak sumeriar txanoa du buruan eta sorbaldeetatik sukarra urtikatzen, eskuman duen *jusoen*<*sotza*>*txotxa* edo *txusoa* luzatzen dio legelariari. Seinua berbera ematen zaio gure artean merari edo alkateari: aginte seinua, herriak argi ikus dezan, nori egin men eta begiramen<sup>20</sup>. Ohartzekoa da gure oroitzako hizkirimiria: “Zein da basoan jaio, basoan hazi, herrira etorri eta bera nausi?” Erantzuna: Alkatearen makila. *Makila* ostera *melek* (errege<sup>21</sup>) andiagoga eta bil durgarriagoga zeiteken, *sotza* finagoa

*Shapas* ugaritikoan, sumeriar mendera bildu herriek, goiztar hasi ziren hizkera aldatzen, euren nortasuna nabaritu nahiez.

Gaurko gizartean emakumeen eskubideak eta nortasuna duintasunean parekatzen ikasketetan maisutza eta politikan hitza hartzen doazela ikustean, gaurko demokraziari esker dela uste dugu, baina *ama mendean* amarena zan berezko eskubidea da.

#### 1.4. *Maat eta Mari-ren aginduak*

Asieran ez zan idazkizunik, ez lege idatzirik, amaren ahozko aholkuak baino: “*amak esan du/madre ha dicho*” errepika edatzen zan seme-alaben artean. Aholkuak ahoz ematen ziran, “Ma.at-en arauak” deitzen dio Egiptoko jakinduriari; guk “*amaren manatuak*>*mandak*>*mandas*, edo *mandatuak* bezala ere ezagutzen ditugu, hortik datoz geroagoko *mandamientos* ere.

Moisesenak askoz geroago harrian idatzineko aginduak izan ziran (Deut. 5), amarenak, ostera, “ez ostu, ez gezurrik esan, ez hil, ez arrotu, urkoei ez errespeturik galdu, aginduak bete, eta alkari lagundu”<sup>21</sup>, gehienak ezkorrean datoz eta harago Maat-enak: “ez dut pekatu egin, ez dut bidegaberi egin, ez diot alargunari negarrik eragin, ez dut biraorik esan”<sup>22</sup>. Amaren aholkuak ziran

20 J. P. CORTEGGIANI, *MAAT*, D.R. o.c, or. 1047.

21 SORAZU E, *Anropología y religión en el Pueblo vasco*, o. c, pag. 290.

22 CORTEGGIANI, J. P., *Muerte y vida de ultratumba en Egipto.-4 Funerales* DR.1257



1ª laburdura: OIHUZKOEN ANALOGIA, ARKETIPOEN ARABERA						
AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	AS
ene/en	otoi/iso	ara/ario	alá(ar)	bea/vae	ka'kia	ixi'che/txen
enei	ut/ux/aida	arren	olé/iole	ba'buá	gel'gora	jau'chao
ño/año	txut/íxo	aro'rau	(h)il/lúe	ave'afa	ako'ecco	asa'ajai
oino	et/eit/at	arraio	ola'alló	eup'vah	geró/coño	zaust
ena	uju/ujui	arre'aira	ely(h)	uf'huf	agur	xapi/zape
ainü	otian/utinam	rayos	elas/alto	hip(i)	courage	txist'chitón
aan	zut/tira/tus	arrano	ale/ela	vaya	kontuz	esti/este
ainintz	oste/ojalá	urra	al'alajina	balinba	kurra	ezbe

Ohar: Oihuzkoak "oraciones interjectivas" deitzeko, euskeraz dagoz gehienak, ezagun banaka batzuk izan ezik, erromanikar, latinez eta hebreaiaraz. Arketipoak habe bakoitzaren buruan doaz. Ohartzekoa da lehen laurak, jainkoei zuzenduak, benetako otoitz deiak direla, gainerakoak, giza mailako, lagunarteko agur eta oharrak...

gizartearen ongoa bilatzeko, ez dute zigorrik agintzen, bai zuhurtzira deitzen holako jakinduriez: "gezurtiak bere burua engainatzen du", edo "ez egik gaitzik eta ez euk bildurrik"<sup>23</sup>. Frogarako, Hammurabi lehen legea ikustea dago: "Norbaitek inori erailketa egozten badio froga gabe, salatzailea heriotzera emana bedi"<sup>24</sup>. Ahoz emaneko aholkuak eta aita aginteko agindu idatzien aldea ikusten da. Amak ez leza inor hilterik agindu<sup>25</sup>, Amarena da hagaitik, hots, *amana*>*mana* eta *maina*, *batak mantenua*> *menage*<sup>(f)</sup> du asmo, besteak herria *manatzea*>*mené*<sup>(f)</sup><sup>26</sup>.

Hobe bakoitza norbere epailari izatea, inoren epaia jaso orduko. Mari, Ama Jainkoari zegokionez, *ezaz eta baiaz bizi naz* arian bizi omen zan, hau da, norbaitek epaian ukatua beretzat hartzen zuan edo norbaitek epaian gehiagarriz aitortua ere beretzako. Halatan, argi dago *gezurtiak bere burua engainatzen du* jakinduria. Mariren menekoak ba zekiten burua gobernatzen, halare uztai aldiko inatazi edo kaskabarrak Mariren edo, ausaz haren senar Majuren, zigorrak omen ziran (Ikus Mari 95 or.).

Herri bakoitzak ipuindu mitoak, herriko kultura eta ganora

23 GARATE, G. *Atsotitzak, refranes, proverbes, proverbial*, o, c., 7729.

24 MARIE-JOSEPH SEUX, *Las Leyes del Antiguo Oriente*, D.B. n<sup>o</sup> 15, or. 31.

25 Jesusek bere eginkizuna agertzean, ez du agintzen Jainkoaren zigorrik (Luk 4:21)

26 Gidatu bai, baina ez *min* egiteko, ezpaere *mina*<sup>(f)</sup> "meatxu" gabe.



Nepal uriburuko umeek Saraswati Ama Jainkoaren kaperako ormetan egiten dituzte lehenengo idazkizunak: zer idatzi, zer eskatu. Ama edo andereiñoa begira daukala, haurra *ama eskolan* ikasten ari da. Katmandu santutegia munduko koruan dago eta *ama eskola* iritxi zan aurreren haraino. (Ikus 63 or. gehiago)

dira, hagaitik hizkuntzak mito biziak dira, baina gutxik daki- te mitoak argitzeko euskerak duen hermeneutika.

*Maat*<sup>27</sup> eta Mari-ren aholkuak zer egin eta zer itzuri esaten digute ahoz eta bihotzez. Hori da txikitatik ematen den heziketa eskola<sup>28</sup>. Maat-en matoa ez da, beraz umerik zigorteko, mandatur- ren sinboloa baizik. Israel herriak ere, bere garaian, amaren eskola jaso zuan, bada, jakinduria “amak bezala, bidera egiten da” (Ecló 15,1-2) dinonean, agertzen den bezala.

Bideratzen edo esaneko ez denaz, *amak egin eta milikatu ga- bea haiz*<sup>29</sup> esan ohi da. Ama maina handikoa da heziketan.

Ama mende muga, An aitari ere aurre egiten dio Inanna alabak, bere mendeko Urnammu-ri bizi agintzariak ukatu dizkiola- ko<sup>30</sup>. Orobat Ugariteko *Anatu*, maite jainkesak, *Ilu* jainkoa mea-

27 CORTEGGIANI, J.P. “Muerte y vida de ultratumba en Egipto-4. Fenerales”, DR., o.c., p. 1257-1258.

28 SORAZU, E. *Antropología y religión en el Pueblo Vasco*, o.c. p. 290

29 GARATE, G. *Atsotitzak, refranes, proverbes, proverbial*, o, c., 714.

30 *La Lamentación de Urnammu*, 205, DB, nº 26



2<sup>a</sup> laburgoa<sup>o</sup>: GONBARATZE ANALOGIA, ARKETIPOEN ARABERA

aN=uno	uTu=duo	Ra=iru	iLu=lau	Ba=bost	Ka=eksa	aS=zazpi
ain/ein/oin	edu/uti	aren	lain	bein/bai	cuán/qué	zein/asina
-en/-ino	duin	arean	ala/ola	bezala	gino/casi	zelan/selon
ansi/antzo	zoin	are	lez	veluti	gisa/guisa	jas/yes/ez
onan	idem/adin	orrela	olan	bardin	kide/equale	sic/asi/si
nola	oso/total	eratan	aulan	bezain	cual	sano
muy/anitz	txit/sumo	real	alaen	behinen	como	sane
inobre	super	areago	alyn	presque	geiago	ya/según
ainbat	tanto/tal	urreean	alako	parecido	igual	semeios
máxime	thusto	eurrez	lar	vix/pene	guzti	aski/asko
nahiko	doi, soil	erruz	alaso	harto, bien	gutxi	aseki/assed
minus	ttantta	ralo	labur	poxi/poco	ka/quia	eskaz
noski	utique	real	alegia	vere, bai	egiaz	certe
ante	tint/edo	ordea	aliter	bestela	contra	extra
nahiz	todavía	or	alor	baina/pero	agian	siquiera
modo	talante	raso	ley	baremo	criterio	sentido
norma	edu/tipo	eredu/orden	laia	forma	clase	especie=sail

txuz hartzen du, bere maila agertuz, Balu-ren aldeko eskabidean.

### 1.5. Sinbolo eta arketipoen batasuna

Sorkuntzaren batasuna Natura berak emana da, hots, izadian agertzen diren elementuen batasuna: “ur” *uin*, *mama*, “ur goienek” erakusten diguten mantu urdinean, euren arketipoa aN<sup>(s)</sup>/iNu<sup>15</sup>, “su” arketipoz uTu<sup>(s)</sup>>iduski “eguzkia” dena, *aire*, ErRa<sup>(k)</sup>, arketipoari egotsia eta *loi>lodo* iLu<sup>(w)</sup> arketipoarena. Baratzeko eta gizakion bizigarriak dira lau elementuok eta lau jainko sortzailleen izenak dituzte (Ikus 18 or.). Lehen izenak gure astapenak eta

14 *Urak>uridin* ematen du, *uinak>anil*, “ur barrenak” goikoen margoa jarraikitzen dutela. Sinbolotzat zero makoa egunez urdina, gaeuz izarratua.

15 AN, aita (Ama arketipodun), INU, semea, bokalen zabal-estuak adierazten dutenez, iNu/eNi formak Urartu eta hurrirtekin batean ditugu euskaldunok. *Inu+-ko>Inko* dator, *ama>amako* datorren bezala. Aita agintean Jaun/Jau gehitu zioten aurrizki edo atzizki: *Jaun Inko/Inko Jaun*, gizonetza zela zigurtatzearen. Beraz, *Jaun Inko>Jainko>Jeinko>Jinko* “Denok Jinkoak inak gire”. Jaun tituloa, aurrizki jarteko ohitura K.a. 2200 garaitik sortu zan Akaden (“YAHVÉH, 4-Antigüedad”, Dic.B., o.c.p. 2065-2057) Akadiarrak aitatiarrak ziran, Sumeriarrek ostera, amatiarrak. Guzti honek ez du esan nahi euskeraren jatorria handikoa denik, han aurkitu izkribuak gure historia argitzen digutela baino.

bizikisun gertatu ziran, ez halabeharrez, *ama eskolak* baratz lanetan ohartu, bizitzan ikusi eta horrela erakustera emanaz baino.

Beraz, zeru bera, urdin edo arre, eguzki bera, bero edo epel, aire bera, garbi edo kutsatu, eta lur bera, *baratx>feraz* edo elkor, eurak dira gure hizkuntzako iruditeria lotzeko gei diren lau kakoak edo “josteko lau untzak/iltzeak, Gaston Bachelard sikiatraren gardiz. Horrerez gainera, gizakion sentzun eta sentikera berdina: begi, belarri, abo eta aboskerarako estarri berdina, gure oihuskoak mingatzeko. Ausaz ez sentikera berdina denok, izadiko jakinduria ulertzeko (Ikus or. 21), baina *ama eskola* jartzen dugu eredu, izadia bera dela eskola horren liburu idekia.

Nahiko ete ziran jainkozko lau arketipoak hizkuntza den arte lanerako? Hatan ere, nork norekin hizketatzeko? Gizakia jainkoekin eta gizakiak gizartean: haiek eta gu, “*Bestearen* arketipoak eta *norbere* arketipoak” bereizen ditu Jung sikologistak. Gizakiak nor edo ze sinbolo aurkest zezaken goikoekin hizketatzeko? Izadiak berak gizakiari ematen ziona, hain zuzen: **Ka>gaia** eta **Ba>baita**, horra gorputza eta arima bezala esanda, eta Egiptiar sikologian agertzen diren berberak. Aipatu arketipoetan bat falta da, gainerako arteetan bezala, zazpikoa biribiltzeko: margozki artean, ostarkua eredu, zazpi koloredun agertzen delako eta musikan ere zazpi nota direlako oro armonikatzeko gei direnak, zazpi ariko arpan bezala, Sumerren. Zazpigarren arketipoa errittoa bera egiztatzeko seinua izango zan eta gizakiak, otoiitzean bezala, errittoa hatarako ematen zion baimenez, eta bizi ahal izateko, sudurrak jasotzen duen a**Sa** “arnasaz”, gizakiak zeruarekin jarduteko behar zuen duintasun seinu gertatuko zan<sup>16</sup>.

16 Jainko arketipoen izenak euskarak gure mendi berezien izenetan gordetzen ditu: **Inumendi/Montaiño**, **Inamendi/Montanya**, **Otamendi/Montoto**, **Itxumendi/Menditxu**, **Erramendi/Monterré**, **Uliamendi/Montoliu**, **Lumentxa/Mendilu**, etab. formetan. Giza arketipoetan, ohar “ene ba!”, gure amonen oihuskoetan, egitiar **ba** arketipoarekin bat datorrena (JEAN LÉVÉQUE, *El Diálogo del desesperado con su ba*, D.B. nº 26, p.92) Orobat gure kai>gai baloreak eta as barriz, a**J** soinuko dager Egipton eta *zid* bezela, Sumerren. RIES, J., “SAGRADO (*Expresión de lo sagrado en el mundo sumero-babilónico*”, DR.,o.c., p. 1574-1583) Cf: Ohar sumeriar *zi-d* eta euskerazko *zetz/zietz* edo *txit/xit* gehiengoak, erritoren zehaztasuna adierazten.



### 1.6. Erritoen batasuna

Jatorrizko gizakiak gauzak ikusten dituen eran hartzen ditu: goian jartzen ditu jainko sortzaileak eta beean sorkariak. Siniskeraren batasunak, amatasun orokorrarekin batean, erritoaren batasuna eskatzen du, teologiak eta antropologiak topo egiten dutela. Gizakiek jainkoekin duten harreman horretan erritoak bitartekoarena egiten du, errito ahaleginak berez santutzen bai-du elkar-goko hitzarmena. Hau ulertzeko ondo datorkigu urartiar erritoaz jabetzea<sup>17</sup>. Umeak, *ama* oihu egiten dueneko, ama ba dator, umea erritoaren eskolan dago: amari dei egin eta behar duena lortzen ikasi du, hitz egiten ezeze, otoi+hitz egiten ikasi du. Egitiarren otoitza jainko izena errepikatzea zan eta gaurdaino mahometar askok horrela, “*Ala, Ala, Ala*” errepikatuz, egiten dute otoitz.

Halako otoitzerako ez da apaiz edo aldare iguruko maisu beharrik, tenploak ere sobera dagoz. Nahiko da izadia bera, mendi edo ibar, baratze-baso, baradisu, edo gaueko izarratua, Jainkoaren samurra eta erabat itzalgarria susmatzeko.

Geroago baten Babilonia eta Egiptoko apaizek antxinako jakinduriaren hiztegiak eratzen zituzten. Aitaiar kulturako zirenez, Ama Jainko jaierez herria titigatzeko, Ama Jainkoaren izenei ere *jaun* tituloa aurretik jartzen zietela. *Ina* zela jainkesa? Jarri *Jeina*. Horrela ba dugu *Geinua*. *Baba* zeritsola sumeriar Ama jainko meriku maiteari? Akadiarrek *Jaun+Baba* ezagutuko dute eta hortik euren *Yawe*, euskaldunontzat *yabe/jabe*, soil dena.

Zer esanik ez, hitzaren maisu berriok errittoa apurtzera zetozena, ama mendea astantzearren, baina jainkoengandiko lorpen zihurra nahi zutenak esamolde zaharra aukeratzen zuten, han

17 Urartuko Jainko mendiak zabaldiko uritik urrun gelditu zirenean, haien aiduru gelditu ziran hititarrak eta harei deika. Erregeak barau egin zuan herriarekin batera, jainkoek urbil zitezen. Horrezaz gainera, jainkoak “*txit* santuaren *zi-d*<sup>(6)</sup> doiaa ekar zezan, seinu horrekin txertatuko zituzten elkargo berriko hitzak (LEBRUN, R., “MAGIA HITTA” *d- Mugawar*, DR, o.c., p. 1055-1056) Cf: hitza aurrizki-atzizkiekin txertatzen da, erritoaren zehaztasunarekin, eta hizkuntza bera, monosilabismotik hara, nola hazi den erakusten digu. Hititarrak hurritar kultura eta hizkuntzako egin ziren. Hurritarrek Urartuko lehengusu ziran, hoiek INU eta haiek ENI deitzen zuten “jainkoa”.



Tassili, N'Ajjer-ko mendietan "Paradisu Galdua" horma agirietan. Bisita bat agian? Ezusteko ordua? Gizakiek euren egilea ezagutzen dute. Ama dator aurreren. Ez izutu, abereek bezala. *Abele*>*beldur* dator, ezaupiderik ez dutelako, ez dakite norbait arduratzen dena eurretaz, hagatik ihes egiten dute. Poza baino ez, itxaroaren ostean... Ohar bat, aztukor direnentzat: ordua heldua bai-da...

zekustelako hitzarmenaren agintzariak. Hagatik sumerierak inguruko herri mailan, liturgiako hizkunta bezala, bi mila urtetan iraun zuan, sumeriera bera hil eta gero ere. Hau sinistezina litzateke, geuk geure sasoiari latinezko meza ezagutu ez bagendu eta euskal herriari Ebangelioak latinez irakurten entzun eta euskerazko sermoiak eurak latinezko testo frogarriez bermatzen<sup>18</sup>.

18 Baina historia joana denez, jokera horren barregarria eta lotsagarria ezagutzea dagokigu. Herriak, umeakino, txisteak egiten zituzten: "Pater noster"/*zuloan laster*. "Requien aeternan"/ *gu beti tabernan*, etab. Zorionez heldu zan Vatikanoko II-ko Espirituaren ufada eta latinak aizatu zituan (1965), gu gazte ginala. Oraindino lana du Espirituak, elizako ohitura zabarrak (patriarkalak, *aitatiarrak* esatea lotsagarria bai-da) garbitzen, eurretan *ama eskolari* bide egin eta emakumeari dion *otina* (Lantzeko Inotean *Otxin* txontxongiloari opa zaion bezalakoa) beingoz garbitzeko.



### 1.7. Ama hizkuntza

Bizitza sortzea eta aldioroko berrikuntza amaren erraietan gertatzen den harrigarria da, beraz, egoki zan haurren heziketa amen ardura izatea. Ama hizkuntza amaren altsoan ikasia da. Hori adierazten dute “amaren bularretan ikasi zuan” bezelako esakerak. Seme-alabek ez ziran jakitun jaio, ez zuten chip gramatikalik jaso odolarekin. Amaren abegia eta abotz beroa izan zuten, ostera, bizi arduraduna zela aditzen emateko.

Oraingo pedagogiak, zorionez, umeen heziketa ama hizkuntza eskolatik hastea eta gidatzea eskatzen du, gainerako ikasketak burutzeko biderik egokiena bezala, umeak titigetzeko sapatza bezelako ukaldirik izan ez dezan. (Ikus liburu honen azala)


Ama hizkuntza amaren altsoan jaio zan, hori izan zuan lehen eskola, *amazig*<*amatigoa* bezala, Saharako Paradisuan, ez gure ipuinetariko batek dinon lez, “euskerak Paradisuan Jainkoak gure asabei” erakutzitako hizkuntza da”. Sinboloz esanda, baliagarria daiteke, Paradisua amak landutako *baratza*>*Pardes*<sup>(18)</sup> delako eta baratz bizigarriak izadiko jakinduria dakar laburbildu: lur aratza baratzu, ureztatu, arrotu, hazia erein, eguzkiaren txera hartu, aize gozoen ufada itxaron, landarak hasten ikusi, haren ondoan lurra jorratu, landarea loretzen, frutu ematen ikusi, uztaroan ekoiztu.

Gizonezkoak ez zuan hainbesteko eramanpenik. Nahiago zuan ehizean eta abereak etxekoten jarrai. Bakoitzak bere esparrua zaindu: ama beste makide eta umeekin eta aita orobat, bere kideekin. Hizkuntza ahozkatu eta argitua amarena zan, amaren eskola, *amazig* Saharako tuareg batzuk eta Kabiliako gendeak oraindiko egiten duten hizkuntza bezala. Saharako mortutik ihes eginiko beste gende batzuk ere, dogonak, adibidez, euskararen antzeko hizkera egiten omen dute. (Ikus argigarri 118 or.) Afrikako basoak misterio asko izkutatzen ditu oraindino.

Ama eskolak bere erregelak izango ditu, ikasgaiak eta inoak ere eta zer esanik ez, jatekoa, umetan ohiukatzen gendunez: “a, e, i, o, u: ama, meriendie biogu...”<sup>18</sup>

18 “Ama, meriendie biogu/ arratzatxua ta koipetsu/ ezpadeuko zu bilatu”. Urtebarriko kantu batek honela dino estudiante kankailuez, hots, amaren gidoiari sasieskola egin diote-eta: “estudianteeek sasirik sari/ asko jan ta gitxi ikasi”.





An jainkoaren sendia K.a. 2.200-ko silu baten Babilonian agertzen denez: Egal batean An eta bestean Enlil, haren ordezkaria lurrean. Enlil, akadiar jantziari, armatu agerten da, lehen Inannaren garaipen seinua zen leoia, bere aldamenear duela. An aita jainkoak Enki semea bidaltzen du ur gozoak antolatzerara. Sorbaldeetatik ibai bi darizkio: Eufrates eta Tigris. Utu, iduzkia An-en mezularia mendi tartetik itoitzen da, arkaitzak itaiaz ebaitzen dituela ta sorbaldeetik garurtika. Bere lagunak dira goitik uzu<sup>(s)</sup>/uxua eta beetikuddu.a<sup>(s)</sup>/idi<sup>(eus)</sup>, ugaltasunaren eta adoreaen sinboloak. Inanna, Anen alaba, hego loretuekin, frutu mordoa inguratzen du Utu nebaren berotasunera. Inanna eta Enlil-en artean mendia eta basoa dago, Sumer eta Akad-en arteko asarrearen lekuko. Ama mendeak amore egiten dio Aita aginteari. Politikak Ama Jainkoaren Teologia aldatzen du.

Amaren eskolak andereiñoaren jarraipena edo ordezkaritza izan zuan Sumerren eta Egipton. *Nittaba*>*Nissaba*<sup>19</sup>, jainkosa zan Sumerren eskolako letren maistra eta umeen elikaduraz ere arduratzen zena. “Taulatxoan *edupeko*”/*eduba*<sup>(s)</sup> deitzen zen eskolan, eztabaidetan ere *Nissaba*, jainkosa goersten zan<sup>20</sup>. *Renenet*, Egiptoko andereiñoa, (ikus 61 orrialdean) Ma.at, jakituriaren Ama beraren itxura hartzen du, matoa esku batean eta *ank* bestean eta *ureus* sugeinoa buruan duela, Erra jainkoaren etsai, Sugetzarra, salatzeke.

19 Ama Jainkoa *Nut* eta *Nitt+aba* haren alaba izenak ematen dio jainko maila gizatasunean ere. Eginkisuna eta arketipoak ez dira aldatzen, gehitzen baino. Eta, 21 orrialdean ikusi dugunez, kristau herriak ere “mintso atzeratua” zeukaten umeak Andre Mariaren Santutegietara eramaten zituzten, hala, adibidez, Idoibaltzagako Andre Mariagana, Errigoitin.

20 *El debate entre Enkimansum y Girine'isa*, IV, 25. Cf: *edu* “modelo” *eduki* “obtener, conseguir”>*educare*<sup>(l)</sup>>*educar*, *eduba*<sup>(s)</sup>>“*edupeko*”.



Sumerren eta Egipton neskei ere eskola eman ezeze, eurak ziran gero *Maat* Jainkosaren *matoa* esku-ratzen zutenak, maistra, andereiño izateko. *Ama* eskola ihestearren, patriarkalismoak emakumeei eskola ukatu izan die, baina jakinduria beti ere amaren ganoraz bidera urteten die bere seme-alabak duintasunez soin ta muin jantzi eta jaten ematera (Prov 9,5)

## II. BARADISU GALDUEN BATASUNA

Zorioneko Baradisuan umetzaro *inozoa*<sup>1</sup> (ikus 17 or.) igaro eta gure arbaso bikotearen arteko ezulertua edo okerren bat izan zelakoa-ta, ongi izatea galdu genduelako mitoa, ipuina edo alegia jarauntsi dugu. Jo, eta behingoan, Bibliako idazkariak eurak ere, errua emakumeari egozten hasi ziran. Sorrerako zorion orokorra eta batzuren erruaren ordaineko guztion zoritxarra dino Baradisu galduen kondairak. Ausaz, bikote askoren eskarmenduaren sinboloa ere izan daiteke...

Jatorrizko jakindurietan ba da, Adan eta Ebarena aipatu orduko, euskerak oroitzen duena: *zerua eta lurra aspertu omen zeuden eta itxasoa egin zuten*<sup>2</sup> Nor ziren zerua eta lurra, orduan? Izadiak berak ere gizarteko kalaka sinboloz deskribatzen du. Asperkundera aurretik, ostera, dena zan onginahia, poza, maitasuna. Itxasoa gertu izan dugu euskaldunok eta kinka larrietan negarra eta beste askotan lasapidea eta onura ere izan da.

Inosen inosentzia galtzeak ere jakinduria berriak sortaraz ditzake. Amaren gonapean egoteaz aspertzen denak atek zaba-

1 *Inoso>inoxiiu*<sup>(1)</sup>>*inosente* dator eta benetan latino-romanikoek *inosotzat* euki izan gaituzte, geurea zen jatorria eurekandikoa zela sinistaraziz.

2 GARATE, G. *Atsotitzak, refranes, proverbes, proverbial*, o, c., 14020.



lik ditu, bakoitzak bere bidea egiteko. Krisi aldian bederen, hala ere, amarenean bertan gozo egiten dute, umetzaroa joana izanarren. Amaren etxea ondatzen denean, umeak alde egin beharra ere ezagutu dugu igaro gudatean, edo eta Ameriketara lan bila joan beharrez<sup>3</sup>. Amaren etxea, "amaren etxea", nahiz eta ama beste etxe bateko alaba izan, *andere* berriak *santera* bailitzan, erritualki etxe berriko ilen eta bizien ardura hartzen duelako<sup>3</sup>. Aita agintean, berriz, "aitaren etxea" entzutera behartuko edo aspertuko gaituzte, ama duintasunaren ezjakinean edo ezaxolan.

Euskaldunak, ohargabeen bada ere, gaurdaino gorde izan du Ama Jainkoaren yorana, Ambotoko Mari, edo Jonagorri, etab. bezalako deieretan ikusten denez. Eta ez gara izan honetan bakar-rak. Ama Jainkoaren arrastoak gizartearen aurtzaroa osatzen lagunduko digu, bada umeak non, ama han, "maitasuna non, han Jainkoa" esaten denean bezalako egia bai-da.

### 2.1. Sahara mortuko Baradisu galdua.

Honetaz ez dugu idazkirik, baina mitografia garbi diren 15.000 marraski ain Baradisuren lekuko dira mendi horren murruetan eta euren zahartzaroa K.a. 6.000 urtekoak dira<sup>5</sup>. (Ikus 25 or.) Han ikus daitezke klimaren jasanaren gora-beherak eta abereen mugidak eta giza bizitzako lehen pausoak. Tasili n'Ajer mendartea da, Algeriako Egoan. Harrigarriok azaltzeko, hidazkizun argiak falta direla<sup>5</sup>. Egitarrek eguzkia *osten*>*West* den alderdi horri *Amenti*<sup>6</sup> deitzen ziotela, eta hil ostean hara itzultzeko amesa gordetzen zutela, haren gorantzian *Sakara* deitu ziotela euren lehen piramideari K.a. 3050 urtean.

Saharako kulturak gero Egipton eta Sumerren, barriren barri,

3 Amaren etxetik alde egin beharra eta "amaren beharra" JULES MOULIER, *Ama* izeneko olerkia sentigarriak brodatzen du halako zauria bihotzean.

4 Ikus 120 orrialdean: *Misiones de la Etxekoandre*. (J.M. BARANDIARÁN, *Mitología vasca*, Ed. Txertoa (1979), pag. 70) Cf: aS arketipoak, erritualak ematen duen duintasun ordezkaria eta, beraz *andera*>*santera* egiten du, hitzaren jokutan eta errituale berak *sorore*<sup>(l)</sup>>*serora* bihurtzen.

5 "Benetan -Platonen gardiz- marrazkia labur da adierazpenetan, hitza den zehatzaz". (*Kratylo*, 430-e) Marraskiok, hala ere, esanguratsuak dira.

6 *Amenti*<sup>(k)</sup>>*mendi* dator euskaraz, beti ere jainkoen oinpekotzat, santuegitzat, ermiten eta kurutzen tokitzat edukiak.



**Pachamama Amalur?** *Adapa*, Anu jainkoaren *abata* edo morroia izan zan Sumerren. *Adapa/abata* itzultzen da, >*abate*>*abade*>*apaiz* izateraino. Egiptoko Enperio Zaharrean, *Ptah*<sup>(k)</sup> izeneko jainkoa goratua izan zan Menfisko abadeen eskolan. Bera omen zan jainko guztien ordezkari sorkuntza berrian, *ta tenen*<sup>(k)</sup> aitortzeraino. Zer da *ta tenen/atta denen* baino euskeraz? *Ptah* hau magia handikoa zan. Amen sorkuntza erraietatikoa zela? Berak bihotzetik ahorakoa egingo. Horra “*bihotz, abotz* gero >*vox*<sup>(v)</sup>>*voz* datorrena. Holako magiaz, bizia ematen zien bustingileek eginiko irudiei ere, arnasa ufatuz. Kontu baina, gauza bat da *amatu* eta bestea *amakatu*>*amagar* datorrena. (Ikus argiago 58 or.) *Ptah* izenak>*pasha*<sup>(ur)</sup> dakar Turkiako buruzagiaren deitura. *Pachamama* izena, beraz, beranduko forma da eta *Pacha+Mama* izen bikoitzez konpondua. Ez du balio *Amalur/Lurrama* aldaketa egiteko, gure bihotz-belarrietan Ama Jainkoari deitzeko, *Maite*>*Maidi*>*Maya, Mari, Mairi* izenak bizi diraiño.

ez nondik eta ez handik agertu ziren jakintzaren aurrelari izan ziran. Saharako *parajea*<*ibar+etxea* mortuak ondatu zuan. *Bereberrak* deitzen ziran hango biztanleak *ibar berekoak* izanik, eta *amazig*<*amatikoa* zan euren hizkuntza gaurdaino, Tin Hinan ama zenaren izena ere gogotan dutela. Halako akorduei esker, ez dute jatorriaren ama leinua galdu, VIII gizalditik hona, aitatiar gendeko diren arabiarren menpe bizi diren amaren seme-alabek.

Ba daiteke grekoentzat *barbaro* izatea, haien *berbaroa* ulertzen ez zutelako. Entzun nahi ez duenak ez du nahi ulertzerik. Ez zuten ulertzen, baina Platonek argiro aitortzen du Sokraten ahotik (*Kratylo*, 437-d.), hitzaren benetako edukina *barbaroei* galde-tu behar zitzaie, eurekandikoa bai-zan hizkuntzaren jatorria<sup>7</sup>.

Sahara *baratze*>*Pardes*<sup>(h)</sup>>*Baradisu* galduko jendeek ez dute egiten holako galderarik. Euren amak ondo zekian. Nork egiten dio amari halako galderarik? Amaren hizkuntza galazoz gero, haren aurkako *barbaro* nastua asmatzen dutenei gertatzen zaizkie halako ezbaiak, hots, Amagan fedea galdu duten gizagaixoei.

7 Grekar klasikoa jatorriz mizenikoagandik zetorren geihengoa eta hauze zan eztabaidako arazoa: Hitzaren edukina Jainkoek emana al da, ala herriak bere kabuz aukeratua? Hizketarien artean ez zegoen emaztekirik igar-igarrian. Baina, Sokraten argibideetan, Platonek barbaroen aholkuan ipinten du arazoa.



Notre Dame-ko ataria Parisen: Baradisuan Evak sagarrari oska egiten dio, baina harrigarria, Sugeak zer dela eta du andre arpegia? Ezaguna denez *Su.ap* >sube dator bere ar arketipo eta guzti eta, azken baten, andrea dela Subeari burua zapaldu behar diona? (Has. 3,15c) Ez jakina, ala gauzak nastatu gurea gizonaren eta emakumearen arteko harremanetan edo eta errua emakumeari egozteko amarrua eskribarien aldetik.

Gainera, eurak itxasoaren beste aldean bizi ziran eguzkiaren *Oste*>*Oeste* aldera baztertuak, eta Afrikatik zetorren Egoaizeak harrotu bai, baino putzez betetzen zituan grekoak: haien jakinduria kopiatu bai, baina jatorri markak ezabatu nahiez.

## 2.2. Dilmun, Sortzaldeko Baradisua

Sumerreko lehen jendatzea *Obeid* edo *Ubaid* aldikoa izan zan, Ur eta Eridu urietatik gertu. Ohar *Ubaid/Ubide* izena, *Eufrates* <*Ibarrate* eta *Tigris* <*Ategaray* izan zirelako hasieratik urien arteko ibai bideak. Sumerreko *Enki eta Ninhursag* idaztiak *Dilmun* baradisuko mitoa kontatzen digute. Tokia Persiar Golko haretako ugartean gertatzen da. Une aratz, baratz, disditsu, eta atsegina benetan, *Utu iduzkia* duela giro eta argi “an herio txoriak ez du herio kanturik jotzen, leoiak ez erasoten, otsoak ez du bildotza jaten, ez da ezagutzen ume jale den basa txakurra, ezezaguna da gari garaun jalea, ezezaguna alarguna [...] Dilmuko atso zaharrak ez dino “andra zaharra naiz”, gizon zaharrak ez dino “gizon zaharra naiz”<sup>8</sup>.

*Enki eta Ninhursag*, senar emazte dira, ur gozo eta gazien ordezkari dira, batabestearen urgazle. Ohar *ur gazi/urgazi* eta berdin *Nin+Ursah* “andre Ursag” emaztearen izena. Hitzari an-

8 *Enki and Ninhursag: a Paradise Myth*, 31-65, ANET-37-41.



tza emateko *ur+utxa>urruxa*<sup>9</sup> hitzarekin gonbaratzea dugu. *Ur utxa/ur saka*, emakumearen ur bizigarriak adierazten, *urgazi* formak, bestalde “lagundu” ere esan nahi du<sup>10</sup>. Eufrates eta Tigris ibaiak, itxas aurreko nasan argi erakusten dute *ur geza* eta *ur gazi* diren uinen arteko aldea. *En+ki* An jainkoak *ki*<sup>(s)</sup> “lurrera” ur gozoak antolatze-  
ra bialdu jainko-ordezkarria zan (Ikus 27 or.) *Dilmun* tokizena *Atela+muna* argitu dezakegu, Baradisuko “sarrera” bailitzan eta *Euftrates* bera *Ibarrate* den heinean.

*Baradisua* Biblian “gizakiak landu beharreko baratza” zan. (Has. 2, 15) *Aratz>baratz* dator *Ba baitako* eta *baikorraren* arketipoaz osatua. *Batek* landuz, lurra *baratzetu* denean, *Baratzetu>Baradisua>Paradeisos*<sup>(g)</sup> da eta *Pardes* hebraieraz.

Enki eta Ninhursag bikoteak *Utú, iduzkiari otoi* egiten zion Dilmu Baradisuan: “*Indazu, otoi, Utú, beti otan zarena*”[...] “*Otoi, Utú, ud gazia ud gotto gertatu dadin*”<sup>12</sup>. (Ikus *Utú* ohiuskoak 20 or.)

Ninhursagek alaba bi izan zituan Enkigandik eta idazlearen gogamenean Sugearen muturra agertzen da: Enki bere alaba biekin etzaten da, eta Ninhursag emaztearen asarreak gorituz eta mendekuz zortzi gaisotasun sortarazi zizkion Enkiri. Hala ere, Enlil beste jainko ordez-  
kari armatuaren aholkuz, biraua kentzen dio, gaitzen emendiorako beste zortzi belarki osakai asmatuz<sup>13</sup>.

*Enki eta Ninhursag* mitoaan dager lehen genero indarkeria, nahiko gordin kontatua. Akadiarrak, israeldarrak bezala, semitarrak ziran jatorriz eta kulturaz, eta *Genesis/Hasier*a liburua idatzi aurretik, ba zuten eredurik. Eta eredia nolako, eredutua halakotsu.

9 Latinak berak *urruxa* forma *uxor* egiten du, gaztelaniak *orza*, urtu-  
kiak gordetzeko bustingia.

10 Gén. 2:18-24. A. "Ez da egoki gizona bakarrik egotea; laguntza ego-  
kia emango diot". Nork esan dezake, beraz, euskerak ez duela exegesirako balio-  
rik? "Ze idazle mota da sumerera ez dakiana? Nola aldadu dezake, sumerera jakin  
gabe? (*Proverbios de la Colección sumeria* II, 47-49)

11 *Ur gazi* “gatzà dutenak”, *ur geza* “gatzik ez dutenak”.

12 Ohar euskerak nola errepikatzen duen hizkunez otoitzean *Utú>otói*  
arketipo baliagarria, erritoaren zehatza ager dadin.

13 Enki eta Ninhursag mitoa Sumerreko jainkoen artean delarik ere, aka-  
diar eskribariaren adarra agertzen da, ama mendetik aita agintera unean.



### 2.3. Eden, Bibliako Baradisua

Zeru-lurrrak egin berri zirela, “lurra nastua eta iluna zan” (Has 1,2), *kaos*<sup>(9)</sup> <“*kau*>*gau uts*, ama eskolako hitzak grekoari ohar egiten dionez. Hurrengo egunean Jainkoak sortu omen zuan argia eta azkenik gizakia bere irudira *sortu*<sup>7</sup> zuan<sup>14</sup>.

Genesis, Hasierako liburua, Sortzalde Sartaldearen arteko kulturen kutsukoa da eta alde bietako ustekizunak onartzen ditu. Ordurako aita aginteko usteak zirela nagusi: “Jainkoak esan zuan: Egin dezagun gizona. Eta bere irudiko egin zuan, gizon eta emakume kreatu zituan” (Has 1,27)<sup>15</sup>. Beste kondaira narrasago batek (Has 2,7), bustingilearen irudiak aipatzen ditu, Jainkoak harei arnasa ufatzea baino ez zeukan. Eba Adanen saietzetik sortua izan omen zan, haren lankide izan zedin (Has 2,18) eta *virago*<sup>(1)</sup> deitua, amaren alaba *amako*, edo *Mut* jainkosaren semea, *mutiko* deitzen dugun bezala, Adan bailitzan gizaki doia eta Eba, ezaina<sup>16</sup>. Amatar sorkuntza baztertuez gero, emaztea argiago gelditzen da gizonaren mirabe eta orduan, Sugearen zirika zela-eta, Baradisua galpenaren errudun ere jo zeiteken.

Emakumea dena ikusi eta ikutu gurea omen zan, kuxidadearen menpeko eta hagatik Subearen aholkura intsegitu. Jainkoen jakinduria nahi ote zuan? Ama Jainko ohiaren eskola matoa eskuratatu agian, Maaten eskubideen aiduru?

Jakindurian *Subea* omen zan maisu, izan ere, *sube*>*sofu* dator euskeratik grekora eta, biurrituz, *sube*>*ophys*. Mitoaren sakonean, Sumerren, edo *Yakin* herrian, *Su.ap*<sup>(s)</sup>/*Sube* zan eta *Enki jakinak* bere asaba zen *Su.ap* subetzarra, lotan zegoela eraso eta kalitu egin zuan, aitaren eskubidez jabetzarren. (*Enuma elish*, I, 65 ss) Harrezkero, *jabetu*>*sapere*<sup>(1)</sup>>*saber* dator. Eta euskara bezalako mito bizia den hizkuntzak jakin zezaken halakorik.

*Sube* horren zirikaz, Ebak sagarra oskatu omen zuan eta jatera

14 Euskarak *sortu* dino<*soritu*>*sortir*<sup>(ca)</sup> jaiotzetik amak ematen digun halako *sortean*>*suerte*. Euskararentzat *sortzailea* ama zan, Ama Jainkoa, *antza* eta arpegikera amaren *anzeak* ematen bai-digu.

15 Nonbait Jainkoak hitza esan behar zuan sortzeko, Egipton Menfisko eskolako uste duenez, (*Teología menfita de la creación*) ANET, 4-5, 53ss), hitzaren magiak ikusiko dugunez, *ino/in*, edo *esan/izan* esaten dugunean bezala.

eman Adani. Eta hori dela-ta, Jainkoak, asarre biziz, zigor itzela leporatu zion lehen bikoteari: (Gen 3:19) Euren bekokiko izerdiaz landu beharko zuten soroa bizitza guztian, zer jana izan zezaten. Haraz gero, lana *beharra* eta hizkuntza askotan aditz bihurtu da *bear>bearko>work*<sup>(7)</sup>, *behartu>deber*<sup>18</sup>. Zigor honetan emakumea salatzen du liburu santuak. Baina noren trikimailuz? (Ikus 31 or.)

Behin hitzaren magiaz amatasuna sorkuntzatik baztertu zuteenez, emakumea zorigaitzaren errudun salatu zezaketen, aginte aukititik erazteko eta, batez ere, lurrean Ama Jainkoa ordezkatzeko, ez duin salatzeke. Beraz emakumeari baztergo bikoitza eta Jainkoaren izenean: agintetik baztertua, santutegitik aztandua.

#### 2.4. *Esperide edo Sefarad*

*Sefarad* izena Abadias profetaren igarkizunetan agertzen da (Ab 20) Israel berriak “Kanaandik *Sereptaraino* okupu izango du lurra eta *Sefaraten* dagozan Jerusalendiko atzerriratuak Negebera aldatuko dira”. Juduek *Shefard* edo *Sefarad* deitzen zioten Iberia aldeko euren koloniarri eta han *sefartarren* deitu kultura landu zuten. Sartzalde honeri grekoek *Hesperides* deitu zioten, erromatarrek, oker entzunera, *Vesperies*. Toki *baratzetua* zenez, *Baradisu* fama zuan eta hortik *Barazate* izena ere, *Pardes* ahozkatu zitekena edo *Sefard* deitzeraino itzulikatuz, berriztatu. Nahiko ez bada, *She+Farad/Esperade* ere ahozkatu daiteke, eta argiago, *Shefarad* dena *Bardetxe* itzuli arketipoz arketipo<sup>19</sup>.

>Jainkoaren antza/*Inkoren ikonoa* eta izena aldatua, hots, *Inko* bera *Jaun Inko* bihurtua. *Inko* irudia, grekoz *ikono* biurritua da, ez *Inko* bizia, haren irudi utsa baino.

17 *Subea* abere denetan zoliena zela dino Biblian (Has 3) eta horren famaz, grekoek *subia>sofia*<sup>(8)</sup> deitzen dute “jakituria” esateko. Ohar *subi/zubi* hizkunea: subiak zubi eginez, aurrera bidea asmatzen du narraz, nahiz zugaitzera igonez.

18 Euskerak *egin behar dot>ein bort* muskiltzen du iraduaren iraduz eta ingelesek gure marinelei entzunera, *beharko>work* asmatu zuten, bulegoan bertan. Soldata baten ordetan egiten denari batek *lana* deritso eta, etxeko soroetatik ate, herrian edo atzerrian egiten dena adierazten du. Horrela sortu ziran Atlantiar Europan hainbeste *landa*, >*land*<sup>(9)</sup> tokizenak lekuko.

19 Gaur egunean, halako jokera *matxistak*, *terrorista* deitzen diote halako jipoituari, haren egitasmoak betiko ixilazteko. Nortzu diren matxistak? *Amatu* ezinian, *amakatu* egiten duen jendea, hitza jaten duten politikariak, adibidez.

Soloa aratz lantzen denean, *baratxe* izatera eltzen da eta *pharas* da arameeraz, *feraz* gaztelaniaz. Baratz lana Neolitos aldian hasten da, amaren eskola loretzen denean, *Bardetxe*>*Pardes* deitu uneko Baradisuan. Tokizenak, izen arruntak eta izen lagunak adoz datoz eta ipuinak edo mitoak dinonez, euskara egiten zan Baradisuan. Ipuina puin, baina ama eskola ahotzekin ematen zen eskola, zihur.

### 2.5 Eba edo Pandoraren jakinmina?

Emakumearen jakinmina susmogarria egiten zitzaion indarrera apostatzen zuen gizonezkoari. Edozertan zeinek gehiagoka bai, baina emaztekiarena dena arraz garbitu nahia, dena arakatu eta aztertu gurea, kia. Ezin ziteken hori alde onetik etorri.

Amaren eskola etxeko eskola *bera* zan, hots, benetako eskola. Latinak ere milaka urte geroago *vera* errepikatzen zuan. Ama eskolak ahalik eta ulerbide argiena bilatzen zuan etxekoentzat, beti ere etxeko jainkoekin harreman onean. Hala ere, ez zan beti izaten bide leuna, batez ere, emakumeen eta gizonezkoen arteko eritsiak banandu eta mindu egiten zirenean.

Gizonezkoen bilera bat ere ba zan auzoan eta hara jotzen zuten emaztearekin aspertu zirenak, auzoa konpontzeko ze asmo, ze apostu, zer esan eta nork agindu... Auzoari begiratzen zien, etxeko arazo-  
ei baino gehiago, pasadenborari, umeen eziketari baino eta nonzeberri jainko berrien indarra *aipatzen* zen, *eipon*<sup>(9)</sup> eta *ipoin* jakinduria horrekin. Apaizen eskola, dotrinaleku bihurtzen zan, gizonezkoek euren jainko indartsuari jaso zioten temploa eta geroago baten *Eskola*<sup>21</sup> publikoa izendatu zutenaren antzekoa.

20 Hizkirimiria dirudi, baina, lau arketipodun izenak adar asko ditu, bat tokiz aldatuez gero. izen berria sortzeko aukera ematen du: edukin berdina, izen ezberdina. Hitzaren asmamenean ikustea baino ez dago, *Hesperides/Vesperies* latina grekoari gaina hartzen, jatorrizko jabe eta aitabitxiak eurak bailiran.

21 *Sjole* deitzen zioten grekoek *schola* urren erromatarrek. Baina ez zan ama eskolakoa, ama eskola sukaldean edo eskaratzean izaten zelako, eta batez ere, baratzean bertan. Aldi haretan baserriak ba zeukan aldamenean txaltxu jaio berriak bezatu edo etxekotzeko *eskuola* deitu abaroa. Bada, *bera*. Ez zuten txar-to asmatu izena grekoek eta erromatarrek, beti ere nonzeberri.



Eskola horrek asmatu-riko ipuina da *Pandoraren kutxa* ipuina, emazteki horren jakinmina itxurgatzeko asmatua. Jainkoek erregalatu omen zioten Pandorari kutxa bat, baina aren tapa ez jasotzeko aginduaz. Pandorak ezin izan zuan luzaro jasan apostua. Jakinminak eraginda, ideki egin zuan eta Baradisuko zoritxarra gertatu. Orain ba zuten gizonezkoak emakumea zertan salatu, herriginzako arduetatik astandu ahal izateko.

Ipuin beraren aldaska batek zera dino: Efesto edo Path deituriko jainko bustingileak, gizakiak engainatzeko sortu zuela emakumea eta *eritxi* hau benetako *heresi*<sup>(9)</sup> gertatu zan grekoen teologi mailan<sup>22</sup>. Norena izan zan errua? Jainkoa ete zan errudun? Gizonezkoak engainatzeko sortu al zuan. Orduan eta argiago gelditzen da, norbaitu haren zerupeko tronpalekuan elkartzen zirena.

Behin, herria armetan berotu zebilen baten, gizonezkoen eskolak emakumeari eskubideak murriztu eta agintetik erastea erabagi zuten, jainkoen erabakia zela-ta. Erabagia gizonen eskolako hitz asmatu bereziekin bultzatu eta bermatzen zuten. Yada ez zedila deitu Inko, aurrizkiz Jaun tituloa ezarri barik, *Jaun Inko* izan zedin eta, Jainkoarren, Amarik aitatu ere ez<sup>23</sup>, haren irudia, *Inko* barik, *ikono* utsa zela eta *ikonoa* Jainko gei ez zela-ta. Erabagi egin zuten bai.

## 2.6. Atlantida edo Sartaldeko Baradisua

Saharako Baradisu galdutik, mortutik ihes bidean, jendea ahienatu egin zan, batzuk eguzkia asten den *Aste>Ast*<sup>(1)</sup> alderantz, besteak eguzkia *ostuten* den *Oste>West*<sup>(1)</sup> alderantz eta harakoak Ego eta *Ipar>Far*<sup>(1)</sup> alderan, denak ama eskola hizkuntza egiten zutela<sup>24</sup>. Bidean mendiak, ibaiak, itxasoak aurkitu zituzten, baina eguzkia argi eta gidari, hots, *Utú>ide* zutela. Ifar aldean bizi garenok *Abarrikatik>Afrikatik* gaurdaino datozen etorkinen lekuko gara.

22 Norbaiten *eritxia>heresi* gertatzen da, gizonen eskolako pentsamoldearen aurka berri denean. Apaizgoak ere gogotik erabaki zuan, dela Menfisko eskolan Egipton, dela Atenako Agoran.

23 Hemen ipuin antzean esana Babilonian gertatu zan, ikusiko dugunez.

24 Ama eskolaren ezjakitunek uste dabe *Ast*, *West*, *Far* eta *Ego* sanskrietatik datozela eta irain egiten diote ama eskolari eta ez dakigu ohargabeen ala jakinen gainean iraintzen duten. Bardintsu euskara ez dakitenek.



*Gory Ahaggar*, Saharako *ekur>gory* santutegietakoa Tassili N'Ajer aldean, *ama* eskola eta erromes jokera sortu zen tokian. Toki *agiria* benetan *ager/agiri*, batez ere goizeko eta arratzeko eguzkiak ilinti bizi bihurtzen zituanean eta jainkoe-kiko otoitz giroa biztu. Ama eskolak, amatasuna bera ere den izadiko misterioa bizi zuan goizetik gauera...

Oste aldera jo zutenak *Atlas<Atalas*<sup>25</sup> mendatea topau zuten bidean. Haren egora bizi dira amazig asko. Aurrera ekin zutenak itxasoko *marraz* topo egin zuten *Marrako* deitu zioten tokiari eta marrari jarraituz, *tarte* nabaria aurkitu zuten, *Tartesos* alde-ra zijoena. Tarte haretan, *Ataina+gara>Tanger* parean Anteo erraldoia omen zegoen zaindari. Erkolek, Atenearen izenean erronka bota omen zion eta burrukan ekin zioten gogotik. Anteok irabazten omen zuan, oina Gea Lur Amari lotuta zeukan artean eta Erkulek ostera, Anteo lurretik gora jasotzen zuenean, galazten<sup>26</sup>.

## 2.7. Saharapeko bantuen Baradisua

Bantuen mitoak dinonez, *Ntu* jainkoak hitzaren bidez mundua kreatu zuela dinosku. Jainko honen izenak *Antu* Ama gogarazten digu alde batetik eta bestetik, *esan/izan, iño/in*<sup>27</sup>, hitzaren bidez, Menfisko teologia sartzen (Ikus 73 or.) amatasun bidea saieztearren. Jainko izenak berak bai, Ama *Nut/Antu* gordetzen du belarri-rako, baina amatasuna ukatzen gogoangarrirako. Kontraesanok nai-

25 *Ate lasa horri>Atlas* deitzen die eta *Atela+andi>Atlantida* grekoek euren mitoan, (mendietan hiru milako goradunak ainbat dira) *Atlantida* Mitoa izatez egitiarra da, baina grekoek euren uztarako biltzen dute.

26 Anteo eta Erkolen arteko burruka, ama mendearen eta aita agintearen artekoa da. Jatorrizko Ama, grekoen Gea/Gaia barik, *Nut/Antu* "zeru" zan. (Ikus 11 or.)

27 Euskarak *ino/in* adizkera biak gordetzen ditu bizkaieran, besteak bokal arteko *n* jateko jokeraz, *dino>dio* egiten dute, *noriko* formarekin tronpatuz.



**Oroitzapenaren lotura.** Loturarik ezean, oroitzak ihes egiten dute, udazkenean aizeak ufatu ostroak bezala. Irudimena da oroigarrien lotura. Irudien lotura gabe, ezina da norbait bera jaio zeneko uneaz gogoratzea. Geroagoko, ameseta baten bidez ausaz, bai. Zuk burua arroka biren erdian lotuta daukazula ames egin duzu. Nahi ta nahi ez, handik burua atera behar zenuen, bizi ahal izateko. Une baten bultzaka ekin zenion eta doi-doi ateratzea lortu ahal izan zendun. Kanpoan argi bizia ikusi zendun eta arnasa hartzean, hodeietan bezala, atseginez sentitzen zinan aidean. Zemozkor aldia haxe. Orduan konturatuko zinan, harako amesaz zuk zeure garaunetan gordetzen zendun gordailua ideki zela eta, ezustean, zeure ohargabea zegoen jaiotzako estualditxoaren berri ematen zizula. Gero agur hodeiak, haien gainean ibilteko amesak.

hiko argi erakusten digu Menfisko egitiar kulturak aldi batean distira zabalaz eze, ama mendearen aurkako misioa izan zuela inguruan.

Egipton ez bezala, Israelgo Baradisuan emakumea izan omen zan gero zorigaitzaren errudun (Ikus 31 or.) Sugearen aholkuz, eragotzitako frutua jan zuelako (Gen 3:17) eta hagaitik galdu omen zuten Baradisuko zoriona. Haraz gero, amatasuna ez zeiteken gozatsua izan, neketsua baino eta, beraz, jainko sorkuntza adierazteko ez gei. Idazki zaharragoan, hala ere, Jainkoen duineko ekintza jotzen da amatasuna<sup>28</sup> Sumerren. Akadioen garaian, Uruk uriko Gilgames eroiak mezpresatu egiten ditu Inanna/Ishtar maite jainkosaren balaguak, bere maitaleak hilezko egiteko ez gei ematen zuelako<sup>29</sup>.

28 "Eskontzea gizakien arazoa da, baina umedun izatea jainkoarena" (*Proverbios de la colección sumeria, I, 160, DB, n° 26*. Cf. Sumeriar hizkuntza jainkoekiko errito hizkuntza zan, hots, otoitzari benetako eragina ematen ziona, ausaz ama hizkuntza zelako eta handik zuelako berezko eragina. An jainkoaren alaba Inannak aitaren *me* zehatzgarriak ostu zizkion Enki nebari, Ur urikoen onuran, eta hagatik, sumerierak, herri mailan hil eta gero ere, bi mila urtetan iraun zuan Sortalde Urbilean, Indo alderaino, idazki kuneiformearekin batera. Urrunera jo barik, hitzaren eragina dela-ta, Kortazubin entzuna dut, euskerazko agurmari batek, mila erderazkoak baino balio handiagoa daukala, abertzale ez zen baserritar arrunt batek esanda. Baserritar horrek Barrenetxea amak esana errepikatzen zuan.

29 *Gilgamés, V, 1 ss.*





Bantu jendea Sahara mortuko beheko mugan bizi da antxinatik. Mortuak berak behartu, beheko ibarretara jozuten, amaren eskolak erakutsi zien jakinduriaren jabe zirela. Hizkuntza bereko ziran, bizitzari aurre egiteko lanabesak eta teknika berberak zituzten ...

Ahoz-ahozko mitoetatik apaizen idazkietara pasatu zan gero emaztekien aurkako maizeatzea eta aita aginteko erritoaren zaindariak zeruko AMA idea ere barreiatu egin zuten. Bantuek ezeze, euskaldunek ere, Aita Jainkoa gurtzera behartuak izan gara, aitatiar misiolarien eraginez<sup>30</sup>. Inotean bai, badirau *Inu Inkoren* izena, (Ikus 17 or) antxinatik Jaun *Inko*>*Jainko* tituludun egina. Mendietan ere bai, Mari Amboto edo Jonagorri bezelako deieraz, baina gure erritoetako liturgian ostaz entzuten da AMA ize-nik<sup>31</sup>, Ama Birginiari deitzeko-edo izan ezik.

Bantuen hizkuntzak ama eskolakoak zirela euren herrietako toponimiatik ere atera daiteke *utu* familia “*uduski* semeak”, adierazteko, *twa* “*uduski* seme-pekoak”, *tutsi* “*uduzki* etxekotuak”, *Togo* herrialdea “*uduski* seme/*uduski tokikoak*”, edo *dogoinak*.

Hizkuntzako arketipoen bidea egin ezik, nekez argitu daiteke izenon edukina edo dogonen hizkuntza euskeratik aztertu eta ulertu jatorrizko ama eskola kontuan izan ezik. (Ikus 118).

30 Bittor Kapanagari Gabriel Arestiren “Aitaren etxea defendatuko dut” aita-tu zioten behin eta berak erantzun: “Amaren sua berbiztuko dut” [...] Hau gu-reagoa da. Jendeak ez dau ulertu, baina horra joan behar dogu, euskeratik, gure pentzakeratik aztertzeo...” (GONZAL MENDIBIL, *Erro eta gara*, 33, (2014)

31 Mezako Kanonean, Bilboko Gotzaitegian, ofizial ez diren papere-tan aipatzen da *Aita-Ama Jainkoa*, seme alaba askoren pozerako, baina jato-rrizko txandan *Ama-Aita* agertzea kosta egingo da oraindino, bada, ezjakina jakingurazea bestekoa da. Aitatiarroi “covada” egitea bakarrik falta zaie, ama-katzea zer den jakiteko eta aitaren abizena gailen legeztatzea, amarena barik.

## 2.8. Amatar amazigeak

Amazigeak edo bereberrak ez dira asko urrundu Sahara izan zan baratza ederretik eta gaurdaino amak erakutsitako hizkuntza egiten dute, arabiarren agintepe zakarrean bizi direlarik ere. Ez dira bihotez mahometar, Tanit edo Tin Hinan euren ama lehena noiz berbitzu begira bizi dira, Argelen eta Marrakon bederen.

*Amazig* euren hizkuntzari deritzaio, *amazig* <*amatigo* datoz elkarren sustraitik bezala, amaren ganora den "narotasuna" adierazten edo sinboloz Zeru Ama den "oskarbia" adierazten, bai eta umeen pupuak *amatigatzen* > *mitigar*. *Amazigeak* ez dute oraindino euren jatorrizko kultura aztertzeke bakerik nahiko izan ez dutelako askatasunik islamaren menpean, Kanarietako guentxeak bezala, eta iberiarrekin<sup>32</sup> eta beste gendeokin, barne jakinduriari ohar eginik, ba dute zer azertu<sup>33</sup>.

Poligenistak arraza bakoitzari hizkuntza berezia egozten diote, baina biologiak erakusten digunez, ez dago arraza berezirik, denok gara *adn* berekoak, eta azaleko koloreak ez digute burubidea aldatzen edo eragozten. Ama errai berdinak gatzatu ginduzten eta *ama eskola* berberak hizketan erakutsi eta, bide batez, izadiko irakurketa errezena egiten. Amak ez digu iruzurrik egiten.

Hizkuntza guztiak amaren kutsua zeukaten, ez ziran ezberdinak, antzerakoak baizik, aldea familiako harremanetan zegoan, gizarteko *harremonak* ziraino, baina grekoek, gizartetik at, hodeietako *harmoniara* jaso zutenean, iruzur galanta egin ziguten<sup>34</sup>.

32 Iberiar hizkuntalariak euskararen sustraiari antziz begiratzen diete, ea nolatan berbitzu hitz ahozkatuan antzinako grafia mutuak, eta eztaikoan, euskara berari ere laguntzen diote bere sustraiak finkatzen eta hitza osatzen.

33 Unamunok euskaldunez eta bereziki baserritarraz esana errepika genezakie: "el día en que pierda la timidez, cobre entera conciencia de sí y aprenda a hablar en un idioma de cultura, os aseguro que tendréis que oírle, sobre todo, si descubre su hondo sentimiento de la vida: su religión propia". (UNAMUNO, *Alma vasca* (1902) o.c. III, 1263)

34 *Arremona* > *harmonia* dator grekoko ahotan, *h-* gutxi gora-behera, baina *amatu* amatzen ez dakianak *amakatu* egiten du, ezinak *magiaz* ezta nahi izaten dituela. Grekar klasikoen *magia* ideia eta asmo goitarretan oinarritzea izan zan, hots, gizarteko edo haragiaren kutsutik at, jainkozko ideiekin. Eurentzak ez zegoen lurrean *Logos/logu lekukorik*, baina ama eskolarentzat, *lekua* geu bizi >

jartzen dio amazig kultura eta hizkuntzari, ez dute, beraz, ama eskolarik. Maiz euren dantzak eta musika eragotziak izaten dira, Alaren begietan itxusiak direla-ta". Horrela, armadunen eraso, mezkitetako erdal sermoien ukapanaz bermatzen da *amazig Amazigeen* ama-mendeak arabiarren aita-agintearekin topo egin zuan VII gizaldian eta, haraz gero, ostaz bizi dira, Egiptoko koptoak bezala. Guk *moroak* deitzen diegu, azaleko belzturagaitik, baina ez dira bihotzez musulmeak. Hoi en aginteak debekua herriaren zapalketa. Geurea jasan dugunok dakigu...

Halako zerbait gertatu zaie Kanarietako guentxei, ez musulmen eskutik, Espaniako katolizismoaren politikagaitik baizik. Ama Jainkoa erliginoko ziran eta halako eraspenna diote jatorriz sahuriar irudiko den Kandelariako Ama Birginari. Hauze izan da eliza katolikuak ama eskolako herriei opa izan dien politika: Ama jainkoaz gabetu eta ordezeko Ama Birginari lotu<sup>35</sup>.

### 2.9. Ama eskolaren amaia?

Baradisu mitoen asieran bada amatar den zerbait gozo eta haren galpenaz aitatiar den lege gogorren bat, eta beraz, *ama* ordezeko jaungoikoari *aita* deitzeko agindu edo ohitura. Politika aldatu zan. Gudan zebiltzen herriek jainkoagino armatu zituzten, baina emakumeek ez zituzten semeak gudurako hesten. Ama Jainkoak ez zuan gudarako balio, beraz ez eta herria gidatzeko. Amak bizitzarako hesten zituan seme-alabak, eta gudak heriotza baino ez zuan ondorio. Baradisuko jakintsua Adan zan. (Has.2,20) Han dager, izan ere, zeruko eta lurreko aberei izena

>garen "tokia" da eta geugaz bizi dena da *lekuko* zindoa eta berbea da, edozein "berba", gauzen ordezkaria. "Izena duenak ba du izana" dinogunean bezala. Joan ebangelariak, (J.1.1.) grekoen ustetik dino "eta berbea/hitza gizatu zan". Berbea ez da gotik datorren hots edo indarra, geure lagunarteko *ama eskola* baino.

35 Honetan Jesusen Ama Mariak errurik ez duela aitortzen dut, bai oster, emakumeari hesia ipinten dien apaizgo eta apaiz buruak eta euren eskolako teologiak. Zergaitik Ama Birgina Ama Jainkoaren ordezkari? *Ama eskola* bihotzez gorroto zutenak gaitzerdi ematen zuten Jesusen Amaren ordezkari eta Jesusen iraultza bera ere izkutatatu egin zuten herriaren asmoetatik. Jesus feminista izan zan. Magdalena, apostolu bikaina izatetik, elizak bekataria damutua egin zuan...



ipinten, hiztegiaren sortzaile bailitzan. Adanek ez ei zuan amarik izan, Jainkoak berak (Has. 2, 7) lurreko autsetik egina bai-zan.

Atatiar aginteko gendetan akadiar semitarrez landa, grekoak ziran suhar. Anaien eta auzoen arteko burrukak amaitu ondoren, Atenai gelditu zan buru eta eroe armatuaren literatura egin zuan, Zeus jainko armatuaren kerizpean. Ama eskolako Mikenas austu ondoren, Kólkida bezalako, ama aginteko herriak borrokatzen ekin zion. Ama mendeko herrien maizeatzaile sutzu dager Euripide *Medea* tragedian, emakume eta amatasunaren mespresu gordine-na eta genero gorrotoa erakusten<sup>36</sup>. Mikeniar eta Minoikoen hizkuntza barbarotzat jo eta baztertu zuten, euren klasizismoko asma-kizun bereziak goraiatzearren. Hitzen edukina aldatu, hitzaren konposagaiak itzuli, nastatu. Aita aginteko erlejinoaren izenean Samotraziako Nyke bezalako taxuak lurperatu egin zituzten, gero-ago erromatarrek Iberiako dama jainkosekin eta iberiar hizkuntza-kin egin zutena bera, Ama eskolako arrastoak ezabatzearren.

Familia banandu egin zan, batzu amarekin gelditu ziran, beste batzuk aitaren eskolari jarraitu zioten. Latina, adibidez, erlejino eta kultura hizkuntza bezala, zabaldu zan eleiza eta unibertsida-deetan. Baserritarroi "hable usted cristiano" esanaz itxurgatzen zi-guten euskara, frankismoren garaian. Erroma jausi zan eta faxisten ordua ere. Eleiza katolikua gelditzen zan latinaren babesle bakar, Vatikanoko II-nak lotsorrotik esnatu eta gizaldietako laidoa kendu zigun arte. Askatasun eguna izan da euskaldunontzak lagunarteko meza euskeraz dena entzun eta parte hartzea. Arnasa hartu eta ino berria abestu ahal izan gendun euskaraz, amaren berbetan. Latina hil zela-ta, inork ez zuan negarrik egin eta orduan konturatu ginan, hilezkorra bakarrik, ausaz, amaren eskola zela, eta amaren eskola-ko hizkuntza. Arroen erronkak berez ahienatzen dira, euren magiazko agintzarien putzetan.

36 Oxin "Ponto Euxino"<sup>0)</sup> itxasoaren *golkoan Kolkida* izeneko herria zan, urriten endakoa, ama mendekoa, *Medea* euren erregina. (EURÍPIDES, *Medea*, 572-575) izeneko tragedian honela dino: "Otian hilkorrok semeak izateko beste bide bat izatea, behingoz emaztekoa baztertu eta akatz gabeko gizakiak izan ditzagun". Gaurdaino Armenia, Geogia eta Abjazia ostaz gelditzen dira ama eskolako hango herrietan, Turkiak Ostetik ezpada, Rusiak Ifarretik maiz zehatzen dituela.



*Qorn guren* mendia berezko piramidea da Egipto Erdian eta antxi-  
natik errege hila-  
birako erabilia.  
Egipto Behean ez  
dago mendirik  
eta *Qorn* mendia-  
ren erako egiturak,  
piramideak, egin  
zituzten horretara-  
ko. *Kurru* izeneko  
beste *ekur* santute-  
gi bat da  
Nabatan...

**Qorn**<*kuren* izeneko mendi santutegia Niloko Erregeen bailaran. *Ekur*>-  
*kuri*>*gori* dator (Ikus 37 or.) Gurean *Ekurrola*>*Egurrola* ere eman ditu.  
*Ekur* gorenara, berriz, *gurena* "santua" adierazten *Ekur*<sup>(s)</sup>>*Kuri*, *Coria*, *Co-*  
*rea*,>*Egur*>*Gorra*, *Gorri*, *Gori*, *Gora*, *Gorra*, eta gehiengoan, *Ekuren*>-  
*Eguren*, *Guren*<sup>(eus)</sup>, *Corona*, *Coran*, *Corin*> **Qorn**<sup>(k)</sup>, etab. munduan zehar...

### III. SANTUTEGIEN BATASUNA

#### 3.1. *Ekur*-mendi, toki santua

*Mendea*>*mendia* dator, hots, berezko "dominioa" ematen dio hara igoten duenari. Mendia jainkoen pausalekutzat ematen zuten gure asabek. Mari ere mendiz mendi *kurrika* ibiltzen omen da, bere seme-alaben bisitak hartzeko, Mari *Urrika* deitzen zioten, *Urkiola*>*Ekurrola* aldean. Mendiok gizakiak bere oinez igoteko lainak dira, jainkoei biderdi egiteko, alegia. Saharan *Gori* dager (ikus 37 or.) bere magaleko ormetan dagers milaka maraski hango kulturaren lekuko. Egiptoko mendi gorenari *Qorn*<sup>(k)</sup>>*Kuren* deritso, euskaldunek ere ulertzeko deieran. *Ekur* izena Sumerreko idazkietan agertzen da lehengoz. Hala zeritson Enlil jainkoaren santutegiari, Inanna, maite jainkosak, porrokatu zuenari. (Ikus 44 or.) Sumer menperatu zuten akadiarrek, haren santutegiez ere jabetu nahi izan zuten, lurreko armatuen indarra zerutiko jainkoen indarrak bermatzearen.





Nippur edo *Duranki* izeneko *ekur* santutegia. *Duranki* izenak “zeru-lurren arteko lokarria” esan nahi du. Nondik datozke *Durango* < *Tudanko* izenak? *Utu+Ra-An+Ka* arketipoak osatzen dute “eguzkia, airea, zerua, lurra” adierazten. Inanna jainkosaren Ur-ko Eanari (ikus 45 or.) eta bere babeseko Urnammu erregeari keriza egiten zien eta hagaitik...

*Ekur*<sup>(s)</sup> izena tokizenetan ezeze, izen arruntetan ugaria da: *ekur* santutegiko gidaria *guru*, *agurea* nonbait eta latinak *augur*<sup>(l)</sup> dino edo *curio* “jaun” edo *kyriu* grekoak, euskerak *guraso*, seme alaben arduradunei. *Agureari* zegokion, herriaren izenean, jainkoei buruz *kur* eginez, *agur* esatea, *makurtu* eta *gurtzea*. Herria, *gurari* biziz, *kurrika* joaten zan *aguro ekur* mendi *gurenera*, Gabon zaharretan *Gorbeara*, *Aitzgorrira*, edo beste mendiren batera bezala, Urteberri mugan Jainkoarekiko *akordua zigurtatzera*, hasierako berbak *gordean* iraun zezaten<sup>1</sup>. Euren elorrioetatik *kura* > *gura*, hizkune egiteraino, bilatzen zuten, > *querere*<sup>(l)</sup> > *querer* latina janzeraino.


Mendiketa horri *akiti*<sup>(s)</sup> deitzen zioten Sumerren<sup>2</sup>. Nahiz herri- an euki giza eskuz eginiko *zigurata*, *akitika* egiten zuten mendiraino, jainko zaharren baimena lortzearren. Ibilkeraren handiaz, *akitu* gelditzen ziran. Gure mendiketa zaleak ere, eta lurreko mendi altuenak igoten dizuztenak funtsean ez dagoz *gurari* > *quereres* hortatik urrun, euren gidari sherpakin, mendiko jainkoei, onbera izan daitezzen, otoitz egiteraino, hatan ere. Han agertzen dira *Karakorun*, eta *Kurru* handiko Imalaian.

*Koru* da mendi gaina, *koru* elizetako balkoa, *korru* egiten duten, abeslarien guneari eta ganga borobilari, *Cormont*, *Kormenzana*, *Korro*, *Gorraimendi*, *Egurmendi* gure artean eta *Temengur*

1 Ohiturak gaurdaino irauten du, baina ez sinismenak. Ama eskoladun hizkuntzak bakarrik esna dezake barnean Jainkoarekiko *akordua*.

2 Euskerak *akitian* eta *akitika* forma biltzen ditu “saltoka” adierazten *akitu*, berriz, “nekatu” esateko. Sumeriera eta euskara, ama beraren eskolako dira.





Ur uriko ziguratu, Eanna deitua. An jainkoari eta Inanna maite jainkosa, bere alabari oparitua. *Zikuratu*<sup>3</sup> <etxe goratu ulertzen da eta *ekur*>gora dator, *Gorrola*>*Grul*lez. Erainkintzaren goiko, etxea. zeru antzo, urdinez koloretatua zan eta behe aldea berriz, lur kolorekoa...

Malasian, edo *Korea* Eurasiako Sotzalde bazterrean. Izen sakratuak noizbaiten apaiz buruen debekua jaso izan bailuen, forma itzulian dagerz *Ekurmendi*/*Urkomendi*, eta *Ekurrola*/*Urkola*>-*Urkiola* tokizenetan bezala<sup>3</sup>. Bide beretik dator *ekur*/*arroka*>-*roca* biurrituak ere, *Gorrandi*/*Rokandi* erataraz.

Ama mendean mendi santutegia hasieran Ama<sup>4</sup> Jainkoarena zan. Geroago kristau herriak zuen ama yoranaz, Adre Mariari opa izan zizkion tokiotatik asko: *Koruko Ama*<sup>5</sup>, *Gorriako Ama*, *Gorritiko Ama*, *Akordako Ama*, *Socorriko Ama*, etab.

*Ekur* santutegiko *arrokak kuraia* ematen zion *kura* beharrez aurkitzen zen behartsuari eta *gora* eiagoraz, haruntz *akorritzen* zuan *orki* gainean, ahal bazuan, edo *kurpidez*, *gurdi* edo *orga*<sup>6</sup> gainean. *Ekur* santutegiak, gaur bezala, egun seinalatuak zeuzkan, *kornites*<sup>7</sup> deitu jaiak eta inguruko herriak *akordu*<sup>8</sup> handian mugitzen zituan. *Akordurik* ez dago-

3 *Urkiolan* pagadi zaharra dago; ez zan *urkirik*, baina norbaitek, logikaz ekologia eginik, *urkiak* landatu zituan eta orain *urkidi* bat ere badago.

4 *Urkiola* mendi, Anbolo aldean, ustez Mari Amarena denez, hango santutegietan ez dager Andre Mariari eskeini ermita edo aldarerik. Goitik ez dago ezin ikusirik, baina beheko gizasemeek gora jasotzen dituzte beheko euren burukominak.

5 *Mairu baratz moro* eta *mur* *baratz* ere aipatu izan dira, berez, *Murumendi* *Marimendi* den bezala. Beraz, *Mari baratz*, *Marisolo*>*Marisol* aipatuak bezala.

6 *Arka*<*ra+ka* zeritzen *Erra* jainkoa zeroan *gurdiari* (Ikus 11 or,) eta *orka Oru*, haren semea oreietan zeramanari *orka*>*orga*. Arketipoak itzuliaz, *karro* denari.

7 Pazkoetan izaten zan amabitxiak besoetakoari *gurkulu* opil *guria* oparitza ere. Opila hiru adarreakoa izanez gero, *kornado* ere deitzen zan.

8 *Akordu*>*korde* doa, *kordetu*, bat senera datorrenean, *kordatu* "barazkiak taxutu, adibidez, gauzak hobeto gordetzeko. Ondo *kordeaz gero*, bat ondo *akordatzen* da.

en herria ohargabetu dago, ez du senik. *Kordetuak gordetzen* daki bihotzean<sup>9</sup>, etorkizunaz arrenkurarik ez duela<sup>10</sup>. Fededuna *ekur* santutegian *ekuritzen* da eta erritoak ematen dion aS santutasun seinua aurizki duela, *seguru>segur>zihur* dago.

Mendian bizi diren abereekin, *ekur gurena* jainko *gortea* gertatu zan. Geroagoko baserriak ere handik osatu du bere hazien da<sup>11</sup> eta *korta*, edo *eskorta* mendikoa, *eskuri* lurrekoa eta etxekoa izen duinekin baitu eta etxekotzen zituelarik: *xekor*, *abelgorri*, *gorrino*, *cordero*, *orkatz*, etab., eta lehen *ekurreko* Ama Jainkoak bere *ezkurrez* haziak bere jabetzako eta ardurapeko hartzen zituela, baina ez gero lehen jabeari konturik eman gabe<sup>12</sup>.

### 3. 2. *Ekur, sokorri mendi gurena*

*Ekurreko arroka* zigurtasuna ematen zien fedez hari lotzen zirenei, halakoixea bai-zan, ha ordezkutzen zuan Ama Jainko. Hagatik hara *korritzearen* buruz, *kurpideak* ideki eta *sokorri* asmoak aitortzea. Gaisoak *ekur* santutegira eramaten ziran osatzeko, *ekurutu>aegrotu*<sup>(1)</sup> latinak lardaskatzen duen bezala, *kura* bila *kurritzen* zuten, gaur Osakidetzara joaten garen bezala. Han *ekortzi>igorki* bereziaz *igurtzen*<sup>13</sup> zituzten gaisoak, *ekurutu* "nasaitu" zitezten, edo bertan *ekuraldia* egin osasuna lortzearren.

Or<sup>(k)</sup> "Erra jainkoaren semea", guk tokizenetan *oru/orue* bezala darabilguna, *Ka-*, *gai* seinuz aurizkitua, bera da *Ekur* hitza. Hori aitortzen dute *Oromendi/Mendaro/Montoro* izenetan oroitzen dutenez. *Oruse/Urzi*<sup>14</sup> gure mendiek *Orusemendi/ Mon-*

9 *Corde* dino latinak, *kardia* grekoak, baina ez dakie izenaren jatorria, ez ziran *akordatzen*, ez zuten *korderik*, ez eta grekoek *gardirik*. Euskerak, ostera, *agotz/bigotz*, koptoen antxinako sikologia gordetzen du.

10 *Erraren kura>arrenkura>rencor* Erra Jainkoak bereekin izan zuena, "Rescate de la humanidad de la destrucción ANET, 10-11", azaltzen duenez.

11 Abereak *bezatzen* ahaleginak egin zituan gizonezkoak. *Bezatu>facere* eta *bezatzen>facienda>hacienda* gertatu zan erderarentzat ere.

12 Anbotoko Marik, artzainei kontuak hartzean, batek kopuruko banaka batzuk izkututzen ba zizkion, izkutatu harexek beretzat hartzen omen zituan.

13 Nondik eta Elizako sakramentuetan gaisoen *igortziak* aurkitzen diren.

14 Egipton Or<sup>(k)</sup> dena, Grezian *Orus*<sup>(g)</sup> eta *Urtzi* euskeraz, "et Deum vocant Urcia". (FITA. *Recuerdos de un viaje a Santiago de Galicia*, pag. 58. Madrid, 1880)





*Santakurtzia* Bizkaiganen, Sortzaldetik igoten da, erraz igoteko mailadia dauka, Urregarain Santa Eufemiakoak bezala. Goian *Kurutze* Santuaren omenez eraiki zen ermitaxoa dago aterpe eta guztiko, itzelezko ikuspegia, barriz, Sartalde-rantz. Abadea eta monagiloak zirialekin urtero igoten gendun errogatibak egite-ra. Berezko *zigurata* dirudi (Ikus 44 Or.) Arrigarriena, ostera, *kurtzia* izena-ren jatorria da: *zi+ekur+ate>zikurat*, *e k u r + a t e + z i > k u r t z i a* “santutegi+ate+etxe” esateko

*torzi*, iruski “eguzki” jainko honen santutasuna aitortzen dute *Santurde*, *Santurtzi*, *Saturdi*, tokizenetan, eta *iduzki saindu* zerritzen hilobietan eguzki antzeko harri biribilei.

*Ziguratua* (ikus 45 or.) etxe *goratua* ezeze, *ziguru>ziguratua* zan, suaren edo etsaien erasotik *zigurtatua*, alegia, jainkoaren babesaz landa. Hortik ikusten dugu, berezko *Ekur* menditik giza eskuz eginekora aldatzen dela jokera ibarraldeko urietan, geure egunetan baserritik kalera egin delakoaren antzera. Hala ere, kaletarrek ez dute aztu mendirako jokera<sup>15</sup>.

*Urtzi Santurtzi* etorri denez, *Kurtzi SantaKurtzia* dator. Izan ere *Kurtzia/ Kurtzio* kristauen *Kurutza* santuaz eleizak berbete-atu aurrekoa da. Hori jakiteko *ama eskolako* euskara izan dugu.

*Eskortako* ganadua berez *gordeta*<sup>16</sup> dago, baina ondo *gorde-tzeko*, San Antoniori agindu, bada, “san Antoniok *gordeta*” edere-rritsiko du baserritarrak santutegiko perian *ganadua*<sup>17</sup>.

15 Gernikar askok, adibidez, Bizkaiganeko Santa *Kurtziara* joateko ohitura du. *Kurtzia* hori berezko piramidea da Santa *Kurtzia* deitua, Sartaldetik begiratuta. Orain hara igoten dutenek, ibilketa atsegina egitearren doaz gehien bat, edo ohitura zahar baten jarraian. Euskaldun ez denak ez dau ezer jakingo, euskaldun erneek, ostera, ba dute jakiteko modurik.

16 Gaztelaniak *guardar*, *resguardo* eta *gordo* dino euskeraren bide bere-tik, ia denean bezala, euskerari entzunda edo euskerak erakutsita.

17 “Basa abere *ganadua*, ugazabak *enganatua*”>*engañado*. *Norgan-atua? Bereganatua*. “*Ganar, ganado, engañar, engañado....*” euskal gramatikak sortu hitzak dira. Euskararik gabe, memoriarik bapez.



***giza-une>gizon/homine<sup>(0)</sup> analisia***

"Gishnumunab [...] gizakiak bere *une-muinetik* egin zituen" (*Enuma elish*, VII,89) edo *Marduk* jainkoaren sorkuntza idazkian agertzen denez, "Anu-ren *une=muina* bezain handia da bere indarra" (*Gilgamesh*, I,III,4ss, ANET,72-79,83-90, 92-97, 514-515). (Enkidu, Gilgamesen kideaz esaten da) Anuren *une* edo *anunaki* "Anuren zatiki" *Anu+-ki: ki+iza>kiza>giza* "Anuren muineko delako. *muineko>muñeco<sup>(9a)</sup>* dakar, eta *kiza* konposagaiak itzulikatuz, *izaki* eta *Ka* gaia aurritzituz, *ki+-izaki>gizaki: giza+une>gizon/ gizon* dator.

"*munab<sup>(s)</sup>*" <*mun+ba*> (itzulikatuz)>*women<sup>(0)</sup>/homine<sup>(0)</sup>*"emakume/gizakume" bestalde *men/man* "azaleko kemen" gizonetzko eta *women* "barne men". *Ba-* arketipoaz *baita/pneuma* baitatua. *Ka+-une>kune>gune* "cria, sustancia", *gyne<sup>(9)</sup>* "emakume", *giza* eratan *gizatua* agertzen da eta *une+ka*, itzulikatu, >*ongo/ hongo, ungia*= "bake, onto, ona". *Ba+-une/on>bonu<sup>(0)</sup>bon/bene<sup>(0)</sup>*. -*Ba=baita=barne=pneuma<sup>(9)</sup>*. *Iza>esse<sup>(0)</sup>*, *ba+iza>bizi, iza* barneratua... - *munab, \*minabe/mirabe*= "doncella, criada"


**3. 3. *Ekur>gora tokizenetan***

*Giza adn* kutsua *gizakiak* munduan zehar eginiko bideen lekuko zihurra da, baina *giza hizkuntzak* ez dauka kimiaren zihurtasunik. *Ama eskolako* otsak, deiak, izenak dagoz, ostera eta eurentan tokizenetakoak dira zaharrenak eta zihurrenak, herri ezberdinek gizaldietan errepikatuenak direlako.

Nori otu lezaio, edo bai, Iberiako *Coria* batek Asiako *Corea* tokizenaz duen uka ezineko antza? Eta, ausaz, *Egurmendi>Goramendi* eratorriak egin duen bidea? Harago, zer ikusia du Saharako *Gory* izenak euskeraz *Goiri* abizenagaz edo *Gorri* tokizenezarekin? Bada, hor dagoz *JonaGorri*, andre mitikoa, *AitzGorri*, mitoen tokia edo *Gorbea*, etabar edo hesietatik ate, *JasnaGora* Polonian, *Gorriti* bezala, *Andre Mariari* erantzi santutegiak, harago *Rusian Kurganak<sup>18</sup>*...Nork asma dezake euren esanaia? Nork Etiopiako *Goragora*? Nork Egiptoko *Qorn* edo *Temengur<sup>19</sup>*

18 *Kurgan>ekur+gane* "túmulo, lur pilatua eroien ilobi izateko", errusieraz omen dago eta euskerak ulertzen du.

19 *Urnammu*, *Ur* uriko III. dinastian (2100-2000), *Eanna, Etemenniguru<sup>(6)</sup>* "ekur santutegia"/temenon+inguru "santutegia korruan" deitua, eraiki zuan An jainkoari eta haren alaba *Inanna-ri* eskeinia. Cf. Ohar *inguru/corona* hitz berdinak diren, aurrizki atzizkiak soilik aldatuta, edo eta berdin *en corro/korruan/ corona*, gramatikazko baloreak aparte. Cf. Ohartzekoa bai ta ere, *Temengur* mendi izena *Malasian*, Asiako beste puntan.



*Esharra*, jainkoek *exeritzen* ziren *exerlekuak*. “Esagila erpina jaso zuten “Apsu”-rekin berdintzeraino; hantxe eraiki zuten sala bat Marduk, Enlil eta Ea-rentzat, [...] Batzarrea egiteko zerutik jaizten zirenerako [...] (*Enuma elish*, V,127) “*Esharra* jau-regia, zeru antzera jaso zena [...] Bere guraso jainkoak, *exeriaz* zituan eskalasean [...] jainkoek euren *exerlekuak* hartu zituzten” (*Ibi*, IV, 145; VI, 70-74). Cf: “asamblea” batzarre, “banquete” eskalas, zeritson jaietan sendiko gonbidatuekin etxeko goiko salan antolatzen zenari, erritozko aidea-edo bai-zuen halatan.

Malasiakoa? Nondik igarri *Egurrola*>*Grul* datorrenik, edo eta *Landaguren*>*Groenland*<sup>20</sup> bihurtzen denik? Neosumeriarren kezka dut oraindino esan eta errepikatzeko: “Baina ze idazkari mota da sumerieraz ez dakien idazkaria? Zelan alda dezake sumerierarik ez dakien idazkariak?”<sup>21</sup>

### 3. 4. *Ekur santutegi deabrutua.*

Mendi bideetako une larriei “Deabruaren pausoa” deitzen zaio Alluitz, Anboto aldamenean edo “Mahomaren pausoa” Aneto aldean, “Ifernuko pausoa”, eta hola. Eriolari arpegira begiratzea edo mendi altuan jainkoarena egin nahia “deabruaren tentaldia da”, bada, *En+erri+gal*>*Nergal* infernuko jainkoa, bere erreinurako gendeei gonbitea egiten dihardu. (*Gilgamés*, XI,I, 100ss)

Jesus, Nazaretoko profeta ere desertuan tentauta izan zan, deabruak (Luk 4:1-2) mendi gailurera jaso eta munduko uriak erakutsiaz, esan zion “guzti hori emango dizut, hemen makurtu

20 Ingelesak, jatorriaz zorabiatua dagoenez, indoeuropearretik datorrelakoa esango dizu. Ez diogu zertan sinisturik. Zeuk duzu hermeneutika hoberik zeure *amaren eskolan*, etimologia zihurragoak egin ahal izateko.

21 *Proverbios de la Colección sumeria* II, 47-49. Neosumeriaren garaian, ehun urteren epean, Sumeriar jakinduria guztiak idazten saiatu ziran, euren memoria gorde ahal izateko. Baina “euskerarik ezean, ze memoria gorde-galdetuko diegu Espainia eta Frantziako Unibertsidadetako maisuei, Historigile eta Hizkuntzalari direnei bederen-zer gorde, zer aztertu, euskerarik ez badakizue?”



eta gurtzen banauzu". Tentaldiak gora behera, mendia berez da sorkuntza ikusgarriaren tala. Berak erakusten digu gizakia den kaxkarra eta Sortzailea den handia. Bestalde, gizakiak oinpean hartzen duen guztiaren jabetasuna duen jainko txikia dela uste du.

Ibarraldeko lautadan, jainko mendirik ezean, jainkoentzako *ekur* munoa eraiki zuenak badu jainkoak etxekotzat hartzeko irrika eta haietaz serbitzatzeko lera, baldin, batez ere, herriaren onerako bada. Hori gertatu zan *zikurat* eraikintzekin, batez ere, Babiloniako Esharra deituarekin, eta berdin Egipton, *Saqara* deitu piramidearekin edo Atena herriko *ekur Acropolis* zenarekin, batzuk *koroa* aintzatsu bezala erabili eta besteentzat *kuru-tze>cruce<sup>o</sup>>cruz>cros* negargarri antolatu zutenentzat.

Ur uriko *zigurata* Burano<sup>22</sup> (Eufrates) ibaiaren antzo, Ipar-Ego doa, goitik behera eta Aste-Oste eguzkiaren bidearekin gurutzatzen da. Ura eta sua dira, izan ere, sumeritarrentzat bizitzaren jatorri, hots, Ama eta Aita lehen arketipoak: *Ama aN uin*=ura eta *Aita uTu>su* otsak, *ama eskola* arabera. Honela esaten digu hagaitik, euren jakinduriak: "susmeriar gazteak, txukunkeria barrik, bere jainkoaren berba ospa beza, Sumer herri jatorrean bizi direnek, ehuna bezala osa bezate"<sup>23</sup>.

Jainko arketipoak zirela-ta, sumertarrek gorabeherak izan zituzten hizkuntzarekin eta *eme-ku*, *eme-sal* hizkelki bikoitza bulzatu zuten: *eme-sal* deitua, otoitz eta salmuen liturgiarako eta *eme-ku* merkatuko kontuak eramateko<sup>24</sup>.

Urnammu, Ur uriko erregeak, uri bakoitzarentzat bere zigura-

22 *Urano>Burano* forma *Ba-* baitatuz sortzen da. *Urano urez* osaturiko astroa omen da. Ingelesari galdetu eta itxuan, indoeuropearretik detorrelakoa erantzungo dizu, baina guk, jakinian, *ama eskolako* otsa dela esan dezakegu.

23 *El hombre y su dios*, 2-3, DB, n<sup>o</sup> 26. Cf: Beste esaera batek "eskolda ehu-netik gertu dago" dino, izan ere hitza/ berba, arketipoez ehundu, ehuna bezala da. Ondo kordatzen bada, berba egikeran akordaten da, eta ez bestela, "aria-ri tiraka dator arilkoa" esaten denean bezala.

24 Hizkelki bikoitzaren arazoa ez da ulertzen, Sumerren baitan akadiar hizkuntzako herria hasi zela kontuan izan barik. Gero bere menpean erori baitzan. Horrela sumertar jakinduria eta literatura, akadiarrek euren hizkuntzara aldatzen zuten. Horrela, Babiloniako garairaino, ama eskolak semitarren baztergoa jasan zuan.





GEURE ATA SUTAN ZERANA SANTU IZAN BETI ZEURE IZENA ETOR... (Luk. 11:2-4) honela dino Iruña Veleiako ostraka batek. Dotrina leku izan zen etxean agertu ziran ostrakak. Euskara susmatzean, faltsutzat emon zituzten behingoan eta erretiratu azterpenaren begietatik eta halan darraie gaurdaino. Hori da, hain zuzen, matxismoaren politikak egiten duena: bere guzurren salataria, bilatzen duenena, espetxean sartu, ostrakak gorde. SUTAN SERANA, Aita Utu da, Utu>su dator. Izan ere, Ama da zeru eta ez zuten esan ZERUETAN...

ta eraiki zuan: Ur, Uruk, Lagash, Nippur. Nippur-ko jainkoa Enlil zan, ain zuzen, Inana jainkosarekin ondo konpontzen ez zena (Ikus 27 or.) Mitografia honek berea dino: Enlil, armatu eta begirada muker dager, semitar jantzian. Mendia eta zuhaitza dago jainko bien artean. Inanna, mendartetik urten ainean dagoen Utu nebaren sutan berotzen du bere txorta. Urnammu erregeak, Inanna-ren babesba zeukan, baina saldukeriarren, nonbait, gazterik hil zan. Inannak Enlil salatu zuan: "Enlil-ek, amarruz, aldatu egin ditu adur seinalatuak"<sup>25</sup>.

Inanana, asarre bizian, erre egin zuan Enlil jainkoaren santutegia<sup>26</sup>. Herri mailatik jainko mailara pauso bat baino ez dago, behin jainko-ekiko fedea galtzen denean edo nabastarrea gehituez gero.

### 3.5. Gilgamés eroiaren gizonkeriak

Gilgames, Uruk uriko erregeak, herria serbitu beharrean, herriaz serbitzatzen zan: andrak bortxatu eta mutil gazteak gudara behartzen zituan, atanbor otsean. Herria kexu zan. An jainkoak Aruru amari beste seme bat eskatu zion, Gilgamesen zantzailleria garbitzeko. Aruruk beste seme bat egin zuan orduan, Gilgames, bera baino basatiagoa. Elkarren lagun egin ziren, eta ez zuten errespetatzen ama eskolari zegoñion gizabidea eta ekologia. Halatan, jainkoen basoa ebaitea otu zitzairen eta harako Basajaun Humbaba \_\_\_\_\_

25 *La lamentación de Ur Nammu*, 9, DB, nº 26.

26 *Ibidem*. 205. Cf: *Inanna*, An aita eta Antu amaren alaba, maite jainkosa. *Enlil<An+Ilu*, Anen ordezkari lurrean.

**Adapa**<sup>(s)</sup>/**Abata**<sup>(eus)</sup>>**Ptah**<sup>(k)</sup> hitzen jatorria: *Adapa* Eridun Enkiren tenploko abadea izan zan, berak ezarri zituan erlijinoko errito aratzak. Itzuli bat dago *ada+pa/ab-+ata>abate>abad* zerrendan eta gero, *abade>apaiz* datozenak. “Jainkoa bat eta bera nahikoa” esan ohi da. **Bata**>**Ptah** dator, ain zuzen. Koptoa eta euskera elkar ulertzen dira. Jainko hau **Ba** arketipoz gizakiagan baitatua dago. Bere barri “*La teología menfita de la Creación*” idazkian dago. **Ptah** jainkoak hitzaren bidez sortzen du: bihotzean erne eta ahotzez gauzatzzen, *bihotz/abotz* aldarrikatzen duela, geroago *Enuma elys* eta *Génesis* liburuetan ikusten dugunez. Sorkuntza honen bidez **Ptah** *ta tenen*<sup>(k)</sup>/*aita denen izatera* dator. Hagaitik dino euskerak: *Batek badaki* “Jainkoak daki” edukinaz. Orain bada, **abata**>**bata** dator eta>**Ptah**<sup>(k)</sup> honek beragan batzen dituelako jainko guztiak. Beraz, euskerak zenbakiak aldatu behar izan ditu, halako teologiaren misiolari koptoekaitik: lehengo *hona*, orain *bata* izan beharko...

erailtea erabagi zuten. Guzti hori Gilgames liburuaren lehen kapituloetan dago, zehetasun gehiago nahi duenarentzat.

*Umbaba*<sup>27</sup>, basajauna hil eta basoa eratzki eta gero, harro baten zetozen eroiak Uruk uriko plazara eta, Ishtar jainkosak maite keina egiten zion Gilgames heroiari. Gilgamesek, ostera iguinez mespresatu jainkosaren balaguak, bere beste maitaleei hilezkortasuna emateko ustela zela-ta<sup>28</sup>, ots, jainko eineko ez zituelako egin.

Ishtar ere asarretu zan eta An/Anu, bere aita jainkoari, Gilgames zigortzeko, Zeruko Sekorra<sup>29</sup> bialtzeko eskatu zion. Hor dituzue bi eroiak Uruk herriaren aurrean Zeruko Sekorra toriatzen.

27 *Humbaba* edo *Jaun+baba* eta *Basajaun* ofizio bereko morroiak ziran, eta ausaz, personai berberak mitologian. *Humbaba*-ren heriotzean, haren orroak, Libango basoan entzun ei ziran. Bueno, eta zergaitik ez Iratiko basoan. Izan ere, Iratiko basoa inarosten jardun izan ziren almadieroak gizaldietan eta ekologiaren zaindari *Basajaunek* agirika egin izan du bere orroez. (J.M<sup>a</sup> SATREUSTEGI, *Mitos y creencias*, 133-140, Txertoa, S. Sebastián)

28 *Gilgamés*, VI, I, ss

29 *Ishkur* zeritzaion trumoian, *sekor* gainean, troskatzen zuen jainkoari. *Ishkur/Xekor* forma biok ba dute zerikusirik. *Ishkur* jainkoak, *aizkoraz* armatu, troskatzen du. Beraz, *Ishkur/aizkora* ere elkarrenak dira. Argi dago, bestalde, haraz gero, toriatzea matxisten ganora dena gure artean.





*Ekur+une>korona* “koro-  
narria, cronlech” armori-  
keraz. Irudian dakusguna  
Arabian Enzia mendiko  
*koronarria* da, artzaien  
toki berezian asmatu eta  
egina, *ekur+une/in+guru*  
haretako jainkoekin har-  
r-  
emonak izatekotan. *Koro-  
nak inguratzen* eta biltzen  
gaitu eta eguzkiaren  
magiaz aidean eta aldian  
eramaten, txirringulak  
baino airosoago...

ordekan zehar mortuan sartzen da hilezkortasunaren bila. Mirabe batek ba dinotso bidean:”Gilgamés, nora zoaz alderrai? Bilatzen duzun bizia ezin zenezake idoro. Jainkoek gizadia sortu zutenean, gizakientzat heriotza erabagi zuten eta bizia euren eskuetan gorde”<sup>30</sup>.

Gilgames *ama eskolaz* iguindu, alderrai dabiltzu eta bidean mira-beak birargitzen du. Gilgames jainko hilezkor ez dela-ta gaurdainoko asarrea darrai gizartean eta *ama eskolaren* aurka jarkiten da.

### 3.6. Esharra eta Marduk-en sorkuntza

Babilonian ere hilezkortasuna bilatzen zuten. Ama Jainkoak ez zieten balio, beste sorkuntza bat zuten asmotan. Babiloniako apaizek, teologiak aldatuz, beste sorkuntza bat asmatu zuten eta “Sorkuntzako Poema” deitu zioten *Enuma elysh* liburuari, ausar-to esanaz “Tiamat ez da gure ama, Marduk<sup>31</sup> baino, Marduk da benetako aita”. Halako goralmena, Marduk Esharra gainera igotea bezala izan zan. Dorre antzeko zigurat honek 91 metroko altura du (Ur urikoak 30 baino ez) eta oinarriz 91 metroko zabalera. (Ikus 49 or.) Zazpi mailada nagusi zituan eta denen gainean Esharra, jainkoa tokia. Eraikintza bera ere Marduk berari egoz-

<sup>30</sup> *Gilgamés, X, III, 10,*

<sup>31</sup> Jainko barriaren izena ondo aukeratua izan zan: *Martu, maurtu>mortuko* seme *amortarra*, Sumerrera “eskondua” *maritu<sup>(9)</sup>>maritxua*, labo->



ten zitzaion, herria zaintzeko, begiratokia bailitzan edo, ain base-  
rri kutsuaz liburuak dinonez, bera zelako *baraxakuxu*<sup>32</sup>. *Ama es-  
kola* duenak behingoan ulertzen du hitzaren esan nahia eta  
aitortzen, ulertzen ez duenak, ostera, deabrutara botaten.

Babiloniako Esharraren estreinan *Enuma elish* poema irakurri  
zan. Nola Tiamat, Ama Jainkoa, erori zan Marduk jainko berria-  
ren sare artetsuan. Gutxirena *arte*a edo latinak arketipoak bihur-  
rituz *rete* egiten duena. Bihurrikeria handiagoz, Marduk goraltxatu  
zuten apaizek, Ama Jainkoari amatasunezko sorkuntza kendu  
eta magiaren indarrari egozten ziotela, hots, Marduken hitzari.


*Amatu* ezinean, *amakatu* egin behar (Ikus 58 or) amarru egi-  
leek eurak aitortzeraino: “[Qinguren<sup>34</sup>] odolaz eratu zuten gizata-  
suna. (Eak) [Enkik] jainkoen serbitzura behartu zituzten giza-  
kiak eta aske utzi jainkoak. Ekintza hau harrigarria izan zan;  
Mardukek ain maltzur asmatua, izan ere, *Nudimmund* [Enkik]  
kreatu zuan”<sup>33</sup>.

rantzean asmamen handikoa omen zan *Martu*>*Marti*/*Martxo*/*Marzo* bere  
omenez izendatuko egutegian edo *Martintxu* euskaldunak Ataunen soloari-  
tan egin zuen famaz, ezagutzen dugunez. Haren seme *Marduku* izan behar  
zuan, jainko asmatzaile berria, herriaren gustorako.

32 *Baraxakusu* Marduk jainkoari ematen zaizkion 50 titulotan laugarre-  
na da (*Enuma elish* VI,120- VII). *Baratzakusu* goi-eskolan irakurtean, doto-  
radutzako lezinoa azaltzea zegokion neska euskaldun berriak “esto parece eus-  
kera” esan zuan otoz-otoan eta hainbeste euskerarik ez zekian maisuak itxur-  
gatu egin zion ateraldia... *Baratza* bai, ez ala? Ba *kusu* hori, *ikusi*>*kusi*/*kusu*.  
Marduken titulook liturgizuneko hizkuntzan, sumerieraz idatzita dagoz, hots,  
*ama eskolaz*, hobeto esanda, eta *ama eskolari* ez zaio ipini behar mugarik.

33 *Enuma elish*, IV, 91.

34 *Qingu*, Tiamaten gudarostearen buruzagia; hil egin zuten eta bere odolaz  
nastauriko lurraz, Mardukek kreatu omen zuan gizadi berria”. Ohar *Kingu*  
“nagusi” adierazten, *Kuengo*>*Guengo*>*Kingu* datorren, *Ibarguena*>*Barkin*  
bezala, etaharrigarria ingelesak “errege” deitzeko ez dute beste hitzik *king* baino.  
Ingelesekin nola aztertuko dezakete *king* “errege” hitza, euskera jakin gabe. *King*  
“errege” eta *queen* “erreginaren” palazioetan euskera egin behar litzateke, gau-  
zak zehatz erritualki egitekotan, edo sumeriar jakituriar esanda: nola jakin deza-  
kete *king* hitzaren etimologia, euskerarik jakin gabe, eta aintza dena emesetako  
sanskritoari egotsiz?



Baradisu galduko ama eskolako hizkuntzaren lehen zabalkundea. Sahararako Amentia hasieran eta Sumer, Egipto, eta euron gidako hizkuntzak, kulturak gero.

### 3.7. Babel eta hizkuntzen nastea

Bibliak ez du barriren barri aipatzen nola izan zan munduaren sorrera. Horretan beste kultura batzuk aurreratu ziran. Berdin Baradisu mitoa edo Ugoldearen berri ematean. Babel aipatu eta ango herrien berri ematean, hizkuntzaren batasuna aitortzen du eta honetan ere, beste nonbaitegandik dakiana errepikatzen du. *Genesis* idatzi zuena, goitiko bultzadei baino, alboko berrien adia-go zebilen. Babel dorrearen itzagarria ikustean, babilondarren harrokeria salatzen du eta euren jainkoak herrien hizkuntza bardinari egotzen dio errua: “denak hizkuntza bera egiten dute eta orain ez die inork aurka egingo” (Has. 11.6) [...] “Beraz, jatxi eta nastau egingo dugu euren hizkuntza, batak dinona besteak uler ez dezan”. Yahve jainkoak taldean hitz egiten du eta partearen alderdikide jarduten (Has. 11.7). Parteia ama eskolaren aurkakoa da. Horren larria al da herriak hizkuntza bera egitea? Sumer herri argiak ere asmo berbera izan zuan akadiarren ziria albotik etorkola ikusi zuenean, eta milaka urte Hasiera/Genesisko idazleak baino lehenago, hizkuntza bereko herrian ames egiten zuen, gaur bertan ingelesek, txinoek, españolek edo rusoez egiten

duten bezala, eta ez dugu ikusten inungo jainkorik (bai jainkotxorik) asarretzen den<sup>35</sup>. Hizkuntzen burruka eta sugearen ibilkera antzeko.

### 3. 8. Euskera ez da Babel-eko ondare

Euskeraren zahartzaroa handi ematearren, norbaitzuk Babelen garaiko dela uste dute. *Ama eskola* hori baino zaharragoa dena jakin behar lukete eta inungo jainkorik ez daitekela ama eskolaren aurka jarki. Ama eskolak ondo bereizten bai-ditu jainkoei dagozkien arketipoak eta gizakiei egotsiak. Ordena hori apurtu nahiaz jarkitu ziren jainko armatuen morroiak eta norbere burua anaien aurka burunausi egin zutenek ez dute begiramenik. Ama eskolak *Ma-at* aitortzen du eta bere eskola iraultzaileek ostera, *Tia+mat* aipatzen dute Babilonian, ama izenari *to-* gizonezko jartzen diotela aurrizki eta *no* den *andre* ere "gizon" egiten Grezia klasikoan, Platon harritzeraino, hatan ere. Zein da izen bakoitzaren edukina? Jainkoek ala gizakiek erabaki zuten gero edukin hori? Ez, hori gure aurretikoei galdetu behar zaie. Hako barbaroei? Eurek asmatu zuten hizkuntza. Gure arteko emakumeek gizonezkook baino zehatzago gordetzen dituzte gure aurretikoen berbak eta edukinak<sup>38</sup>.

Babeleko nastea, babiloniarrek burutu zuten jainko iraultza da, han *ama eskola* garbitu behar zela aldarrikatu zutenez gero. Horrela gauzatu behar zan *Ma.at* Amaren erailketa, lehenengo hategandiko hizkuntza lardazkatuz, izena aldatuz, *Tiamat* deitu

35 "Kantu sagaratua abesten diot berari, Nudinmundi abesturiko leloa: "Suberik ez duen eguna, arrabiorik ez duena, higenarik ez duena, leoirik ez duena, ez txakurrik, ez otsorik, ez hainbeste bildur eta ikara, gizakiak aurkakorik ez duena! Orduantxe, Hamazi eta uri inguruko lurrrak hizkuntza askotakoak eta Sumer, handitasuna ematen didan mendia, eta Akkad berea duen guztia eta Martu lurraldea, zihurtasunean ekuratu - izadia dena, gende ondo gordea -guztiak Enlil- [ekin] hizkuntza berean aurre egiten". (NOAH CRAMER, *La Historia empieza en Sumer, Emmerkar y el señor de Aratta*, 134-155.)

37 Laster ez du balioko iruzur bat beste handiago batekin ezaltzerik, oraingo politikoengan ikusten dugun bezala. Euren naste borrateak arrapatzen ditu eta medioek egiten gero "juizio orokorra", Jainkoaren baimenaz.

38 PLATÓN, O. C., Ed. P. de Azcárate, t. 4, p. 430 Madrid 1871) Cf: Atenak, behin baserriko iriburuak menperatu zituenean, gutxietsi egin zuan haien hizkuntza, mikeniera deitua eta Anatoliako atikoagandiko berrizkuntzak sartu zituan.





Bit-Yakin "jakintzaren etxea", Akade<ataka eta Sumer herrien artean, Tigris<ate garai eta Eufrates<Ibarrate ibaien erdian. Hagatik Mesopotamia<sup>(9)</sup> "ibaien erdian" izena ere. Uren igaduraz uri zaharren ondakinak ibaitik aldenduago agertzen dira...

Ma.at zenari, gero arma erronkara deitu eta bertan erail zuten. Babilonian gertatu zan lenengo, gero Grezian ere ontzat eman zena: emea ar bihurtu, jainko izenetan Jaun- tituloa aurrizki ezarriaz<sup>39</sup>. Hori egin zutenak argitu zuten zer egin behar zan ama eskolako hizkuntzarekin ere gaurdaino.

Ama eskolako berbeta, Saharako Baradisu galduan gertatu

39 (YAHVÉH-(IV) Dic. B., o. c. p. 2056-2057) Akadeko idazkietan (XX K.a.) jainkoen izenak *Yau/Yaum* aurrizkitu agertzen dira. Cf. *Baba/Bau*<sup>(5)</sup>, jainkosa zela Sumerren? Ba, Yawé=YAHVÉH izan dadila Akaden. Egipton *Nut* zela Ama Jainkoa edo *Anatu* Ugariten maite Jainkosa? Ba *Tanit* izan zedila. Laster zabaldu zan moda berria munduan: *Inko* deitzen dutela? Bada, izan daitela *Yaun+Inko*. *Inko Yaun* eratarata ere eman da Iparrealdean. INO (ikus 17 or) izena euskaldunek Urartu Eufrates buruko erriarekin (RENÉ LEBRUM, *Urartu (religión de)*, DR,1794) batean dugu. INO ondorekoa>INKO dator forma gizatuan eta *Yaun/Yau* aurrizkituez gero,>*Yainko*>*Jainko*. Akade Babilonia aurreko asmoa izan zan. Babiloniako Esharra zan orduko politikaren ardatza, gero Grezian gertatu zenaren kauta eta "Geure Ama" (Ikus 51 or.)>"Geure Aita" behartu zuena...

**amatu/amakatu>magia:** Euskerak bai, argi dezake zer den *magia*, itxurak egin eta tati egitea, politiku askoren antzera. Amaren alaba bat *amatu* denean, ume ederra agertzen da. Norbaitetik itxurakeria askoz, zerbait agintzen duenean, *amakatu* egiten du: *amatu/amakatu* elkarren aurka datoz, *ama/amaka* bezala. Amaren altzorik ezean, ona da *amaka* edo *kama* "ogea" atsedena hartzeko. *Amakatu>amagar* dator gaztelanian ere, *amaka>magia* bezala, *amatu* gurean, egin dituzten itxurak, engainuzko muinekoen bat aterateko azkenean. Hatarako, hizkirimiriak ere erabiltzen dira, hitz arraroak bailuen magiaren giltza. Amak ez du *magia* beharrik, amatasuna gutxiesten duenak egiten ditu *magia* saioak, bai eta gizakiek *asmatu* jainko berriengan (dela Marduk edo Ptah, dela Zeus edo Brama) denak gizonezkoak, sorkuntza berria egin asmo zutenek, *amakatu*, *amatu* ezinean...

zan, hagatik mitoetan esaten denez, euskara Baradisuan Jainkoak, erakutsi hizkuntza dela. (Ikus 55 or.) Baradisua galdu zan, baina hizkuntzak aurrera darrai, euskerak adibidez, haiekin, beste *ama eskola* hizkuntzekin, hitz asko ditu batean. Oroitza ez da denetan berdina, Europan bertan, tokizenetan eta hitz arruntetan. Ama Jainkoaren izena eta nortasuna, berriz, seme-alaba jatorrak bezala, bihotzean gordetzen da munduan zehar, eta ez Mari Anboto izenpean edo Chaxiraxi Kanarietarietako baka-rik<sup>40</sup>. Hori adierazten du Marija Gimbutas andrearen arkeologi lanak ere: Ama Jainkoari atxikia ematen bai-du "Europa Zaharra" berak deitzen dion bezala<sup>41</sup>.

Izan ere, gure asabek noiz-nora nahira euren fede eta hizkerarekin atzerriratu ziran eta ahaleginak egin dituzte beste kultura ezkergean artean burua ateratzen, jainkoa lagun, gaitzerdi bilakatzeko bai-da atzerria. Ez da gutxi izango gure kultura asmoak eurenarekin zubi egitea, ostarkuak zerulurrekin egiten duen antzera.

40 Chaxiraxi, Ama Jainkotzat daukate kanariar askok, bera lur, ur, su, aire eta gizakien egile, bera zero makoari eusten diona (Ikus Nut 11 or. ), eguzkiaren ama, Andre Gurena. Eleizak, bere aitatiar kutsuaz, ez du inkulturatu herriko teologia eta Nazaretoko Maria, Jesusen ama, Ama Birgina, Jainkoaren Amagaz ordezkatzeko saiatu da.

41 MARIJA GIMBUTAS, *El lenguaje de la Gran Diosa Madre*.





*Ezkerrean:* Mut eta Amon jainko ganorako zorionez, Amenofis faraoon eta emaztearen irudian. Emaztea eskuman, zeruan lez lurrean ere, Tebasko ohitura denez. *Eskuman:* Akenaton eta Nefertiti senar-emazteak, eguzki Aton jainkoaren errainu pean: Amarnako eretxia. Aken "erri-me", +Aton eguzkiaren gurtzaile errimeak...

### 3.9. "Anzar" amazig-en errogatiba.

Kabilian gaurdaino gordetzen da Sahara mortu bihurtu zeneko errogatiba ospakizuna. Bereberren ohitura da, baina antzeko zer-bait egiten omen dute guentxeak ere Kanarietan<sup>41</sup>. Herriak parte hartzen du errogatiban, baina talde bakoitzak bere erara. Otoitza *Gurenari* egin deia da, eskakizuna: euria, udako errogatibetan izaten zen lez. *Anzar*<sup>42</sup> izena "zeru zahar" da Sumerieraz eta "euri" guentxeraz. Otoitzean legortea emenda dezala eskatzen zaio: "*Ademem Aqqoran, awid anzar!*" / *At+emenda Gurena*<sup>43</sup>, *bialdu euria*".

Nesken taldean hiru gauza dira ohartzekoak: sua, ura eta matxinsaltoa, mezulari bezala. Argizari isiotua, opariak eskeintzeko aldaretxo halako batean jartzen du, abadetza egiten duen neskak. Jarraian uxuila bete ur ixurtzen du burutik bera, oinutzik errakastoan sartzen da eta ur gaintetik doan matxinsaltoa jasoaz, eskuetan harturik, mezulariarena egin dezan, egaz jaregiten du<sup>44</sup>.

41 *Guentxeak Etxagoienekoak* dira, hagatik bizi dira *kana>gana Kanari-asen*. Badute euskaldunekin politikaz harremanen bat, baina ostaz kultur arloko ezer sakonik. Berdintzu gertatzen da iberiar kulturekin ere.

42 *Anzar, amazig* "euri", *Anshar*<sup>43</sup> "zeru zahar" Sumerren edo bere iragarle den *antzar>ansar* euskeraz/gaztalaniaz, zeru altutiko egada duen egaztia. Bada *Pantzar* deituko nortasun bat Ustarizko Inotean. *Pantzar, anzar* baitua da.

43 *At+emen de mendu/ emendatu>emendar*, *Aguren/ Guren* "ekurreko santua, *ekur* gehiengo kasuan, *Korona, Qorn* bezala.

44 Gure soroetako mezularia *matxin gorringo* zan. Ume bat zan ararte->



Neska abadesa batzuk, nahiko izkutuka, hala jardun izan dute errogatibagintzan, baina maiz "sorgin" buru egiten zituela kristau eta islamiar erlijinoek (*Anzar, ww*).

Emakumea *ama eskolako* ume eta jarrailea da berez, eta edozein seme-alabak bezala, ez du inoren esku beharrik Ama edo Aita Jainkoarekin adeitasunez jarduteko.

#### IV. SAHARA, KULTUREN AURRESKOLA

##### 4.1. Sumeriar kulturaren aurrelari


*Ama eskola* deitzen diogu Neolitos helduko Saharan sortu zan kulturari (Ikus bere seinuetako bat 25 or.) Bera izan zan benetako aurreaskola, gero eztalakoan, goizetik gabera, Sumerren, eta naiko hurrago, Egipton bertan, nabaritu ziren kulturen aurrelari. Legorte handiak etorri zireneko, amak buru eta soinez ondo jantzita bidaldu zituan bere umeak munduan zehar (Ikus 55 or. mapan). Eskola bereko herri sakabanatuak gero berera burutuko zuten hasierako asmoa.

Sumeriar "buru beltzak" Saharatik urten zutenean, *Ibargar*<sup>1</sup> ibaia agortean zegoen eta berak ornitzen zuen barne itxasoa, gaur Chad lakua bezala, eta inguruko gendea *Abai* erre kara adi edo Niger Beera abian bizi bidea bilaka. "Buru beltzak" ezagutzen zuten *Abai*<sup>(et)</sup>/*Ibai*<sup>(eus)</sup>>*Api*<sup>(k)</sup> errekaldeko gendea, *Tigray*<*ate garaiko*, iturrien berri entzutetik zekiten, euren aldameneko gendea haruntza abiatua bai-zen zati bat lehenago. Mendi arroksuaren oinetan gelditu ziran abereak baskatu eta atsedena hartzeko. Urrengo egunetan, mendia inguratzean, erreka handiago bat idoro zuten bidean. Ustezko ibaia, itxas adarra zan, uin gaziak baitzitan. Aizkorak hartu eta zuaitzekin uretako ontziak egin zituz-

>ko egokiena: eskuetan matxingorringo hartu eta leloa xurxulatzen zion: "Matxin-Matxin Gorringo, zoaz zerura ta esaiozu Jangoikoari denpora ona e(g)iteko." Holantxe egin dugu umetan. "*Ademmem Aqqoran*, kantatuari dagokionez, gonbara daiteke "Aita zer egin duzu" Labegeriren kanta musikatzeara duzu, antzeko edo elkarrenak direla konturatzeko.

1 Mendiak *Gory Agar* eta ibaia *Ibargar* deitzeko, Saharan euskara, edo euskararen antzeko hizkuntza zan nagusi, ez bai gabe eta euskal familiko gendea >

*Eskumatik ezkerre:* **Maat** aginte makila eskuan duela. Bera zan Egipton jakinduria, zuzena eta ordena, "amak esan du" araukoa. Bere ezkerrean *ank* > *aingura* > *áncora*, bizitza eta salbaidete seinua, "bere esanak egitea, piramideak baino obeto gordetzen du bizia" (*Merikare*). Buruan doitasun luma daroa. **Renenet** andereiñoa amaren *eskolan* buruan *Erraren* sugeñoa daroa eta eskuman *Ma.at*-en makila "makilak eta zuzenketak jakinduria sortzen du, baina lotzagabeak ama lotzarazten". (Prov.29,15) Izenari begira, *Renenet* > *errientza* > *regenta* dakar eta *Ma.at*-en seme *Erraren* erregimena adierazten du.



ten, urak gaintzeko. Han aurkitu zuten itxasoaren *ate+men* den *ate* > *Aden* Sortzaldeko itxasoaren aurrean. Han ez zegoen ur gozorik, aurrera jo behar zuten Arabia inguratuz. Horrela, musuz musu, itxasoaren bestaldeko orue ikusi eta *Ormuz* deitu zioten. Han urak gozoagoak ziran eta atzerriratuen salmoa errepikatatu zuten otoitzean "Belariz ugarotzen denari, Utuk bortu zihurra prestatzen dio"<sup>2</sup>. Eta *Buranu/Eufrate* ibaiaren nasara eldu ziran. Hantxe, ibaiaren eskuman, etxea jaso zuten eta *Ubaide* deitu zioten eta hantxe aurkitu zuten arkeologoek geroago baten Ama Jainko Sortzailea aitortzen duen oltzoa, *Ama. utu. an. ki* dinona<sup>3</sup>.

Sumeriar "buru beltzak" (hala deitzen zioten euren buruari) *Eufrate* < *Ibarratea* ugaro zuten eta ibaiaren ezkerrekoa etxegintzarako egokiago eta baratzerako aratzago zela ikusirik, hantxe jaso zuten *Ur uria*<sup>4</sup> eta *orutu* zuten, lurra *ortu* egiteko.

>handik mundu zabalera abiatu zena. Hizkuntza ondo dolatua, edukina minki gorde zezan, eta jainko eta gizakien arteko ulerbidea zehatza izan zedin.

2 *Proverbios de la Colección sumeria I*, 86, DB. 26. Cf: *Utu*<sup>(6)</sup> euskeraz "iduski" *Uturen* kasta. Nolatan gorde ahal izan duen euskarak jainko sendi horren izena!

3 H. LIMET, *Cosmogonía (sumero-acadia)*, DR, pag. 343.

4 *Ur* "hur, gertu", *uritu* "hurreratu", esia *urez* egiten denean, bestela *bildu* esaten da eta hortik dator *billa* > *villa*. Ura edo erreka, jainko ordezkari zuten >

Barazkiak landatu zituzten; berroa, porrua, naboa, arbia, etab., eta *garia* erein, *garauna*>*grano* uztatzeko, jainkoei eskeintzeko *una* eta *anoa*, garagarra, barriz jaietan eta jainkoekin *ekura* santutegian dastatzeko edakiari. Hagaitik zerbeza onenari *kurunu*>*corona* deitzen zioten.

Eufrate ibar atetik *ate garai*>*Tigris* alderaino urbidea egiteko, karkaba ideki zuten arteko urien alkarterako eta arerioen erasoen eta pistien aurkako esi bezala eta uriguneen garbiketarako.

Hizkuntzari agiria emateko idazkera asmatu zuten; taula buztin-duetan ziriaz zulaka idazten zuten “ziri-eratako” *kuneiforme* deitua, taulen *eduko eduba*<sup>(6)</sup> ama eskola antolatu zuten, *Ninsaba* jainkosa-ren babespean, berari omen egiten ziotela eskola amaieratan.

Sumertarren herriari Bit Yakin “jakintza etxea” deitzen zioten, Enki jauna<sup>5</sup> zelako uren antolatzailea, An jainkoaren agintepean (Ikus 27 or.) Geroago baten aldameneko maurtutik sartu ziren etorkinen buru Martu laborariak “iduski marra” Tu+marra>Sumer, deitu zion<sup>6</sup>.

Herrian hizkeldi bikotxa egiten zan, bata *eme.sal* zeritsona, otoitz eta salmoetarakoa, eta bestea *eme-sal*, merkaturakoa, sumeriarren eta akadiarren elkarterakoa agian. Sumeriera Kaukasotik Idumea alderaino zabaldu zan Ifar-Ego bidetan eta Indo mugetatik Bosforo alderaino Aste-Oste gurutzatzean. Sumeriera burutu zan otoitzen eta salmoen hizkuntza eta, herri mailan galdu eta gero ere, bi mila urtetan iraun zuan Sortzalde Erdian, jainkoekin berbetako edo errito erakarmen berezia zuelakotan<sup>7</sup>.

Neosumeriak berbizte bezalako aldia izan zuan ehun urtez, eta kultura zabalkuntzan ahaleginez, jakintza eta erlijino libu->

>eta auzi larrietan bera jarten zuten epai *ordele*: erruduna jainko ibaira bota eta berak ebatz zezala. Bizirik urteten ba zuan, errugabe, itotzen bazan, errudun. *Ordele*>*ordalia* dator eta Europako Erdi Haroan borroka bidez egiten zan. Baina *ordalia* hitza nondik datorren jakin, bakarrik euskarak dakike.

5 *Yau(n) Enki*>*Yakin*, *emqi*<sup>(6)</sup> “*jakin/ jakintsu*” esateko.

6 *Marra*>*mare*<sup>(7)</sup> “*mar*” dator eta *maurtu*>*mortu*.

7 Gauza berdina gertatu zan elizako latinarekin: Herriak ez zekian eta harago, herri hizkuntzaren etzai izan zen latinez entzuten gendun Ebangeloa eta Meza santua. Latinak santutzen al zuan Meza? Frankok gaztelaniara behartu nahi gintuen. Gure liturgizuna euskeraz egin ahal izatea garaipen handia izan zan.





Nepal Katmandu/Katamendi uriburuan, umeen amek eta andereñoek ama eskola antolatzen dute Saraswati Ama Jainkoaren eleizpean. Kasten bereizgarri den induismoa ez da ama eskolaz arduratzen eta aduaren eskuetan uzten ditu herri arazo asko, eta Saraswati berari ere eskuetan kitara handia jartzen diote dantzarako-edo jotzen bailihardun, baina ama umeen eskolaz ere arduratzen da.

ruak idatziaz. Sumeriologia jakintza arqueologoen oinarrizko ahaleginetik sortu zan, eta hizkuntzalarien uste asko usteltzat jotzen ditu, hala nola XVIII-ko indoeuropeismoa, Iruña Veleiako ostrakek ere baskongadismoa usteltzat ematen duten bezala.

#### **4.2. Egiptoko kulturaren jatorria**

Egipto Goiko aldean hasi zan, azken ur zurrusta inguruan, beti ere Nilo ibaian behera, Deltaraino ugarotzeko prestu. Baradisu Galdu batetik etozan, Libia baino arutzagotik, Eguzkia osten den toki santutik, eta kondairak aipatzen duten Lehen Herritik, han *Amenti mendietan*, (Ikus 37 or.), zorioneko Amaren Etxean. Antxinako egiptiarrek Lehen Herri aretan egiten zuten amets. Harako yoranak osatu zuan euren teologia.

Menes erregearen garaian, Egipto Goi-Beheak alkartu aurretik, Egipto Goian, hilak Nilo Ibaiaren egaletako mortuan ehorzten ziran biziengandik aparte, eta Egipto Behean, ostera, bizien etxadien

inguruan lurperatzen ziran, eta maiz etheen oinarriko lurrean, ama eskolako, sumeriar eta mikeniar herrien artean bezala eta, zer esanik ez, euskaldunen artean<sup>8</sup>.

Menes faraoiak eraiki zuan lehen piramidea Egipto Behean, han ez zegoelako *Qorn* bezalako mendirik (Ikus 43 or.) eta Sakara<sup>9</sup> izena ezarri zion, Ostaldeko zorion etxearen gogoangarrirako.

*Ma.at* Ama Jainkoa zan Egipton, eta Munduan egia eta zuzenbidea (Ikus 15 or.). *Ma.at* izenean *Ama+Aita* irakurten dugu eta *maite* dator, *amata* latinez, *amada* gaztelaniaz. *añu+utu* dira bere arketipoak, "zeru+iduski" bere sinboloak begien aurrean. (Ikus 18 or.)

Egiptok bere ama eskolako maisutzat hartu zuan eta haren eskuetan ezarri *matoa*>*mazo* eta *mandatua*>*mando*: *masu*<sup>(k)</sup>=*maisu*>*maesa*<sup>(gaz)</sup>, geroago *Moise* legelariak eta *Ra+mose*, faraoiak eurentzat hartu zuten izena bera.

### 4.3. Asia aldeko kulturak

*Asia*<*asi*, handik *asten* da argia sortzen zeruetan, hagaitik da *Ast*<sup>(v)</sup>. Sumeriako kulturak ere haruntz egin zuen bidea argi bila. Lenengo Elam, behin bere aurkalaria eta gero, bere bultzagilea. Ama eskoladun gendeak, jarraian Indo ibarraldera jo zuan, itxasoz Egotik eta Kabul ibarretik Ifarrez, horrexek ziran Nepal eta Tibet aldean kokatzen diren *Ekur/Koro*-rako bideak. Tokizenak ere ezagun egiten zaizkigu: *Caracchi/Karasa* Egoan, *Cashmir/Kasamuru* mendi *murrue*kiko topagunean edo mendien bestaldeko *Pamir/Murupe* ordekan. Bien artean dugu *Karakorum* "garako koru une" argia, gure mendigoizaleek hain maite dutena, haren oinetako *Baltistan* bailaran *buruxaki*<sup>10</sup> ama hizkun-

8 Amak bakarrik asmatu zegiken halako ohitura eta, hain zuzen ere, ama izaten zan hileta hoiien gidari, hots, etxe *andera* erritoko arketipoz etxeko *santera* izendatu. Gero, kristau elizetan ehorzten ziran. (J.M. BARANDIARÁN, *Mitología vasca*, pag. 61ss, Ed. Txertoa (1979), San Sebastián) Cf: Geuk ikusi ahal izan ditugu illobietako azken olak eta argizaiolak, hilotzak kanpo santura aldatu arte.

9 *Etxe garatu*>*Sakara*>*Sahara* dator eta, analogiaz batez, *sachara*<sup>(v)</sup> "gozo" eta *sacra*<sup>(v)</sup> "santu" eta Anbotoko Marik bere bizitariei opa zien xurruta *sakaratu*>*sagardo* basoa bezala.

10 Gure mendigoizale, Iñurrategi anaiek, herri harekin zaletu ziran eta Al->





**Kwan Yin**, Txinako *Ama Jainkoa amatigo* berezia erakusten. Bere santutegi beheinena Beginen dago eta beste kapera batzuk inguruan, berak denen eskariak entzun behar dituelako. Amaren samurtasuna da, norberegana bildua, bizitzaren misterioa ausnartzen erakusten digu. Ohartzekoa da silbor estearen sinboloa eta Tao-ren filosofia baino zaharragoa izatea. Bere mantrak entzun eta ikustea teologia garbia da. Ameriketara doazen txinarrak kaperatxoak eraikitzen dizkiote *Kwan Yin* Ama Jainkoari, katolikoak Andre Mariari bezala. *Kwan Yin* Ama Jainkoaren irudia ikustea baino ez dago erlijioaren benetasuna, herriaren fedea, ezagutzeko eta Indiako artearekin gonbaratuz gero, fede zintzoa azalkeiatik bereizteko, edo dekadente pasakorra zer den igarteko...

tzako gende ezaguna aurkitzen dira. Mendi bideari jarraiki, *Nepal/Ballain* "bailaran goiena" jotzen dugu eta Saraswati (Ikus bere eskola 21, 63 or.) Ama Jainko maesarekin topo egiten dugu. Han pizarriak Ama Jainkoaren eleizpeko ormak dira eta gramatikako ariketak, Jainkoari egin otoiak. Halantxe deitzen ziran, izan ere, gure egunetara arte<sup>14</sup>, ama eskolaren arerioak harrotuz, Gramatika eskola barriko iraultza egin zuteino.

Nut/Ma.at, giza bizia sortu zuen Ama Jainkoa, giza heriotzaz ere arduratzen da Indian, Ma.Kali Ama Jainkoaren izenean, Gilgames, akadiar erregea, Inanna, maite Jainkoaz izekatzen den

>bertok, Felix zenaren oroitzapenez, eta Mondragoi Unibertsidadearen babesean *burushaki* hizkuntzako *ama eskola* ideki zuan, bertako andereiñoen ardura-pean. *Burushaki* hau euskararen lehengusuetarikoa bai-da, hain zuzen.

14 Gramatikako ereduak otoiak "oraciones gramaticales" ziran, hizkuntzak eta teologiak bat egiten zutelako *oro/orro* "otoi, *orro*" edo, umeak amari lez, *ma-rruz* egiten dion bezala eta *Or<sup>(k)</sup>>Orzi* eradura. Estructuralismoak hitz biziaz harri koskor egin zuan, hizkuntza "mito bizia" (Jung) ukatzearen, hots, hitzen amatiar mezuari ezentzuna, gorrarena, egitearren (Nietsche).



artean eta zer dela-ta? Bere maitaleak hilezkor egin ez dituela-ta<sup>15</sup>. Ma Kali<sup>16</sup>, erioaren Ama Jainkoa, bere seme-alaben eriotzaz, edozein ama bezala, kupitzen da eta hil zorian dagoenez arduratzen.

Indiako arioek, Brama jainkoaren erlijinora behartu zituzten mendekoak eta ama eskola ahienatu, sanshkrito deitu hizkuntzan idatzi zituzten euren liburu sakratuek. Ama eskolako jendeak Ego alderantz bultzatu zituzten: adibasiak, orixak, tamilak, etab. eta hoiek bai, amaren eskola hizkuntza zaintzen dute gaurko Indian, sanshkritorik, ordea, inortxok ere ez du egiten, baina Brama jainko sortzailearen buruek agintean irauten dute. Ze erlijino da berau gero? Amatar sorkuntzaren aurkakoa, hain zuzen: Amatu ezinik, amakatu egiten dutenetarikoa. Brama euren jainkoak kasta ez berdineko gizakia sortzen omen zuan: burutik, herri gidariak, sorbaldeetatik, gudari eta apaizak, eta oinetatik, morroi eta mirabeak...

XVIII gizaldian ingelesak kolonizatu zuten India. Kolonizatzailea kolonizatzea, lan eskerga. Hobe eurekin bat egin eta ingelesek eta beste jakintsuek indoeuropeismoa<sup>17</sup> aldarrikatu zuten hizkuntzen jatorri bezala, euskera, barriz, amak ere ulertzen ez zuentzat...

Ama eskola galdu duena, umezurtz gelditu da jakinduria arloan. Oraintxe omen da turistei euskal mitologia erakusteko une aproposa, euskera bera mito bizitzat hartuez gero, bai, ez ipuina mitoez izkutatzeko jokera galgarriaz, hots, euskeraz euskañol egitekoz.<sup>18</sup>

15 *Gilgamés, VI, I, ss.*

16 *Ma Kali/Ama Kali* "ama erio". *Kali* esaten da euskaraz ere pisti batzuren heriotzaz. Izan ere, *Kali* ka-+il arketipoez osatzen da. Ama Teresa Kalkutako santia hil agineko gaisoak kale gorrian jasotzen zituan, eta ezertan arduratzen ez zen herri agintariékana jo eta harek babesteko, aterpe bat eskatu zien. Ama Kaliren tenploa eskeini zioten: harrigarria, Ama Teresa santia Ma Kaliren tenpluan.

17 "Indoeuropeismoa, XVIII gizaldiko asmakeria da, mediterranean alderdiak XV-XVI izan zuen Ernazimendu halako ohorea Europa Erdiko indogermaniarrei ematearren" (Giovanni Semerano). Herriak eta herriak gainetik igaro zituzten Indogermaniarrek ulertuko al dute euskal mitorik? Zelan ulertuko euskerari galdetu ezik? Zeñek erakutsiko, euskera barik? Edo Nyland-ek "hizkuntza iheskor-tzat" jotzen ditu frantxesa eta ingelesea, soinu eta grafiaren artean egiten duten burrukagaitik. Elkar ulertzea da arazoa, ala batak besteari isileakoa izkutatzea?

18 "*Kuan Yin* Ama Jainkoak Gizadi osoari dei egiten dio, Biziaren Sua jago-ten lagun dioezaion munduan Kristalezko Errosarioaren bitartez eta kristau>



**Amaterasu** Ama Jainkoaren irudi disdiratsua Japonen, Sortzaldeko eguzkia bailitzan, jainko arerioek espetxeratu zuten kobatik urten ainean mundu berriaz arduratu eta itxaropen aurrezkiaz bereak argituz, gozarazten...

#### 4.4. Sortzalde bazterreko kulturak

Kultur zabalkundearen bideari jarraiki, eguzkiaren *East*<Aste aldera jo dugu, berdin setaren goiko bidetik, Pamir-tik zehar, *Amur*<*am-ur* “ur handia” ugaroz edo *Tibet/Atabeiti* “beko atetik” *Amarillo*<*am-+uriol* ibaira jatxiz, gure santutegietako izena topatzen dugu osterara ere: *Korea/Ekur/Coro* izen honetako peninsulan. Amur bidetik izatekotan, berriz, Sajalin isla topatzen dugu Asiarekin pasadizo luzea egiten duela, *Tartari* izeneko *tartean* eta, *Tartessi* “tarteko esia”, Mediterraneo atean bezala, Japongo Itxas atean esi halakoa egiten duena eta Eurasiako *East*<sup>(i)</sup><Aste eta *West*<sup>(i)</sup><Oste orografiaz eta izenez berdintzen dituen, eta falta ez zeitekena, euskararen *armonikak*<*ar+emon* ama eskolako euskerarekin, Txinako mandarin, korearra edo Japongo Hokkaido eta Okinawa isletako *ainu* hizkuntzarekin batean.

Harrigarria egin zitzaidan Erruki Handiaren Ama Jainkoa *Kwan Yin* irudian (Ikus 65 or.) aurkitzean. Bere mezua Tao filosofia baino zaharragoa da. “[Tao] aitarik gabeko ama da, jatorri utsa, indar aurkakoen aurretikoa. Tao sakonean kosmo amaren oroitzapena dago,

> kutsua duen deia egiten du:”Erein itzatzue Bihotz Errukiordun haziak, elkar eramán ahal izan izateko”[...] “Orban gabeko Bihotza, Jakinduria”. (*Kwan Yin*, w).

burubideko bereizketa guztien aintzinean, geroztiko azalpen eta oreka guztien aurretik dagoen Norbait<sup>19</sup>. “[Tao] jatorriz Ama da, harnartean ez dago Aitarik. Hagaitik gure burubidetan (eta erlijinoan) egin beharreko ariketa behinena, bereizketa guztien aurreko iturburu eta zentzunera heltzea da”<sup>20</sup>. Ikuskizun honek ama mendea dakus jakinduria guztien iturritzat, ama delako bizitzako lehen eskarmendua, berarenak, beraz, herrien erlijinoa, kultura, hizkuntza, giza bihurrikeriak, amaren babesba jaregiteko, asmatu baino lehenagokoa.

Azterbide hau Unamunok euskaldunez uste zuenaz bat dator: “oseguro que tendréis que oírle, sobre todo si descubre su hondo sentimiento de la vida: su religión propia”<sup>21</sup>.

#### 4.5. *Amaterasu disdiratsu Japonen*

“Jainko bideari” jarraituz, *Sinto*<sup>22</sup> aurkitzen dugu Japonen eta eurek hain maite duten Amaterasu Ama Jainkoa, Asteko eguzkia apaindua. (Ver pag. 67) Izenez *Ama+Atiratu* gogoratzen digu Ilu Jainkoaren aholkaria Ugariten. *Amaterasu* izenak *Anatu*, Kanaango maite jainkoaren arketipoak ere zaintzen ditu edo, forma zaharra-goetan, *NuT/AnTu* Ama Jainkoarenak Egipton eta Sumerren.

“Amaterasu jaio zenean -dino Japongo mitoak- haren disdira handikoa zenez, bere gurasoek zerura bihaldu omen zuten lurrekoeri argi egin zezaien. Jainko batzuk ziriz jazarri zioten ordea<sup>23</sup>.

Orduan bera koba baten izkutatu zan. Atakan jarri zioten izpilu bateri ezker, halaere, aldien gauean argi egiteko duen eginkizuna gogoratzen du (*ww. Amaterasu*). Mito harrigarri honek, Apokali->

19 XABIER PIKAZA, *Las grandes religiones, historia y actualidad*, or. 215-216, Ed. Témpera, (2003) Salamanca.

20 *Ibidem*, pag. 217.

21 (UNAMUNO, *Alma vasca* (1902) o.c. III, 1263)

22 Jainkoen bidea indatik doa (*inda* “goiko bidea” da euskaraz) >*Indo/India* eta Nepaleko Koru-raino heltzen da. (indoeuropeitek ba dakite orain *India/Indo* izenen jatorria, sanskritora joan barik) *Indo* erritozko santutasun seinutzat *As-* aurrizki duela, >*Sinto* dator, japonarren erlijioa. Bestalde, *zindo* “benetako, *zintzo*” <*sin+-tu* “sinez erabakia hartu duena”.

23 Betiko matxismoaren jokua dager hortxe, hots, gizartean jasotzen dena, jainkoengan ezarria. Iluntzean izkututzen dena, eguna astean agertzen.





**Amaterasu** japoniar, **Tonantzin** mexikar eta **Gaudalupeko Ama** bata baino bestea disditsuago Mundu Zahar eta Berriaren artean zubiginen. Euren zeregina: argi egin, hezi, errukitu, egia maite izan dadin, bakean bizi ahal izateko, maitatzeko

psiko emakumearena gogarazten digu: “Emakume bat eguzkiz jantzi eta umea erdi aginean” (Apoc. 12:1) eta, Erraren arerio antzeko, Erensugea<sup>22</sup> haren jasarrarian, semea jaioala, irensteko asmoz. Emakumeak mortura ihes egin zuan eta han egon zan aldi baten. (Apoc 12:6) [...] Orduan “semea edatu zuan, herrien errege izango dena”.(Ibi) Harrokeriazko hitzak esateko eta gaizki berba egiteko ahalmena eman zitzaion Sugeari”(Apoc. 1 3:5)<sup>23</sup>.

Ba dago halako antzik Apokalipsiko Erensuge eta Amaterasu Amaren aurka jarki ziren jainko matxista hoiengan. Jainko matxista deituko diogu, Ama Jainkoa iruditan ere onartzen ez duena-

22 *Enuma elish, I, 1ss* dager *P.SU* eta *SU.AP<BUSU/SUBE* “el Pozo y la Serpiente” arbasoen arteko lera. Sube horren Enki/Ea semeak, aitaren maila igoteko lehiaz *SU.AP* erail omen zuan, lotan zegoela, *AP.SU/Bu.Su>botxo/boche>puzu>* “pozo”, emaztea, alargun usten zuela.

23 Emakumearen aurkako burrukak, *ama* eskolaren aurkako tirria ere sortu zuan: “Se le dio una boca que hablaba palabras arrogantes y blasfemas” esaten duenean, *blasfemar* “gaizki esan, txarto hitz egin” esan nahi du. Hori egin zuten, amaren aholkua uler ez zezaten haren seme-alabek. Hori da guda mutilen betiko amarrua: eraso behar dutena lehenengo gaizki esanaz itxurgatu, gaiztotzat jo, gero eurak herriaren salbatzaile agertzeko.

*La teología indígena:* Fuimos pasando de una pastoral indígena a una teología indígena, sin abandonar la pastoral. Eleazar llevó adelante este proceso, enfatizando el aspecto religioso de los mitos y de los orígenes. En Brasil los indígenas son minorías, por eso nuestro trabajo pastoral y nuestra reflexión se ha orientado en torno a su defensa. Luego surgieron otros espacios de reflexión sobre la teología india. Pastoral y teología indígenas fueron intentos para descolonizar el trabajo misionero. Entonces fue creciendo el interés, aunque con diverso énfasis en cada país.[...] En la teología india se reconoce la alteridad, su tierra y sus problemas. Por eso esta teología reconoce su pasado milenario y su mundo religioso, en lugar de imponerse como se hizo en el pasado. Por la inculturación asumimos que somos diferentes dentro de nuestra catolicidad. Más aún, se podría decir, que la universalidad se entiende dentro de la diversidad y no desde la uniformidad que, en último término, acabaría siendo otra forma de colonización. No podemos repetir el error del pasado, cuando se reunificaron 400 lenguas bajo un único lenguaje general<sup>24</sup>. Necesitamos diversificar los ministerios y la liturgia misma. En esto ayuda la teología india. (PAULO SUESS, *Vida Nueva*, pag. 42-43, Junio, 26, 2015)

ni. Ikusi egin behar katolikoaren edo apaizgoaren Jainkoa halakoa ote den. Dena dela, gaurko misiolariiek noranahi ebangelizatzeraz doazen, bertan aurkitzen dutela Jainko Espirituaren hazikina. Kwan Yin eta Amaterasu, aipatuko nituzke, adibidez. Izan ere, gaurko misiolaria ez doa, erregearen laguntzaz, inoren lurraldeaz jabetu eta inoren kultura kolonizatzeraz<sup>24</sup>. Hagaitik, herri mailako fedean, etorkizuneko misinoa erraztuko duen halako errepikak aurkitzen dira. Jainko Espiritu Bakararak nahi duen orduan eta tokian ufatzen baidu askatasun aire bizigarria.



Pachamama-ren irudia, Bolibian

24 Gugerat, Indian, hogeitau urte egin zituen jesuita euskaldun bateri galdetu zioten behin: "Zer erakutzi duzu Gujeraten?" -"Nik erakutzi ez gauza asko, ikasi bai, osteraz, eroapena izaten, baztergoa jasaten, urkoari laguntzen eta ekinean aldi hobeak itxaroten"...(Alboan, w)





**Nunkui** eta **Caa Yari** Ama Jainkoaren irudiak Amazonas eta Paragwayko basoan, beti ere bere lekuko den emakumearekin. Amak, hako Nut Amak bezala, familia sortzen du eta egunero prestatzen du jan-edakien katilu bete, denetan bere seme-alaben bizi askatasun eta etorkizunari sor diola...

#### 4.6. Ama Jainkoa eta Amerindiako kulturak

Korea santutegitik haratago, *Kurile* isolak igaroz, *Canchatka/Kandiaga* muturra ere soinu ezagun egiten zaigu eta Aleuti-anak zeharkatuz, dene-kaukasiar<sup>25</sup> gendeak aurkitu ditugu *Alaska/ Eskala* eta *Arrokatsu>Rokizos*<sup>26</sup> mendietan edo jarraiko ordeketan *Nabako* jendea, *navajos* deituak, eta *atx* igatu edo *apal* moztuetako *apalatxeak*.

Nabajo eta hopiak eurek ere mundua ehundu zuen asama *Amaru Amona* Jainkoa gogoratzen dute. Jainko izen honek Sumerreko *Nammu*<sup>(s)</sup>/*amuma* gogoratzen digu edo *Num*<sup>(k)</sup> "asierako itxasoa" Egipton. Baina bizitzaren ehunlari denetik, Eskandinabiako *Nornen* mitologiara bidaltzen gaitu, eta lurren bira osatuz, Urd, Berdante eta Skuld ezagutzera gonbidatzen. *Nortzu* diren *Nornak*? Ba, hor

25 Dene-kaukasiar, edo sino-kaukasiar deitu hizkuntzak, Sapir hizkuntzalararen gardiz, familia handia osatzen duten hizkerak dira: sino-tibetanak, iparreko kaukasiarrak, yenistarrak, eta *euskera*, atabaskarrak, etab. Horrek dira Sapirren gardiz, *na-dene* hizkuntzak. Harrigarria, euskera ere artean aurkitzea.

26 *Ekur>arroka>Roquizos* dator itzulian, *Urrika*, *Urko*, *Urkiola*, *Mari+urrika* Anbotokoa bezala.



zegen, ba, koxka. Hizkirimiria zirudin. Hiru atso arilka, bizia ehunten, ehun eta ehun biziaren Ygdrassil zugaitz sakratuaren oinetan, zugaitz sustraien artean kukurio biziaren arerio<sup>27</sup>, Eren-sugea dagoela. Nornak *Urdar* izeneko *urdatik ura* atera eta bizi zugaitza *urstatzen* dute, hots, linozko berdura *urdutzen*>*urden*<sup>(gaz)</sup>.

Anahuac ordekako mexikar jendeek Ama Jainkoaren oroitzape-na gordetzen dute. “En este lugar [de Tepeyac, un cerro cercano a la ciudad de México] tenían un templo dedicado a la madre de los dioses, que ellos llaman Tonantzin, que quiere decir “nuestra madre”<sup>28</sup>...

Antza denez, kolonizatzaileek, Ama Jainkoarenganako jaiera hori Andre Mariarekikoaz trukatu nahi izan zuten eta Tonantzin hori “Virgen de Guadalupe” izan zedila. Ez da legezkoa. Kulturaren ezjakinak ezin dezake inongan Ebangelioa kulturatu. Uste dut gauza berdintsua jaso zela Efeso-ko Kontzilioan (431) Kristoren ama Andre Mariari Isis Ama Jainkoaren *teotokos*<sup>(g)</sup> titulo bera “jainkoaren ama” eman ziotenean. Mediterranean aldeko herrietan oso errotua zen Isis-ganako jaiera. Elizako misoginoek “paganotzat” jo zuten eta sorgindu, deabrutu errotik ahienatzekotan<sup>30</sup>.

Gizonkeriak kalte handia egin zion ama mendeko *ama eskolari*, Jainko Amaren irudia eta izena bera ere ahienatzeraino, hatan ere.

Dena “Jainko Aita”, eta tituluz beti “Jaun”, *Andre* aitatu ere ez,

27 Itzulitara irakurriez gero, *Ygd+rassil/lissar* idra “erensuge” dator. Hor aztertu lizarrak euskal mitologian duen sarrada. *Nornen* mitoa ez da ehun-larien artea baino zaharragoa, baina argi gelditzen da bere jaiotzan euskara izan zuela amabitxi, zuhaitza, putsua ezeze, *ur/urdu/urdu*>*urdir* andana izendatzean ezeze, *Verdante/berdura* “linozko ehuna”, *Skuld/eskolda* “ehungintzako trama” gaiak eta teknika adieraztean. Beraz, *nor nas?* Mito honek jatorriz norbegiarren neba-arreba egin gaitu euskaldunok, edo alderantziz.

28 B. de Sahagún, *Historia general de las cosas de la Nueva España*, 1540-1585)

29 Efesoko Kontzilioan Zirilok Andre Mariaren “Jainko Ama” titulua aldeztu zean Nestorioren aurka. “Autore batzuren ustez, Ama Jainkoaganko jaiera izan omen zan kristauek Andre Mariari dioten jaiaren jatorria, haren irudi beltzen estimuak eta adierazten dutenez. (HUYNEN, JEAN. *El enigma de las vírgenes negras*).

30 “Pagano” “baserritar, baserriko” esan nahi du, analogiaz, “atzeratu, ezjakin, erratu”. Baserritar garenok dakigu... Ba daiteke *ama eskola* baserrian, kalean baino, biziagoa izatea, euskera bera izan denez. Eliza ofiziala, osteria, urian nausitzen zan eta hango edukia ezarri nahi izaten zan baserrian, jauntxokeriak beti egin duenez.



*Ptah*<batu>*Bata* (Ikus 52 or.) jainkoak batu zituan Egiptoko jainko guztiak eta euren ahalmenak. Ama Jainkoaren seinu guztiak eskuan ditu: *menat* idunekoa, *uas zotza*, *Dyed* zutoina, *Anj* aingura eta *Ma.at* Ama Jainkoaren seinuetan oinpekoa. Hala erabagi zuten Menfisko abadeek eta hala iraun zuan Menfis Egiptoko uriburu izan zaino. Euskaldunek ere “Bat, bi” kontatzen eta Jainkoa Bat era bera nahikoa” esaten ikasi gendun: amaren mendea ahienatu zenekoa zan eta aitaren nagusitza aitatu zenekoa. Egipton Deltako eritziak>eresiak 500 urte iraun zuan, Tebas uriak *Amon Ra* eta *Mut/Nut* (Ikus 59 or.) jainko parekideen aren nagusitza berreskuratu zueino...

eta aipatzekotan, “gizon” adierazteko, Grezian jaso zenez. Harazgero, Elizak ere ez du onartzen emaztekirik apaizgorako eta baserriko den ekologia eta ama eskolako hizkuntza eta gizatasuna baztertu egin ditu.

#### 4.7. Andeetako kulturak eta “ama, belar ona”

Inkaen garai aurretiko kultura jatorrak Ama Jainkoaren gozame-na ezagutu zuan, hala *Nunkui* Ekuador mendian, baratzein arduratsua, eta *Caa Yari* Paraguay aldean, medikutzako belarkien iragarle azkar. (Ikus 71 or.)

Ande mendietako herritarrek, nahiz azkeneraino ama eskolako izan, ez ziran aske gelditu aitatiarren erasotik: inken estatuak mendiko jabetzaz gabetu eta Amazonako basora uxatu zituan eta han klima berriko baratze asmatu beharra izan zuten. Guzti horrek amaren eroapena berriztea eskatzen du, *Nuku*<sup>31</sup>, *shuar* jendearen Ama Jainkoaren eredura. Harexek erakutzi zien *shuarrei*, yukaren errabolez txitxa egotzen eta *Kaa Yari* Amak, berriz, mate bizkorgarria edaten. Antxinako *Ninhursag* Ama Jainkoak ere ba zekian bedarkiez eta edakiez nahiko eta haren alabak herrien osakidetzan ulertuak ziran, hala *Baba*>*Bau* sumeriarra, herriaren mediku maitea, edo eta euskararen jakinduria, *ama, belar ona* aitortzen diguna.

31 “Landare mardulak eta ehiza ona nahi izan ezkerro, *anents* “kantuz” omen-du bera, sorkuntza indarrak erakartzeko. Landareak sinboloz, *Nunkui* Ama Jainkoaren alabak, hala adirazten dute euretaraiko bakoitzak bere baratzean izkutatzen dituzten *nantar* harriak ere. (*Nunkui, w*). *Nainarriak ote?*





Grekoek babiloniarren jokera jarraitzen dute emakumearekiko harremon ankerrean: lehenengo indar eta teknika burru-kara deitzen diote, hurren trufaz menperatu, apalazo eta erail, Gero, gudakinak bailiran, **amazonamaquiak** bezala, harriar tailutu, Partenongo hormara jaso, denen irrigarri...

*Nunkui* eta *Caa Yari* Ama Jainkosek zubi egiten dute Sumerreko Dilmun Baradisuko hasikinekin<sup>32</sup>. Amazona eta Paraguayko jende jatorrak bere amatar fedea gorde ahal izan zuten inken erasotik, basoak bere magalean izkutatu zitulako .

#### 4.8. *Pachamama Jainkosa Inti Jainkoaren aurka*


Inken gudarosteak Inti "iduski", aitatiar jainko mendera erakarri gurean, aymara jendeak aurka urten zioten. Aymaren indarra euren antolaketa zehatzean eta jainkoen babezean zetzan<sup>33</sup>. Indarrean ezinez, jainkoekiko harremanetan hitzarmen batera etortzea erabagi zuten inkek 1463 eta 1493 urteetan, espagnol en sarrada aurretotik. Horrela, aymaren **Pachamama**<sup>33</sup> eta inken **Inti** Jainko kideak bakeak egin zituzten eta misiolari berriak fede zahar osoko idoro zituzten.

Aymara eta ketxuen arteko alkarteak Ama/Aita egitura indartzen zuan ketxuen artean eta aymaren Ama Jainkoa, batean bizi ahal izan zuan haren estatu batu zalean. Hogetamar urte geroago, kristau misiolariak Jainko bakarra, eta arra gainera, aldarrikatuko eben, ba-

<sup>32</sup> *Enki eta Ninhursag Poemak* zortzi landare osagarriren izenak dakartzki. Emaztekiak otoi egiten dio *Caa Yari* Amari: "Madre Agua: Gracias Madre de las Aguas por tus bendiciones, por los sentidos de nuestro cuerpo, por la vida en este Planeta. Gracias por recibir nuestras Ofrendas. Gracias, rio, cascada, manantial, océano, por este espacio sagrado donde se celebra la creación, Altar de Agua". (*Caa Yari, w*).

<sup>33</sup> WILSON GARCÍA MÉRICA, *Servicio Informativo Datos y Análisis\** (ALTERCON) Cf: Sumerren *Antu* "zeru+iduski=ama+aita" eta Andes aldean *Inti* "iduski" alargun. "Las mujeres conservan por más tiempo el antiguo lenguaje". (Platón, O. C. , ed. P. de Azcárate, t. 4, *Crátulo*, 430 Madrid 1871)





Asieran, nonbait, burruka gizonezkoen artean izan zan: semea aitaren aurka, gero semeak amaren aurka. Saldukeriaz, Suap, lotan zela, harakoan eta txalaparta otsean honakoan, *Babiloniar Poemak* kontatzen digun bezala: **Marduk**, arma ber ridun eta magia indartsuaz **Tiamat** Ama Jainko itxurgatuaren aurka...


ina ez, Andes aldeko *ayllus* “etxe bazkunari” amorerik eman gabe. Ama eskolako kultura, asieratik eta azkenera bere eginkizuna zehazten eta espirituzkoa egiten joan zan, asi Ma.at-engandik eta Pachamama-ganaino<sup>34</sup>. *Nut/Inti* arketipo bereko izen berdintsuok konponbidearen lekuko dira eta argia egiten dute mundu zabalean.

Amaren eta Aitaren alkartea NUT: aN+uTu/ iNTI “zeru+iduski”= “uin+su” dager arketipoetan. *Pachamama*-ri eskarian bere elementuokin hitz egin dezala eskatzen zaio eta gainera, **Ra** “aire” aizearekin, **iLu** “loi” lurrarekin, *ama eskolak* hizkuntza orokorra asmatzean, bateratu zituen sinboloekin, hain zuzen, jainkozkoak alde batetik eta gizatasunezkoak bestetik: **Ka** “korputz/gaia”, **Ba** “baita/barne” eta aS “arnase/espiritu”, erritoaren santutasun sinboloa denarekin<sup>35</sup>.

34 *Pachamama*-ri eskaria: “Querida pachamama, tú que reinas en el universo con la inteligencia del sano equilibrio, escucha a tus hijos, intercede por nosotros con los grandes vientos, habla con el agua, con el fuego y con la tierra. [...] Querida pachamama, me comprometo a limpiar mis pasos errados, mis equivocados pensamientos y desleales actitudes, me comprometo en beber del río sano, en curar mis hermanos los animales y proteger los bosques, hoy me comprometo a dar alimento al pobre y quien estira la mano”. A. QUISPE.

35 PAULO SUESS misiolariaren aitorta (Ikus 70 or.) irakurrita, kolonialismoaren morroiak ikusten ditugu, Bibliako Jainkoaren antzera, “etorri, jatxi gaitazan eta nastatu dezagun hor euren hizkuntza, batak bestearen berba uler ez dezan” (Has 11.7) indioen, ama eskolako hizkuntzak ahienatu beharrez, inguruko hizkuntzak ixildu guraz, denak batean oratzeko. Eta urragotik Frankoren “kurutzada-misiolaria” euskara debekatzen “menos Jaungoikoa y más Dios” gomendaten eta “hable usted cristiano” euskaraz zihardutenen aurka, zigor eta guztizko oharraz.

*Escarabeoa*, Amenofis III Faraoiaren seiluko aurre eta itzulia. *Esi/itxi* formatik *eskera* dator, errege mezua, *eskerape* igorria izan dadin. Hortik dator *escarabeoa*. *Kakarraldoak* mozorrotzen du *Erraldoa*>*eraldo*...



*scribere*<sup>(1)</sup> hitzaren *segeretu* bila, Esp. Dic.-k nasai dino *escribir* gaztelania latinetik datorrela, *escriba* bezala. Baina latinak ez daki, ez eta grekoak ere. Latinaren *escribiriak* handik eta hemendik hartzen zuten, norena zen galdetu barik. Amaren eskolako ez direnen jokera da: hemen lapurtu, han ukatu. Koptoak horretan zehatzagoak ziran, bai eta iberiarrak ere. Baina latinaren *eskribiriak* gudarien ekintzak goratzera zetozen eta *Iberia* errotik aldatzera. Horretarako ezpata zuten nahiko, ez zuten *eskarabeo* beharrik. Gainerakoei lurpea eta kito. Espainian, haraz gero, zenbat laino: “ezin *eskriba* zaiteien” dino Etxeparek. Orduan “idatzi” asmatu zuan Sabineek. Baina *isker*>*iskeriatu* ere bai, *eskribatzea* ahozko hitzaren *segeretua*>*sekretua sekretuki izkribuz* igortzea delako...

*Religión, experiencia materna:* Conforme a la visión de muchos antropólogos y psicólogos, como C.G, Jung (1872-1951) los grandes valores naturales nos preceden, pues nosotros no hemos podido crearlos de la nada, eso significa que ellos forman parte de una realidad más honda (la realidad en sí) que está en nuestro interior y que se expresa por nosotros, a lo largo de la historia. En este plano adquiere primacía el símbolo materno. Como viviente que surge de la madre naturaleza para tomar luego a ella, así emerge el humano de la Vida, de una Realidad originaria que le llama a la existencia y le acompaña mientras va existiendo. Mirada en esa perspectiva, la religión es un momento clave de la autorealización humana: es una afirmación de nuestro origen, garantía y sentido de aquello que somos, inmersos, como estamos dentro de la gran naturaleza. En la religión se refleja y despliega de forma consciente un tipo de energía psíquica primaria, un poder de vida del que provenimos y en el que reciben su sentido todos los otros poderes. Por eso, aquello que las religiones llaman Dios no es una gran cosa al otro lado de las cosas, ni un invento arbitrario, sino Principio o Madre de donde provenimos, la energía de todas nuestras energías. Según eso, el ser humano es naturalmente religioso”. (XABIER PIKAZA. *Las grandes religiones*, o.c., p.18-19)





**Mardu**kek “gero gorputz eskerga erdi bi egin zuan eta, artista ideak izan zituan: arraina bailitzan, zati bitan ebaki zuanean: Erdi bata jaso eta goitik zeru ganga bezala, jarri zuan. Giltza eman eta zaindariaria jarri zuan, urik ixuri ez zedin; [...] Jaunak *apsu* “tulunbioa” nehurtu zuenean, bere antzeko palazioa eraiki zuan, *Esharra*”. (*Enuma elish*, IV, 136 ss) (Ikus 49 or.) *Esharran* ez da sartzen haraz gero jainkosarik. **Mardu**kek, munstroa itxasoko uren sinboloa menderatuz gero, erraz dauka bere gainean arrelepo urak ugarotzea. (Ikus irudian) Babiloniako gaiztakeria, “emagaldu handia”-ren figura gero Apoc. 17, 3-5, liburu santuan agertzen da, buru lokatuak irakur eta gizonezkoek horrela emakumea hiltean zein diren umegaldu eta errakor jakitun izan daitezten...

## V. DESLEGE AGIRIAK

Asieran *amaren eskolako* hitza zan zehatz, garbi, berbaz amak aurrez aur ahozkatu eta esana. Berbea legezkoa zan eta haren edukinak ez zuan gezurrik eta erantzuna sortzen zuan bere umeen artean. Maat-en legeak, edo Mari-renak, argiak ziran eta esana egitera bultzatzen zuten, “amak esan du” legera<sup>1</sup>. Amak dena daki, “gezurra dinonak bere burua enginatzen du”. Euskera, adibidez, ez zen eskribagarritzat ematen XVI-en gizaldiraino, “euskaldunaren hitza” esaten zan agiri idatziaren berdina zela adierazteko. Baina erdaldun agintariei ere aditzen eman behar zitzairen zertan zen euskaldunen Forua. Hagaitik haien eskolarako gaztelaniaz idatzi ziran Foruak.

Aldien aldiko ekonomiak eta merketaritzak agintzak izkiriatzeko ohitura sartu zuan, agiriak egia aitor zezan. Eskribariak ahaldunak egin ziran herrian, apaizak templuan bezala. Eskeintzen ardurā eta erritozko oparien anzokatzea euren esku zegoen; gainera erregeen sekretari ere ba ziran. Hoiek uxatu zuten amaren eskola jainkoekiko harremanetatik. Anartean amek, gizarteko eskua gal-

<sup>1</sup> Amaren>mandatuak “hau egin” edo Mariren>marrak “hau ez egin” eratan uler genitzake aholkuok: “ez ostu, ez gezurrik esan, ez hil, ez harrotu, kidei errespetoa izan, hitzemanak bete eta elkarri lagundu”. (SORAZU, EMETERIO. *Antropología y religión en el Pueblo Vasco*, o.c. p. 290.)



durik, etxeko arduradun jarraitzen zuten, eskribarien peitu gabe, eta barneratuta zeukaten Ama Jainkoaren aintza aztu barik.

Menfis-ko apaizek, Niloko Deltan, agiri batez euren tenploko Ptah jainkoaren orokortasuna aldarrikatu zuten, bera zela *ta tenen*<sup>(2)</sup> <*atta denen/denen aita* aitortuz. Idazkia<sup>2</sup> *Teología menfita de la Creación* deitzen da<sup>3</sup>. Horrela lortu zuten Menfis Egiptoko uriburu finkatzea, herrigintza tenpluaz orekatzen zutelarik.

Asmo berak berotu zituan lehenago Babilonian *Esharra* inguruko abadeak, ama mendea iraultzearren. (Ikus 49 or.) Haiek ez zekiten, egiptiarrek haina, bihotzeko psikologiak, edo adimenaren naimenaz. Haiek armaz eraso zuten Ama Jainkoa eta hoiek magiaz eta, haraz gero, emakumeen aurka egiten den era bietako eraso mingarria ezeze, hilgarria da gaurdaino.

### 5.1. Ptah magiadun jainkoa

Menfisko apaizek Egipton teologia berria idatzi zuten, ama eskolaren aurkako zela esan gabe, baina haren aurkakoa betebetan. *Ptah* jainkoak beragan *batu* zituan jainko guztien izenak eta ama Jainkoen izenak ixildu egiten ditu. (Ikus 73 or.) Ma.at mendeko aginte seinuez jabetu zan, norenak ziren esan gabe<sup>4</sup>. Ama ukatzeko, amaren muineko jatorria gutxiesten dute eta hitzaren magia gores-ten: hitza da benetasunaren sortzaile, hots, bihotzetik ahora datorren hitza da kreatzaile (Ikus 58 or.), *bihotz/abotz*<sup>5</sup> esanda bezala, edo *ino/in esan/egin*. Horrela heldu omen zan Pah jainkoa *ta.tenen* izatera. Hitzak *ta tenen* hitzak ulertzen ditu euskarak, *ata denen/denen aità*, baina zelan atara heldu den ez du ulertzen. Ausaz *ma tenen* esan balu, uler geinezaken, baina horretarako *Nut* ama dugu.

2 Idazkera Thot jainkoak asmatutzat jotzen zuten egiptiarrek eta bere helburua: gizakien eta jainkoen arteko ulerbidea erraztea zan.

3 (*Teología menfita de la Creación* ANET, 4-5) Cf: Antxinatez Enperio Ertaina, urtea 2700-2200.

4 Lapurrek ez dute esaten norenak diren euren ondasunak: urrea, agintea, eskubidea, kultura, hizkuntza, etab.

5 Etimologiak: *Beko+ots>bigots>bihotz*, eta *aBo+ots>abots>vox<sup>(1)</sup>>voz* datoz, barneko zurrumurrua abozkera garbian. Hagatik egitiarrek bihotzean jartzen zuten adimena, *par cour* frantxesek bezela, edo *corage* "kemenan", *bihotz bihotzez esaten* denean, eta *cogitationes cordis* liturgiak, etab.



“Maisu, emakume hau ezkontza nasten arrapatu dogu. Moisek Legean agintzen digunez, holako emakumeak harrikatu egin behar dira. Zuk zer dinozu? Hori zirrikaz esaten zuten, zertan salatu ahal izateko. Baina Jesus, makurtuz, lurrean idazten zuan hartzamarraz. Eurak berean ekiten ziotela, Jesus zutitu eta esan zien: “Pekaturik gabe dagoenak bota diezaiola lehenengo harria (Jn, 8. 7-8) ...”

Baina *Menfisko Sorkuntza Teologiak* zera dino: “bihotza asmoen sorgua eta ahoak hala adierazten digu. “[...] Atum<sup>6</sup> jainkoaren eneada bere azi eta atzetatikoa zan, baina (Ptah) Eneada bere hagin eta espainetatikoa da, aho espainek ahozkatu izan direnen izenak”<sup>6</sup>. Bere arte/magia etxegintzara eta taxugintzara zabaldu zan, “beraz jainkoak zur, harri eta bustingi diren taxuetan tokia hartu zuten.” (*ibi.*, 60) eta jainkoak *ka* “taxuetan bizi ziran” eta berdin bustingilariak, bustina lantzen zutenak, euren lankideak ziran”.

Beraz, *bihotz abotz* loturak lortzen omen du benetako sorkuntza garbia “*ino, in edo esan, izan*” arabera, odol kutsu gabea, alegia. Esan diezaigula gero Platonek zeintzu diren idea garbiak, ezelako materian edo odoletan zikintzen ez direnak<sup>7</sup>.

Haraz gero, *bihotzak* maiz buruarena egin du gure kulturaren eta liturgian, egitiarren psikologiak gure hizkuntzan, *bihotza cor<sup>8</sup>*, ustez “jakintsua oharketan baztertzen den barne santutegia delako”<sup>8</sup>. Eta garaiotaraino sentikaria ulermenaren gaindi jartzen dugu sarritan.

6 Atum<sup>(9)</sup>/Item<sup>(k)</sup> “berez de *ide*>*idea*”. (*La teología menfita de la Creación*, 55) ANET. 44-5). Cf: *uTu/ide* da hizkunez “iduzkia/lagun” esateko edo bidelagun, bera *ide* gehiengoan >*idem*<sup>(l)</sup> alegia.

7 Arketipoetan *iLu*>*loi* dator eta *Logos*, idea goitarren *lekuko*, ostera. Bizanziarrek gero Kristo, Jainko- seme gizatua, Jainkoaren *Logos* (Jon 1.1.) izan zeiteken eztabaidatzen zuten Platonen eskolakoeekin. Platonek hagaitik “barbaroei galdetu behar” erantzun zezaieken, *Kratilus* liburuan dinonez, “eurek asmatua bai da hitza”.

8 (*La Enseñanza de Amenemope*, 5,9, DB 10)



*Religión, Ley del padre:* [El hombre] no nace ya hecho, no brota maduro de la madre, sino que su tarea verdadera empieza cuando sale de ella, perdiendo su seguridad anterior y se encuentra consigo mismo, frágil y violento, entre otros seres humanos, igualmente violentos y frágiles. Eso significa que la religión no viene dada con la naturaleza, pues el verdadero principio de Vida humana no es el regalo de una madre que cuida de sus hijos, sino la violencia de todos contra todos, como supone S. Freud, la opresión de un “gran macho” que controla a las hembras y que tiene sometidos a todos los miembros de la horda. El hombre no despierta feliz en los brazos de la madre, como diciendo “¡qué hermoso haber nacido!”, sino aplastado, amedrentado, bajo un gran padre violento que le oprime, y obligado a encontrar por sí mismo el sentido de su vida. Así es la verdadera naturaleza, vista desde el hombre, una horda donde todos luchan y los más duros dominan a los otros. La verdadera humanidad habría nacido el día que los machos sometidos se rebelaron contra el poder tiránico del padre (la violencia de la naturaleza que es madrastra y no madre: Pues bien, para instaurar la paz y evitar la destrucción de la horda, los machos homicidas habrían inventado un padre simbólico, un Dios y una religión que les impida matar y les mantiene sometidos. (X. Pikaza, o.c. pag. 19-20)

### 5.2. *Marduk jainkoaren indarkeria*

*Enki/Ea*<sup>9</sup> jakintsuak *Apsu*, *Tiamat*-en, senarra erail eta gero, bere seme *Marduk* prestatu zuan, *Tiamat*-en aurka ekiteko.

Oraingo guduetan bezala, gerlaria etsaigoa itxurgatzen hasten da: “*Tiamat* amak gorroto digu; batzarra egin du eta suminak dago amorruarren [...] asmakari dabil gaeuz eta egunez; gudurako prestatzen ari da” [...] ama *Hubur*, gauza denen eratzaille, egundoko armak pilatu ditu. [...] Berak sortarazi ditu sugeak, *lajamu* munstro narrastariak, [...] *Qingu* goraltxatu du eta bere taldekoen buruzagi izendatu [...] berak eman dizkio Adu Taulak [...] *Qingu* goraltxatu deneko, *Anu*-ren pareko egin da [...] *Nudimmud* izuak hartu zuan eta atzera egin: orduan *Marduk* aurreratu zan”.

“iOi *Marduk*, zeu izango zara gure apentzaille. Munduaren gaineko agintea zeure esku utzi dugu”.

9 (*Enuma elish*, I, 3, Nota) *Apsu/Suap*, arketipo itzuliez, *Busu/Sube* dira “eme/ar” adierazten. Cf: *Enki*<sup>(9)</sup>/*Ea*<sup>(a)</sup> honek Inana-ren aurka ere ekín zion, elkarren atzean belariz ibaian gora Ur uriraino, meak eskuratzearren, jasarritu zionean. Ama mendea kolokan dagoke, An jainkoak, Enki, uren antolatzaile, ordezkatu zueneko (Ikus 27 or.) Ohar, jatorriz ama dela *Inu/uin* “zeru/uin” bera.





**Demeter eta Persefone** mitoa: ama, Eriok arrapatu zion alabar<sup>en</sup> bila, eta bere maitasunaren, urtero epe baterako berreskuratua. Ipuin honek samin unkitzen zuan herria. Mitoa ama-alaben arteko lotura da. Mito zaharragoetan, senar-emazteen bertopatzeari zana: hala, Inanna eta Dumuzi Sumerren eta Isis eta Osiris Egipton. Horrela ospatzen zuten udaberriko berloratzea

Batzarraren erdian jesarri zaitezanean, zure hitza izango da lege. Zure armak ez dute utsik egingo, zure arerioak zanpatu egingo ditu!<sup>10</sup> [...] Bere guraso jainkoek haren hitzaren magia ikusi zutenean<sup>11</sup>, poztu egin ziran eta men egin zioten “Marduk errege”. Aginte makila eskuratu zioten, aulkia opatu eta *palua* eta arerioak uxatzeko arma berezia<sup>12</sup>. “Zoaz eta kendu egiozu bizia Tiamat-eri; haizeek eraman dezatela bere odola toki izkutueta!” [...] hanartean jainkoek, burrukarako gertu, armak zorrozten dituzte: eta atera ziran Tiamat<sup>13</sup> eta Marduk, jainkoetan jakintsuena eta burrukara urten zuten eta erasora urbildu. Jaunak bere sarea zabaldu zuan etsaia atzemateko; [...] Ezinera behartu zuenean, bizia kendu zion. Lurrera eratzi zuan bere gorpua eta oina ezarri bere gainean. [...] beretarren buruzagi goratua izan zen *Qingu* atxiloan hartu zuan eta *Uggae-tzat* eman”. [...]

10 *Poema babilónico de la Creación*, o. c., III, 15 ss) Cf: *Hubur*<sup>(s)</sup>, *iburni*<sup>(eus)</sup>>*ifernu*<sup>(o)</sup>>“*infierno*”, *lajamu* “Tiamaten tenpluko geinu lagunak”, *Qingu/king*<sup>(o)</sup> “*rey*” *Tiamaten* buruzagia”, *Nudimmud=Enki/Ea*.

11 (*Ibidem*, IV, 5 ss) Cf: “la eficacia de su palabra”/“la magia de *ino, in*”.

12 (*Ibidem*, IV, 13 ss) Jainkoek *Marduk*-eri eman zioten arma bikaina: hitzaren magia izan zan “esan eta egin” (Ikus Ptah jainkoaren magia 78 or.)

13 (*Enuma elish*, I, II) Cf: *Tiamat Maat* bera da *uTu>Tia>aíta* arketipoa aurretik duela, *Maat>Dama* arketipoz itzilikatu, *Dama Guena>Damkina*, Enkiren emaztea. Dic. Etim. espāñolak *dama* izena *domina* latinetik datorrela dino, *Domina>doña* dator ostera, frantxesak ere ez daki *dame/madame* nondik datozen, ama eskola galduek horretan ez bai-dute nahiko *politesse* “gizabiderik”.

Marduk, jainkoengandik hartu zuen adoreaz, Sorkuntza berrira animatu zan: “Nere odola oretu eta ezurak eratzera noa. Jainkoen serbitzaz arduratuko den gizakia biztuko dut [...], gustora egon daitezzen ! Jainkoen bideak zuhurtziaz berriztatuko ditut nik. [...]”.

“Jainko Nausiak hemen batzarra egin dezaten; erruduna atxilo emana izan daitela, eurak iraun dezaten<sup>14</sup>” [...]. “*Qingu* iraultza sortu zuena eta *Tiamat* egozkor eta erale egin”. “Atxilotu zuten eta Earen aurrean amarratu. Erruaren erantzuna eskatu zioten eta bere odola berezi. Bere odolaz gizadia eratu zuten. Ea-k serbitzara behartu zituan eta jainkoak aske utzi. Ekintza hau harrigarria izan zan, Marduk berak zuhurki asmatua izan zelarik<sup>15</sup>”.

Poema honek funtsean jainko eredua aldatzen zuan: gizonezko jainkoa, ama jainkoaren orde, hots, aita jainkoa, ama jainkoaren aurka. Hatarako eraikia zuten zigurat altuena ere eta haren gainean, Esharra. Han ez zan Ama Jainkorik sartuko. Babiloniako abadeek lobbya egiten zuten Marduk jainko berriaren inguru eta haren *Sorkuntzako Poema* liburua sakratutzat urtero irakurri herriren dotrinarako. Haraz gero, liburu idatzia ahozko kontakizunaren gainetik aditzen emango zitzaion herriari. Honela, ama eskolaren eragina garbiturik, eurak euretara gisatuko<sup>15</sup> zuten euren jakia eta jainkoa, Ama Jainkorik gehiago aitatu ez zedin.

### 5.3. Deuteronomioko agiria

Arinkeria handineaz emaztea ezesteko baimena dago: “Norbaitek emaztea hartu eta beragaz biziz gero, akatzen bat beragan aurkitu zuela-ta, begien aurrean ederrik aurkitu ez baleza, zapust agiria idatzi eta eskuetara eman bezaio, eta etxetik ate bihaldu”. (Dt, 24:1-2)

Eskribari eta fariseuek jokabide honen eritsia eskatu zioten Jesuseri eta ea emakume zapustua beste gizon batekin ezkon zeitoken eta Jesusek emaztearen eskubideak aldeztu zituan, hots, ezkontza ituna, halako zorrostazunaz hatan ere: “Jainkoak batua, ez

14 (Poema babilónico de la Creación, o. c., VI, 15 ss)

15 (Ibidem, VI, 30 ss)

15 Beraz, Esharra gizonezkoen txoko bihurtu zan. Txokoetan emakumerik ez sartzeko ohitura eta lehia zegon oraintsuraino Euskal Herrian bertan.



Grekar artearen argi-ilunak: alde batetik *kariatide* taxuaren edertasuna eta bestetik jasaten duen zigorra: Herection elizpeko erlatza buru ta soin agearena egin behar, Karia-ko gudariak Peloponeso-ko gudatean azkene-raino ekin ziotelako, haien emazteak zigortuak. *Atenea* bera nekatu eta damu tanke-ran, guda astamakileru ma-kurtu. Zer besterik gelditzen zaie emakumeeri gudako sar-raskien ondore, nekea eta so-tina baino? Euren jainkosare-kin ere ez zuten zuzen jokatu

beza gizakiak banandu”. (Mk 10,2-16). Beste behin tenploko serbitzariak ezkontza nastatzen oratu emazteak ekarri zioten Jesuseri. (Jn. 8,1-11) Moisen legera harrikatu nahi zuten eta Jesusek, euren barne gaiztakeria salatu zien, halakotik aldendu zitezten. Jesusek lurrean idazten jarraitu zuan<sup>15</sup>, eta salatzaileak alde egin zutenean, Jesusek bazinotsen andreari: “Neuk ere ez zaitut kondenatzen...”.

Idazki zaharragoak begiratu, nork adierazi zion *Hasiera* idatzi zuen eskribariari Jainkoak Sorkuntzarako, hitza ahozkatu behar zuena? Gizakia sortzeko, berba esan behar zuela? Liburu zaharra-goetan hala zegoen idatzita. Eta Baradisuko ezbeharra emakumearen erruz zelakoa? Inguru haretako fama zan. Eta Jainkoak barazkien eskeintza ezetzi egin zuelakoa (Has, 4:17)? Emakumeak ziran baratzainak. Gizonezkoak, berriz, ehizari eta hartzain. Horrela argi-ago ulertzen da patriarken Biblia. Ba zinoan Paulo Apostoluak ere (Gal. 3:28) “ez da ez gizon ez emakumerik; Kristo Jesusegan denok bat bai-gara”. Bai, eta gero ze eskribarik sartzen dio Timoteo ikasle-ari halako ziria?: “Emakumeek ixilik eta makur entzun ditzatela azalpenak, ez bai dut amoregiten emakume erakaslerik, ez emazte-

<sup>15</sup> Jesusek marra gorria marrazten du lurrean: Idatzia Lege da, baina Espirituak giza bihotzetan ezarriak ditu benetako ardurak.



ak senarrari gaina hartzerik; ixilik egon daitela baino” (Tim.2, 11). Zer dela-eta ixilik?<sup>16</sup>. Patriarken akatzik inork salatu ez dezan? Horretan ondo esan zuan salmogileak: *Abysus abyssum* invocat/“oker batek bestea dakar edo *abusuz abusu*”(Sal. 42-43, 8)<sup>17</sup>.

Abusuetan bat ustela, Jainkoak, barazkiak barik, odol opariak behar zituelako ustea, eta ez bakarrik aker eta zezen odolen premia, bai eta gizakiena ere: Jesus Nazaretokoarena, adibidez. Nork nahi zuela ixuri Jesusen odola, (Hebr. 9.18-22) edo Isaak, Abrahamen semearena? (Has.22:1-2) Gogoratzea baino ez dago jainko iraultzaileena: “Hoa eta kendu ezaiok Tiamat-eri bizia; haizeek eraman dezatela bere odola toki izkutueta!” (*Enuma elysh*, V, 5 ss)

Oker batek bestea dakarrela, abusua, abusu. *Ra/Erra*<sup>(eus)</sup> jainkoak gizadia arras galtzeko erabagia hartu zuenean<sup>17</sup>, Hierakleopolis-ko eskribariak haren alaba Hator “Oru atea” maite jainkosari egotzi zioten egin odol sarraskiaren errua, Errak azken unean odol antzeko ardaoz mozkoturik, baretu ahal izan omen zuan alaba eta gizateria salbatu galpenetik<sup>18</sup>. Eskerrak kristau eliza XXI gizadia zuzen eskolatzeko eredu berrien bila dabilen!...

#### 5.4. Grekoen klasikotasun matxista

Grekoen kultura eredugarria zela esan ziguten eta gizatasun osokoa. Erainkuntzako zutabeen dendua eta taxuen lana erakusten ziguten, ez zuten “harrizko bihotza kenduko diet eta haragizkoa ezarriko” (Ezk. 36:26) igarlearena irakurri. Sortzez, ama eskolako ziren hasieran eta Demeter amarena eta Persefone alabarena ezagutzea baino ez dago. Hor Sortzalde Erdiko kulturaz bat egiten zuten. Denen ardurako zan heriotz osteko zoria eta balizko berbizkundera. Ez zan heriotza gainditzea, berarekin itunbenera heltzea baizik:

16 “Lehenbizi Adan izan omen zelako, eta hurren Eba. Gainera, Adan barik, emakumea izan omen zelako engainatua eta galpenaren errudun. Nahiz eta bere semeengaitik salbatuko den, fedean eta karitate santuan eta bizitza konpanduan irauten badu.” (Tim 2: 12-15) Jo!...

17 AB.SU/BUSU<sup>(eus)</sup>>“POZO”. Zur ibili zan salmogilea, eta egia esan zuan eta ize-nok *Enuma Elihs* poemako lehen kapitulora bidaltzen gaitu garbitasun bila. Hizkune galanta egiten dute gainera: *abissu/abusu* “leza/larregi”.

18 *Rescate de la Humanidad de la Destrucción*, ANET 10-11.



*Maisuak eta ikasleak* Erroman, (Ikus Egiptoan 28 or). Hizkuntza zertarako? Herriari agindu zorrotzak aldarrikatzeko. Idatzi zertarako? Handikien eta eroien ekin-tzen gogoangarrirako. Latina, idazteko eta hitz egiteko moda berria, Batua edo osatua edo nolabait kopiatua, baina Enperioko hizkuntza...

“zati baten zurekin eta beste zati baten neurekin” (Ikus 81 or.) itunbeneko bailitzan, edo uda berria eta udazkena berdintzea, amak baratzean ikusten duanez. Izan ere, ama edo emazte maitasunak bakarririk egin zezaken halako aposturik bere umeen edo senarraren alde.

Gero grekoek garratz aztertu zituzten Egiptoko mitoak: *Nut*, adibidez, (Ikus 11 or.) *Nux* bihurtzen dute, “zeru gau” bihurtzeko. Ohartu ere ez *Nut* amak gauez ere izarren disdira duena eta, Ra erditzean, egunari bide egiten eta, berezko analogiaz, egiari ere egikiona<sup>19</sup>. Hitzen trukaketaz, *Geb* (Ikus 1 or) *Gaia* bihurtu zuten, gizakia jainko eginik, eta iraultza horren misoginiak bakarrik ebats zezaken Pitagorak bi hastapenen teoria<sup>20</sup>. Era berean Eskilok frogaz zezaken aita dela semearen egile eta ez ama<sup>21</sup>. Eta ara non, Sofokelek esana “ez dut jasanen emastekiak gizonei erakusterik”, S. Paulok (Tim.2, 11), eskribariren baten atzaparrez errepikatua. Euri-

19 Parmenidek *Nux* Ama Jainkoaren eritzia bilatzen du, jainkosak zera dinotso: hanartekoak izan zirela berba sinisgarriak eta, haraz gerokoak gizakien “gezur hitzen ordena hasten zela” [...] “Egia antzik ba zuela [hala sofisten eskolak], baina ez benetasunik. (PARMENIDES, *Poema*, 8)

20 “Hastapen onak, ordena, argia eta gizona sortzen ditu eta hastapen txarrak, *gau utsa*>*caosa*, ilunà eta emakumea” (Pitagorikoek).

21 “Froga nezake, amarik gabe ere, norbait aita izan daitekela”, ESQUILO, *Las Euménides*, Cf: Eta horretarako Zeus, Atenearen aita, jartzen du eredu. “Atenea ez zan hazi *Nux*=gau iluneko ama erraian eta, hala ere, zein jainkesak erdi zezaken halako ondarrerik?” (*Ibidem*)

pides bakarrik falta zan grekar misoginia lotsagarria ezin bestekoa egiteko, Jason, senarrak Medea emazteari agirika dinotsonean: "Otiam, gizakiok ondarea izateko, emazte beharrik ez izatea, bada horrela gizonok ez gendunan ezelako nekerik izango"<sup>22</sup>.

Seme-alabak kaltetzea maiz gurasoek elkarri egin nahi dioten kaltebide izan daiteke, eta berdin herria hizkelki batera behartzea, ama eskola kaltetzea, handiak txikiari ohi bezala<sup>23</sup>. Atenak ere, nagusitza lortu zuenean, besteak *barbaro* izenaz ezaindu zituan eta bere atikar formak idazten hasi zan eta barbaroen izenei jantzi berria ipinten: "harek ohorez *andra* titulua opa diotela emazteari? Guk *andre* izena "gizona" adierazteko idatziko dugu antzerkitik poesiarraino, "emazte" adierazteko nahiko da *gune*>*gyne* izena. "Jainkoa" *Inko* ezagutzen dutela? *Eikon*>*ikono* izango da, bizirik ez duen irudi baztergarria, gure Jainkoa *Zeus* delako eta gainerako euren *eritziak* guretzat *eresi* eta *eraso!* ba dinoe, ezagutuko gure *erizo!* Emaztekiak mintsoaren kalaka asmatu zuela? Guk literaturaren jakinduria, eta larruki bilduen iraupena, *hitza galkor*, *idatzia iraunkor*, arabera.

Emakumeaganako jasarpina adeitasun biurtu zan Sokrate eta Platonen garaian. Batak zein bestek baliabide berdinarak dituzte herrigintzan.<sup>24</sup> "Herriko gobernua ez dago emakumeek berez, egin ez dezaken arazorik eta ez gizonezkoek ere, gizon direnez"<sup>25</sup>. Sokratek profetarena egin zuan eta larrutik ordaindu ere.

### 5.5. *Erroma zuhurki saiatzan*

Elenismoaren ondore, Erromarentzat dena asmatuta zegoen, ildo beretik jarraitzea baino ez zuan, baina inolaz ere ez haien morroi itxuran. Jainkoa bakarra eta gizon tankerakoa izan zeitena, baina, Zeus mengela barik *Jupiter* deituko zan. Gutxi ardu-

22 EURÍPIDES, *Medea*, 570-575.

23 Barbaroek Mikena, Tirinto, Karia eta beste uriak ziran. Atenak azpiratu zituan, Frankok euskaldunez egin nahi zuan bezala. Atikar estiloa Anatolia eta Egeoko ugarotzetik merkatarizatetik zetorren zati bat. Gaur bertan ere euskaldunok "barbaroak" gara Pariseko politikarientzat, eta ingelesa, ostera, zopatan ere aurkitzen dugun eskeintza da eta ez dauka ama-aita abizen zihurrik.

24 PLATÓN, *La República*, Libro V 455b-456.

25 PLATÓN, *La República*, Libro V 455c - 456b)





Konstantino eta Justiniano, Aste eta Oste aldeko enperadoreak, euren elizari egin opariak: Andre Mariari egin basilikak eskeintzen Konstantinoplako mosaikoan...

ra nondik asmatua zan<sup>26</sup>. Ondo zegon, bestalde, *Aserat* edo *Aset* jainkosari *Isis* deitzea, halan ezagutzen bai-zuten gehiengoak.

Eskribarietan ba zan Marco Fabio Quintiliano, Kalagurriko semea, gramatikoa bera eta Erroman Erretorika ere ikasia. Harri-garri egiten zitzaizkion latinaren jokuak, batez ere, bizirik ez duten gauzei generoa ezarteak: *canis*, tira, baina *calamus*? Eta ar-eme nahikotzat ez emanda, bata ez bestea ez zen, neutroa ere ezarri behar zela? Quintilianok izkutuko irrinoa zeukan lasapide.

Eta, gramatiko bezala, batez ere, latinaren deklinabide bost-kotxa. Hitz bakoitzak bila zezala egokitzen zitzaiona. Zertarako zan? Handikien segeretua herriak uler ez zezan? "*Verba volant, scripta manent*" aldarrikatzen zuan hizlariak. Hala ere, herriak bere ama hizkuntza zerabilan ahopetik, ez, oster, erretorikan arituek

26 Ama eskola oinperatzen dutenek *Jupiter* > *Dius Piter* sanskriotik datorrela dinoe, baina sanskritoia nondikoa den ez dakie. Ama eskolak ba daki *Tia/-Tio* > *Dius* nondik datorren eta *Ptah+Ra* > *patra*<sup>(9)</sup> > *pater*<sup>(1)</sup> > *padar*<sup>(eus)</sup> datorrena. Baina guda gizonak ez dute aitortzen nondiko diren euren arrapakinak. Berdin gatzelaniak ez du aitortu nahi euskararen amatasuna, latina goresten du.

## GRAMTIKAKO PERTSONAK ETA NOR ORDEKOAK ARKETIPOEN SAILEAN

AN/uno	UTU/duo	RA/iru	ILU/lau	BA/bost	KA/segí>sei	AS/zazpi
en/ni/no	tu/tou/zu	era/ar	ille/él	bera	ego/eketa	txe/je
my, moi	tto/you/yo	eurak	le/la	beste	gu/kau	txeia
nor/inor	ti/ich/hi	ura	alguien	bat/banek	qui/quién	zein
eni/mihi	tui/tibi	ari	lui/ler	vobis	cui/cuyo	sibi/si
nos/noster	ode/zoin	ori	allelon	vos/vester	gure/ekeien	sfeis/sfon
nemo	deus	urlia	alter	hic/hoc	ekeinos	se=ses
neu/neure	su/zure	euren	illius	berendia	kori/que	ése, éste
mengano	zutano	urlain	ulain	fulano	quaedam	sandia
nada	uts/todo	rien	alako	pan	cosa	zer
aina	autos/tal	eren	lo/los	hulain	aquel	zerbait

eta eskribariek. Hoiiek orazione luzetan ere kaso bakoitzari bere generoa ezarri, *ar* edo *eme*>*armonia* egokia egiten<sup>27</sup>. Nola erantziz gero subordinatu guztiri halako pixua? Errazago asmatu zizutuzten grekoek lokarriak egiteko modua. Oso praktikoak ziran<sup>28</sup>. Oso praktikoa aditzean nork baztertu eta forma pasiboez bete izkiriatuak? Hori ere eskolabide zan: ekintzaileak eurak, gudalburuak, herriari *panem et circenses* opa zizkietenak zirela, ematearren.

Hiztegiek ere nahiko bihurriak ziran kalagurritarrentzat: *mur/orma*, *narro/erran*, *uxor/urruxa*, *turrere/erretu*, *urbe/buru*, *denariu/ordain*, *dies/asti*, *obsto/ostopa*, etab. Arrapariak ez du aitortzen nondikoa duen altxorra; batzuk bermargotu egiten dituzte ostuneko erredizak, prestatuak ez direla ematearren.

Emakumea Erroman askeago moldatzen zan, Atenan baino, etxe jabe zenean, baina kristau arruntak ez zuan babesik, enperatzailea asarratzen zenean<sup>29</sup>. Orduan kristauak Koloseoko leioen ahorako, enperioko gaitzen errudun zirelako-edo. Kristauak gu-

27 Euskaldunek, ostera, "gallina gordo" bakoitzeko sartu izan dugu gure kurrigan, ene!, ezin ulertuz generoaren tirria horrainoa zenik.

28 Gaur bertan ere erderatik euskarara datozen askok erlatibo eta kausal asko holako lokarriekin egin-zaleak dira, naiz ama eskolako ez diren: "zeren egin du? Zeren erraxagoa zen", "Nork egin du? Atzenak, zeinek ez zuan nahi atzen agertu."

29 Hala dino Iruña-Beleiako ostraka batek "*nire ama Roman hil da*" eta horrela salatzen du dotrinaleku haretako umeak Diokleziano Enperadoreak aldi haretan, 303 urtean, kristinauen aurka egin zuen jasarpena, ordurakoak bai-dira, izan ere, aipatu ostrakak. Ez zenkian? Zur ibili.





**Isis/Aset** “eser+lekua, bere seinua buruan. Ama eskolako Isis Ama ez zegoen zertan Jesusen ama, Andre Mariaren aurka jarri, edo alderantziz. Kulturen aurkatzea zan, eta herrien arteko gerra zeruraino jasotzea. Hori gertatu zan Efesoko Batzarrean (431) Isis jainkesaren “Jainkoaren Ama” tituloa Andre Mariari egoztean eta “zein handiagoka” bata besteari hesia jartzea. Hala kultura batzuk euren Jainkoagino ukatu behar dute, kristau izateko? Matxismo zati bat elizan izkutatu zan. Isis Amak beti salatu zuan *Set>setatsua*ren jokera. Set beti Orus/Osiris anaiaren aurka, gaurko zenbait politikan ikusten denez. Eliza bera ere oraindino ez da matxismotik askatu.

txitu beharrez, ugaritu egiten zirenean, ostera eta kristaudia gehiengoa egin zenean, urrengo enperadoreak, Konstantinok, alegia, Majenzio aurkalariekin burrukan garaile, onartu egin zuan kurutzaren seinua 312 urtean eta, urrengo urtean Milango Erabagiaz, legezatu egin zuan kristinauen legea.

Haraz gero, elizako gurasoen batzarrak ugaritu ziran, dotri-  
nak zehaztu eta Enperadoreak berak hartzen zuan parte, erlijio-  
noa ere enperioko arduratzat hartzen zuelako: ea Jesukristo eta  
bere ama Maria ze nortasuneko ziren, bada Kristo jainkoa bazan,  
Andre Maria ere gizaki berezia zeitekela. Anatoliako gotzai-  
nen buru Nestorio ezezkoan zegoen, baiezkoan koptoen buru  
Zirilo. Efesoko Batzarrean erabagi zuten Andre Maria *Teotokos* zela  
“Jainkoaren ama”. Hanartean titulo hori Isis Ama Jainkoak  
hartzen zuan. Orain ba zuten kristianoek dotrinaz zein nori aur-  
katu, eta enperadoreak erabagiko zuen azken baten, nola egin  
batasuna, XVI gizaldiko misionetan Mexikon gertatu zen bezala.

Harrigarria da, haraz gero, herriak Andra Maria beltzeranari  
izan dion jaiera berezia, “la moreneta”, “antxinakoa”, “aparecida”,  
“Idoiako” edo Idoibaltzako”, Cachirachi guentxen artean, etabar,  
deituetan: Herri teologia alde batera tiraka eta klerigoen teologia  
bestetik inkulturatzeari amore egin nahi ezik: ama eskola batetik,  
aitatiar dotrina bestetik, hots, Isis *afrikar>afrodites*<sup>(9)</sup> beltzerana,  
Osiris eta Set semeen arteko burrukan sartuta.



Egitan Franzisko aita santuak parkamena eskatu duela Mexikon, Chiapas-en bederen, baina hor dago osatzeke zauria<sup>30</sup>.

### 5.6. Enperioko kristinauak

Kristinau edo kristinautu enperadoreek behingo baten konpondu zituzten kristinauen arteko teologia eztabaidak. Baserriak bere bide zidorrak jarraitzen zituan hanartean. Latinoentzat *paganoak*<sup>31</sup> ziran, eta horrela, paganoen konbertzinorako otoitzak eta diru laguntzak egin izan dira eleizan gaurdaino<sup>32</sup>. Baserrian garbiago irauten duela antxiñako oroitzapenak eta ama eskolaganako fedetak. Isis deituriko Ama Jainkoaganako jaiera zan orduan nagusi Mediterraneo inguru guztian, Enperioko jainkoen gainetik. Bera bakarrik izan zan “Jainkoaren Ama” hanartean, Efesoko Batzarrak Andre Mariari ere titulo bera ezarri zion arte. Hagaitik Isis irudia umedun agertzen da, jesarrita edo zutunik, (Ikus 13 or.) Andre Maria bera ere agertzen denez. (Ikus 87 or.) Zergaitik Isis-ganako jaiera? Geroko bizitzak baeukan zerikusirik. Set setatiak Osiris, Isisen senarra erail eta haren gorpu txikitua Nilora jaurti zuan, mitoaren arabera. Isis-ek maitekiro gorpu zatiak banan banan batu eta aintza berrira jaso zuan (Ikus Maat-en Juzoan or. 15)


Geroko bizitzaren misterioak beti kezkatu izan du gizakia eta hagaitik, gure asabek Isis Amaren xedea zuten eskabide, kristinauek Kristoren berbizkundera duten bezala. Inkulturatzez zubigile izan beharrez, ama eskola zertan zen ez zekiten eliza maisuek, herriaren zentzuna baztertu eta goitik beherako teologia egiten asi ziran, zatiketaren murruak handituz kulturen artean.

Harrigarria da, Ator Maite jainkosaren amaren seme Set eta Orus (ama eskolak, argiaarren, ez du ondo ikusten izenoi aurrizki h- alperrik ipintea) anaien arteko *otiña*>*odium*<sup>(1)</sup>, mitoraino ja-

30 “México tiene necesidad de sus raíces amerindias para no quedarse en un enigma irresuelto” (Aita santuak mexikar apaiz burueri) 15, ots. 2016/ Mexikok bere jatorrizko sustraien beharra du, enigma izatetik urten ahal dezan”. Cf: Jo amaren eskolara horretarako, zaindu hitzaren gordailua.

31 Basetxe baino harago “bagola” bageagoak, *uxoa* eta *bagausoa* izenetan bezala, *etxe* mailara heltzen ez ziren *betxak*>*petxak* bezala, sutegi bakoak.

32 Hagaitik *azken kruzadakoek* “hable usted cristiano” esaten ziguten eta neuk entzunda: “más Dios y menos Jaungoikoa”.



Andre-gizonak izadiko koordinadetan moldatzen dira, *no* eta *to*. Zer da gehiegizko edo ezereen peitu ete bien artean? Norbait ete dago eureri begira izarretan? Freud-ek zera dino: “*Bera* dagoen tokian *Neu* jarriko...” Giza iraultzari dagokio nez. Estrukturalistek dinoe: “Kendu *Ni*-a dagoen tokitik eta jar *Bera*”. Nor da *Bera* eta nor naiz *Ni*? *No* eta *To*: Gu gara. Gu eta *Bera*: danok, familia bateko...

so zuan, hots, bere baitako eskarmendua<sup>34</sup> halako mitoz espresatu: gorrotoa, maitasuna den amaren aurrean. Sikologista batzuk homofilia delakoa aipatzen dute halako amore/amorru<sup>35</sup> kasuan.

Ptolomeo I Soter faraoiak *Osiris*<sup>(3)</sup>/*Serapis*<sup>(6)</sup> jainko bebiztuaren ohoretan Serapeum santutegia eraiki zuan Alexandrian, egiptiar eta grekar kulturak alkartzearen. Gauza bera bultzatu zuten Claudio, Trajano eta Adriano enperadoreek (117-138). Gizaldi batzuetan idekita iraun zuan tenploak, 391 urtean Alexandriako patriarka Teofilok, paganoen kultoak ahienatzeko, tenploa eratzu zueino. Enperioagandik ikasi zuan bidegabekeria hau elizak ere, eta maiz paganoak eskolatzea baino bide errazagozat auteman izan zuan nausikeria.

Serapeuaren erraustez (391 K. o.), Teodosio enperadorearen erabagiz amaitu zan enperioko paganismoa<sup>36</sup>.

Isisganako jaiarak iraun egiten zuan oraindino eta Egipton Filé-ko tenploak, Justiniano Enperadoreak 535 urtean eragotzi zuen arteino. Fedez eta gizabidez eziña, enperadorearen erabakiak lortzen zuan. Halatan, elizako buruek enperadore koroa ezarri zioten aita santuari.

34 Egipto menditar eta Egipto itxastar zirenen arteko *amore/amorrua*, hots, batak bestea menderatu nahia, *Egipto*>*Oikupta*<*oiku*+*batu* izan zedin.

35 Set eta Orus aurkalarri Ator amaren ertaldian, Set eta Osiris dira Isis amaren belaunaldian. *Set*>*seta* dator “gaiztorako xedea”, hortik, *setati*, *setio*>*seto*, *sitio*. *Ator*, osterera, erakargarritasuna da, >*torri*>*ator*>*toz*>*zatoz* dinona eta *aitor* izanez, bat *atoratu* egiten duena. Hortik norbait *atorrrantea* izatea ere. Hizt. Esp.-ak “amerikanismoa” dela dino. Euskaldunok eroan gendun Argentinara eta Uruguaira, etab. Hiztegiak zelan jakingo dute, bada, ama eskolako hizkuntza jakin ezik?

36 *Serapeoa* orduan, Juan Bataiatzaile Deunaren omenezko izenez, kristinau eliza bihurtu zan eta hala iraun zuan, X-an arabeek eratxi zuteino.



### 5.6. Kristau paganoak

Kristautasuna uritarra izan zan asieran. Uriak biltzen zituan etorkinak: gudari, igesari, misiolariak eta baserritarrak, geure Iruña Veleian ikusi daitekenez<sup>38</sup>. Egitiar misiolariak, jainko berrien izenak eta Kristo gurutzatua iragartzen dute, baserritarrek jatorrizko Amboto Mari, edo Anbotoko Dama<sup>39</sup>, aipatzen dutelarik gaurdaino, nahiz batzuk *sorgina* deitzen dioten.

Eleiz gurasoek, herriko apaizek, ez dute, antza denez, arazorik izan eleiztarrekin *paganismo* hori dela-ta. Bestalde hor izan dute Andre Maria, "Jainkoaren Ama" tituloarekin eta ama eskolako hizkuntza bultzatu izan dute odolerraino enperioaren aurrean<sup>40</sup>.

Nazaretoko Profeta, Jesus, "paganotzat" zituzten Sidon eta Tiro inguruetaraino, joan zan gaisoak osatzera eta sirofeniziar emakumearen sinismena goratu zuan: "Oi, andre, handia da zure fedea; gerta bekizu nahi duzuna". (Mat. 15:28) Jesusen ustez, erromatar buruzagiak herriko juduar askok baino fede gehiago zuan, bere morroia-erentzat osasuna eskatu zionean: "Jesus harritu egin zan buruzagiaren erantzunaz eta jarraitzen zion gendetari esan zion orduan: "iBenetan dinotsuet Israel osoan ez dudala ezagutu atzerritar honek duen bezalako federik!" (Mat. 8,9). *Fariseoak*<*bereziak* jantziak urratzen zituzten Nazaretoko Profetaren halako seinuez".

S. Paulo, (Rom 10, 17) testo inguru, gizakia berez kristaua denetz eztabidan, Ratzinger, Benedicto aita santuak zera dino: "Hermeneutikazko trukaketa batez, adimenak fedea behar du eta fedea adimana"<sup>41</sup>. Fedea maite dena jarraitzen du. Sirofeniziar amak alaba gaisoa maite zuan, eta buruzagiak, bere morroia. Fedea maitasunaz lortzen du, magia hutsak uts ematen, ostera. Gizakia,

38 Iruña Veleia dugu horren lekuko. K. g. II gizaldian han kristau dotrinalekua izan zan, koptoa, latin aztarrenak eta guzti, euskara lekuko. Ama eskola pozik halako lorpenaz, Set setatia estu, bere amarruak salatzen dituela-ta.

39 Aldi haretan Erromako aginteak auzi eta baztertu egin zituan Iberiako Damak. Ba dago Gazteizko Museuan "Iruña Veleiako Dama" deitua, tailu handi zutunikoa, bururik gabe, kaltetua bera. Golde lanetan idoro zuten.

40 Kalagurriko Emeteri eta Zeledoni martiriak dira lekuko zaharrak eta ama eskolaren aurkako amorru beraz Francok gure garaian hil zituenak.

41 J.M. Barrio-Mestre, *Circularidad fe-razón* en J. Ratzinger, Benedicto XVI, 169





Iberiar *Dama Eseria* (IV-III, K.a.) Cerro de los Angeles, Almeria. Iberiar *Damei* amatigoa darie, batez ere eseritakoeri. *Dama* izena *Maat*, arketipoz itzulia da: Maaten jakinduria eta juzo banatzaile (Ikus 61 or.). Pirene alde bietako Ama Jainkoak, Ifar eta Ego, jaraunsi du *Dama/Dame* tituloa. Hortik Anbotoko *Damie* ere. Frantzian ama-alaba guztik idoro du titulo hori, ohiko *andre* tituloa baztertuz. *Dama Eseri*>*assie*<sup>60</sup> den aldetik, egiptiar *Aset/Asera*>*Isis* gogarazten digu (Ikus 89 or.) aulkia (jainko seiñua) buruan duela. Ikusi dugu une batez, (391) paganismoa ondaturia izan zela, haren irudiak erautsiak, koban, putsuan edo lurpean izkutatua izan zirela. Iruña Veleiako *Dama* ere lurpean aurkitu zan. Gaurdaino Ama Jainkoaganako debeku zoroak irauten du, amaren alabek, feministek, ba dute/dugu zer eginik nahiko.

berez, egiari idekia dago eta seme-alabek amaren bide egina dute dagoneko. Maisuen gida, letraren morroiak, maiz tartean sartuz, espiritu onari bidea ostopatzen diote eta euretartu “proselitoeri” lehen baino okerrago egingo zaie Ebangelioa jarraitzea, salatzen du Jesusek: “Ai zoritxarekoak zuek, eskribari eta berezi ustelok!, lurrez eta itxasoz zabiltzate zuen jarraile bat lortzekotan eta, lortzean berri, infernu seme egiten duzue, bi bider zeuon antzeko” (Mat, 23:15).

Gaurko misiolarien lana ez da “jarraileak” egitea, misionatuen begiekin Ebangelioko baloreak ikusiz, erakustea baino<sup>42</sup>. (Ikus Brasil-go misiolari alemana lekuko, or. 72). Franzisko aita santuak erlijinoen elkar arteko ulerbidea nahi du, budistekin, islamiar eta juduekin hitz egin, denak batean munduko bakearen alde ekin dezaten, eta erlijinoa izan ez daiten gehiago burruka bide.

### 5.7. Gauzen funtsa eta adimena

Bizitzak berak ematen digu gure nortasuna ezagutzeko baliabidea: *ezagun*>*gnōsis*<sup>61</sup> ezagupidea, ea norenak garen, “ez bai gara gure baitako” gure jakinduriak dinonez. Noren baitakoak gara, beraz? Beste norbaiten baitakoak. Umezurtzak ez, amaren

42 Gujerat (Indian) urteetan misiolari izaneko jesuita bateri zera galdetu zioten behin, ea zer erakutsi zien indiarrei: “Erakutsi gauza handirik ez, baina ikasi bai eurekandik, pobretasunean bizi izaten, gizarteko bidegabekeriari aurre egiten eta aldi hobek itxaroten...” (*Alboan, testimonio, w*).

bat daukagu, ama eskolak irakasten digunez. Amak bere maitasun irudiko egiten ditu seme-alabak, ikusten dugunez, beraz guk, seme-alabok, geure antzeko irudikatzen dugu Ama-Aita Jainkoa. Zerbait halako dago (Has. 1,26) idatzita.

Gizakia ezbaiko uretan sartu, lurrik oinpean ez zuela aurkitu zenean, sikologoen eta sikiatren laguntza izan zuan. Freud-entzat *Eros*<sup>43</sup> zan oinarria, baina ama eskolan, *Eros erosi* eta *erori* eragin lezaken jainkoa da. Nietzsche Botereari intsigidu dager eta *pot esse*<sup>(l)</sup>, ama eskolan *pot egin* dakarkena da, buztinezko jainkoak bezala. Jung sikologoak, aldiz, *numen* "jainko argia" dakus giza barneko arketipoetan, hots, ama eskolako eredu zaharretan. Jung sikologoarentzat gizakia gizartearen eta *Beste* horren arteko nortasuna bai-da eta nor bakoitzaren *anima* edo *animus* orekatzen ditu<sup>44</sup>.

Nietschek *ego/yo* "ni" sugetaren erabaki ahala eztabaidatzen du eta gizarteko erabakitzaile diren *ni*, *hi*, *era* pertsoneri bidea ematen dien Gramatika salatzen. Lacan-ek, ostera, egokitzen jotzen du hirugarren pertsona *era/ura/bera*, *Ni* eta *Zu*<sup>45</sup> arteko berbetaren "egia" *vera*<sup>(l)</sup> <bera> ager dadin. Ikustekoak dira Nor izenok arketipoen sailean, nondiko jatorria duten ikusteko. (Ikus 88 or.)

Lacan-ek, Saussuren arauz, hitzak hizkuntzaren adar moztuak bezala aztertzen ditu, eta ezin omen zuan asmatu *Ich* alemana, bere *Je* eta *Moi* frantsesekin adostea, estrukturalistek suhaitza mozten ekin ziotelako, gauzea haren sustraietan arakatu beharrez. Hagatik *Je* forma ezain ikusten zuan *Ich* ondoan, eta *Moi*, ostera, ausarto eta *Moi meme* "ni neu" larregitza jotzen.

Gaston Bachelard sikiatrak eder dakus jatorrizko kosmogonia lau hastapen bizigarrietan oinarritua: uin, su, aire, lur elementuetan, hots, *An*<sup>(s)</sup> > uin deitua, *Utu*<sup>(s)</sup> > su "iduski", *Ra*<sup>(k)</sup> *aire*<sup>(eus)</sup> eta

43 *Orus*, *Erra*-ren sendiko, Egipton, *Eros* egin zuten grekoek, *Oruse* > *Ortzi* euskaldunek, nahiko ezberdin edukinez. *Ortzi* "zeru argitsua", baina *Eros* aldakorra: *Eros* > *eroi* > *ero* > *erosi*, *erori*, *erotu*...

44 Jung-en *anima* eta *animus* arketipoetan *Ba* eta *Ka*, norbere arketipoak dira. Jung-ek *numen* hori (norbere ez dena) *Beste*+aren arketipoan dakus. *Numen*<sup>(l)</sup> < *Num*<sup>(b)</sup> > mui da jatorriz, amatar *uin/un* > *gun* arketipo jainkotierra.

45 Betiko elkarrizketariak *No* eta *To* dira, ama eskolako Gramatikan *Ni* eta *Tu* > *Zu* dira eta euren ondakin diren *you*, *ju* > *ji* > *hi*. (Ikus 91 or.)





**Ambotoko Mari,** Ama Jainkoa, suzia eskuan duela eta ardura bizia bihoztean, bere seme-alabak bisitazen ditu eten gabe. “Amaren sua berbiztuko dut” lematzat eta “ama aginduak beteko ditut” asmotzat harturik, bake irauna izango dugu anai-arreben artean, etxean eta auzoan, denetan.

*Ilu*<sup>46</sup>, *loi*, arketipo ezagunak<sup>46</sup>. Sinbolo hoiek dira, bere gardiz, giza berbeta iñutzen duten lau hormonak, eta giza iruditeria arrapatzeko kakoak edo ondo josten duten lau hiltzeak<sup>47</sup>.

### 5.8. Misoginiaren kaltea

Uste dut sikiatrek gaisotzat jotzen dutela misoginia, hots, emazte-enganako otina<sup>48</sup>, gizonezko batzuk arrakalatu egiten dira edo zihurtasuna galtzen dute emakumearen aurrean edo “amak esan du” ordena entzutean, hots, *no* eta *to* gramatikalak elkarhizketatzen, eta etxeko ardurak norberagan hartu baino, nahiago izaten dute *enfant terrible* inosoarena egin eta berdin santzailearena. Hitzez ezin badute, idatziz ekiten diote burrukari, eta finduraz moldatu ezinik, trauskili jotzen dute, matxisten ganoraz eta maiz armaz.

Idazlari askok, beste kulturarik ezean, erratu egin dute emakumerekin topatzean edo emakumeagandik igestean, batez ere libu-

46 VIDAL, J. “BACHELARD, Gastón (1884-1962)”, DR., o.c., p. 162-166

47 Hisparringian irakurri dudanez, (Deia, 8, nov., 2015), Pariseko Sorbona Unibertsidadean euskera katedra ipintera omen doaz. Zorionean sikoanalizatu dira Frantziako maisuak, adakiak alde batera utzita, zuhatz bizira badoaz. Bejondeiela frantsesei, orain gizabideko linguistika egiten hasi daitezkelako.

48 *Otina*>*odium*<sup>(1)</sup> halako burutada, Set-en gaitza, ama eskolaren aurkako amorrua, >*Odin* ifarreko jainkoaren petralkeria, Lantzeko Inotean sutan erretzea merezi duen >*Otxin* nortasun bera da.



ru santuen dotrina zale diren klerigoek edo eskribarien lobbya osatu izan dutenek. Eurak izan dira euren irudiko Jainkoa beste guztioi imosatu digutenak. Hasieran “Jainkoak gizakia bere irudiko egin zuan” dino (Has. 1:27), eta misoginoak bere gustora aldatu zuan honela: “Jainkoak lehenengo Adan sortu zuan eta urren, gizonaren sahietzetik, Eba, bere lagungarri (Has, 2:22) eta Adanek atseginez esan omen zuan: “Orain bai dela hau nere hezurren hezur eta mamineko mamin” (Has. 2:23). Nor da, beraz, emakumearen jabea? Bibliak (Lev, 12:5) honela dino: “Yahvek Moseri esana” herriari iragarteko: “Emakumeak mutikoa edatuez gero, zazpi egunez zikin geldituko da [...], neskatoa edatuez gero, aste bian zikin geldituko da [...] (Lev. 12:7). Hori al da Jainkoaren neurria? Hori Espirituaren argibidea? Edozer gauza, Jainkoa ezik, eskribari misoginoa tartekatuez gero. Induen etxean bezelaxe: umea mutiko jaio-tzen bada, jai egiten bai-dute eta negar ostera, neskato jaiuez gero.

San Paulok une batez bardingo joten ditu emakumea eta gizona: “jada ez da ez gizon, ez emakume; biok bat zaretelako Kristo Jesusegan” (Gal, 3:28). Eta zetan dator gero halako bereizketa? “Emakumeak isilik egon beitez eleizetan.” (1 Cor, 14:34) Zergaitik? Eta garratzago (1 Tim, 2:12): “ez dut amore egingo emakumeak irakastea, ez gizonezkoen gain eskubiderik hartzea, isilik egon daiten baino”. Beste hainbeste dino Sofokelek tragedia baten.

Misoginoek ba zekiten azpi lezinorik. Ez dakiguna zera da: Guzti hori, hala fede, sinistuz, ala amarruz egiten zuten, Marduk-en apaizek bezala, *Enuma elish* liburuan. Errudun, ala errubako, misoginoa sikiatraren peituz dago, susmogarria bai-da bere jokera.

### 5.9. Jainkoaren heriotza

Lehendabizi “Ama Jainkoaren heriotza izan zan” (Ikus or. 80). Tenploaren jabe egin ziren eskribari eta apaizen lobbyak erabagita, heriotzera eman zuten, behingoz amaren irudia santutegitik kendu eta, armetan garaile izan zen gizonezkoa, goian ezartearren.

Nietzsche, bere aita ebangelikoen artzaina bezala, klerigo izatera abiatu zan. Behin mendiketan, ames lainotsua izan omen zuan eta agure batekin, Zoroastro-ren igarlearekin, topo egin omen zuan. Bera ere, antza, igarkizunetan supergizakiaren Jainkoa alda-



Gudako bitimak: emakume eta umeak, Steven Spielberg *Schindler zerrendan*. Nietzschek errukiaren kontra eta gudaren alde bereak esan eta dozena bat urte barru, 1914 Guda Nagusia gertatu zan eta 1937-an Frankorena eta II Guda Nausia. Ustez herrialderik kultoena galduena, Grezia, Erroma eta beste enperioen antzeko sarraski negargarritz. Matxistaren taktika, guda...

rrikatzen asi zan, alperrikotzat emanaz, gizagaisoen hanarteko Jainkoa: “Jainkoa hil da”<sup>32</sup>-ots egin zuan-, “geuk erail dugu” eta errudun baino, eroiago hautemanaz burua, askatasun ospakizunerako gomita egin zuan eta, menditik jaistean, Moisek bezala, lege idatzia- ren taulak aurkeztu zituan, *Hola esan zuan Zaratrustak* agirian.

Nietzschek ez zuan ezagutu Marduk, beste eroia, arkeologoek ez bai-zuten hanartean lurpetik atera, non eta Zoroastroren herria baino Europatik gertuxeago, hatan ere. Nietzschek, hagaitik, ezin izan zuan susmatu Tiamat Handiaren heriotza Marduken guda amarruen menpean. Ezagutu izan bailuen, bizi zortzailearen Ama, beste aiuriak joko zituan harako hiletean.

Marduk ezagutu izan bailuen, *Geb>Gaia*<sup>49</sup> zientziaren egileak, mendira beharrea, edo aldian egatuz, Babiloniako Esharra-ra igongo zuan (Ikus. 49 or) eta “*Ama Jainkoa hil da!*” ohiu egingo, eta aiduru-minduru esango: “Zelan hil dugu denon artean? Zergaitik hil dugu [gure Ama]?” eta Marduken apaizek isilian gorde zituzten gainerakoak gehitu zituzten Nietzschek...

Argi dagoena zera da: gizaseme guztiok baitan dugun *anima*,

49 *Geb*<sup>(k)</sup> gizakia da, Nut Ama Jainkoaren sorkaria (Ikus 11 or.), lurrean datza, “lurra” da. Grekoek *Gea*, *Gaia* aldatzen dute, hala HESÍODOK, (*Teogonia* 116 ss.) Ez dute esaten, edo ez dakite, nondik kopiatzen duten. Hortik etorri behar du *gay* formak ere, hots, Nut Ama iguin duen edo haren esana ez egi-tearren, aurka jarki zaion umea, “*non serviam*” dinoen *Satan*<*Set* bera bezala.

Ama Jainkoa hil ez bazuten, ez zutela hilgo alaba guztiak duten *animus*, Aita Jainkoa. Hagatik matxismoaren setak, gizonezkoak emakumea, senarrak emaztea, *to-k no*, erailten du eta gero kol-darrarena egiten: okerra ezin jasanez, bere burua urkatu.

Lege idatzia eta hari dagokion zigorra gizakien asmoa da, Hammurabiz gero; aholkua, agirika, oharra, mandatua eta barkamena, Ama Jainkoarena da. Jasanpena, *amatigoa* <*amatiko* amarena da; eta “agina agin truk eta bizia bizi truk” zigorra, gizonezkoen erabagia da eta “betiko surtara” zema, gizonezko eskribarien Aita Jainkoaren erabagia.

Gramatika garbitu gurea ere, amaren eskolako arketipoak<sup>50</sup> baztertu nahi zutenen ohargabetik zetorren. *Ni* pertsona goratzeko, *Bestea* ahienatu behar zan<sup>51</sup>. “Gramatika baztertzen ez dugun artean, gainean dugu Jainkoa”[...] “Ez da gurea argibide hori: kontzetuak, logika...Hizkera dagoeno, Jainkoa dago...Ezin jasana da [...] supergizonak izatekotan”.

Lacan-ek gertutik jarraitzen zion Nietzsche-ri honelako ateraldian: “Jainkoa beti dager Gramatikako Bera<sup>52</sup>, beste pertsonaia bezala, geure egiaren (benetasunaren) begirale” [...] Giza jainkozaleak auzia Jainkoagan uztean, egiarako norbere bidea ostopatu egien du”<sup>53</sup>.

Gauzea ulertzen lagunduko digu Gramatikazko pertsonen egiturak, eta ze arketiporen ume diren jakiteak. (Ikus 88 or.)

50 Jung sikologistak Norbere eta Bestearen arketipoak “eredu zaharrak” bereizten ditu giza ohargabeen. *Beste* hori *NUT+men>numen-duna* da.

51 “Hizkera baztertze honek, Gramatika ere barne hartzen zuan: “Ez gara Jainko gerizatik aldentzen, gramatikan sinisten duguino”

50 Jung distingue los arquetipos de *sí mismo* y del *Otro* (VIDAL J., Jung, DR. 162) La terminología de *el Otro* y de *sí mismo* es para distinguir los arquetipos divinos y los arquetipos humanos.

51 NIETZSCHE, *El ocaso de los ídolos, La “razón” en filosofía*, n. 5

52 *Era* baitatua > *Bera* dator eta *vera* egiten du latinak “benetazko”.

53 CATALÁN J. F. “LACAN J, (1901-19819 D.R., o.c., p. 970-971





*Ama eskolan* goiztar hasten da amak bere umeekin duen elkarrizketa. Bizitza berak izendatu du ama umeen erakasle. Nondik ikasi duen amak? Izadiko liburu idekian: lantzen duen baratzean, ibatik urestatzeko hartzen duen uretan edo goitik datorren euritan, berotzen duen eguzkitan, arnasten duen aizetan, zoragarritzen duen zeru urdinean edo izarratuan. Ama Jainkoagan...-  
*Ama eta lau seme-alaba*. Ohar ama-alabak batean txikerrenari adi, hitza sortarazten...

## VI. ASIERAN BEZALA

Gizarteko familia ez da leoiaren koba. Seme-alabak pisti bihurtu, leoi kume-edo izan daitezten? Gertu dabil Nietzsche *“Hola mintzatu zan Zaratrusta”* liburuan: “Leoia giza kritikoa da, nihilista errimea bezala, gizartean emandako baloreak barreiatzen dituenean, Sartaldeko kultura eta bizi modua. Eta etortasunaren berri dakien giza garbia da, balore berriak asma zalea, jolasean bizi eta finkatzen du bizitza, Dionisos bera munduaren arian. Umea, etorkizuneko giza metafora da, supergizona”. Jo, ea amak zer dinon...

Europak, XX asieran, bizi izan zuen Guda Orokorreko eskar-menduaz, ezitzaile batek baino gehiagok ohartu zuan umeen eziketara goiz goizetik hasi behar zelakoa. Gurazok urragotik begiratzten dute umeen etorkizuna eta amak arduratuen. Zazpitik beherrako umeak amen arduran gelditu behar dute, umeen eskolak *ama eskolak*<sup>1</sup> izan behar dute. Gudak iruntzi zituen mutil gazteek euren aukera galdu zuten, amek, euren semeak. Orduan alabak aurrerratu ziran amen lagun, umeen ezitzaile. Industriak gizonezkoak behar zituan, orduan neskek maistra tituloa ateratzen saiatu ziran. Industriak alogera ohea ematen zuan, baina bizibidez trauskiltzen gizakia, irakasgintzak orduan eta minkiago jarraitzen zuan giza-

<sup>1</sup> *Ama Eskola*, izena ere, ofizialki ezentzuna anartean, baina etxean beti iraun zuena, eta Frantzian, 1881 urtean urten zuen kalera, Pauline Kergomard andreak ume aterpe *Ama Eskola* deitzen asi zenean.

## FAMILIAKOEN IZENAK ETA MAITE ADITZA ARKETIPOZ

AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	AS
ama/amun	aïta/aitun	arriba	alaba	guraso	aba/apa	seme
aina/naina	ato/atso/tio	aur	iloba,	kusina	biloi>filiiu <sup>(1)</sup>	seine
anaie/neba	osaba/suin	rorro	loba	ugazama	babo, padre	izeko
nana/nieto	tata/suegra		lioba	germanu	bar <sup>(1)</sup>	izeba
nahi	autu	eroo <sup>(2)</sup>	love <sup>(1)</sup>	caro/gura	bildu	estimatu
maite	tatan, totil	irrikatu	laztandu	kutun	fileo <sup>(2)</sup>	espe
amatu	atoratu	erosi	lera	querer	vollo <sup>(1)</sup>	zaletu
amar	dod <sup>h</sup> adorar	arrobotu	liluratu	cupio <sup>(1)</sup>		esleitu
nahitu	tirriatu			agapao <sup>(2)</sup>		

“Jakinduriak bere etxea eraiki du, bere zazpi zutabeak landu ditu” (Prov (9:1)

bidea; makinak ordaintzen ez zuena, umeekiko harrremanak ematen bai-zien. Haraz gero, *andereño*, *errientza*, *maesa* titulok, Nisaba jainkesak eta Renenet, Maat Ama Jainkoaren ordezkariak (Ikus, 61 or.) eskua berreskuratu zuten eskolan.

Aldatu egin behar ziran eziketa ereduak, umearen beraren ajurria jarraituz. Sikologiak erakusten duenez, maisutza andia ez da umearentzako: umeari ume erara, bere jolasetan erakatziko behar zaio, umeak jolasa duelako irakasbide, ez geldi egonaren kartzelan, izadi idekiaren ikusgai/ikasgaietan baino. Umearen ariketak berak daroa umea gizaki eldu izatera. Horretan, jakina, psikologiaren argibideak lagungarri izango dituen, baina ez andiz gonbaratuz, maisutza antuak bezala, horrek umearen adimena, bere azkundera kaltetzen bai-du.

Beraz, ama eskolari dagokionez, elduek umearen ariketarako baldintza proposak eskaini behar dizkiote, umeak ikusi, ikutu eta sentzunez ezagutu ahal ditzan.

### 6.1. Amatar eskolak

Gizartean zabaldu berria da “ama bihotzdun maisutza<sup>2</sup>”, elizak emakumeari ezartzen dion hezi sakratua gainditzekotan.

Ama eskolak errespeto guztia sor dio umeari, horretan datza bere filosofia: “eskola deberak” kanpora, ume jolasen ariketan barru-

2 Franzisko aita santuak “maestra con corazón de madre” izakera, sentikera opa dio eleizako maisutzari, pedagogia ezeze, zuzenbidea delakoz.





Euren umeen heziketaz arduratuta dagozen gurasoek Bilbon Santutxuko Tximeleta Bazkuneko jaialdira doaz; euren umeen heziketa atseginez bultzatu eta animatzeko jaia sortzen dute auzoko familien arteko batasun eta alkartasunean.

ra, egunez egun ume nortasuna berera garatu dadin. Umearen galdeketak askatu eta beste ikasbideak urgazi, bere nortasunaz jabetu dadin, *umeen zentzune, etxean entzune* esakeraren arabera.

Helburu orokorra: "ume baliabide guztiak ugaritu, bere nortasuna garatu ahal dezan, eta oinarrizko eta gainerako ikasketetan garaile urten dezan", bere adin eta ikasmaila arabera.

Pauline Kergomard andereak "heziketa hiltzailea" deitzen zion, programetako edukinak, umeen hezikera baino goragotik jartze-ari, umeen kaltegarri zirelako, umeen gogoia erasoten zutelako eta mendetasuna eta zigorra jarraitzen zutenak, kartzeletako ereduaz gonbaratzen zituan. Pauline Kergomard-ek gudate arteko "ume aterpe" haiek *amatar eskolak* "écóles maternelles" bihurtu zituan izenez eta ahaleginez.

3 Pauline Kergomard Frantziako aurren eskolen eta aterpeen egilea izan zan; aldi bateko emakume langileen umeen heziketa zabarraz kezkatu zegoen, gaitz bideratzeko zuten halako arriskuaz (Ikus 105 or.).



## 6.2. Ama eskolak, ama hizkuntzaren alde

Nafarroako Iruñan, Berriozar hauzoko *Tximeleta* eskolan, umeek euren kabuz eta kontura ikasten omen dute.

Tximeletako umeek uneoroko ariketan ari dira. Txikiak jolasa nahi dute eta euren jolasa ikastea bihurtu dugu: Ale, jolas ikastera.

Tximeleta ikastunea gurasoak, umeak eta irakasle ohiak osatzen dute. Urte batzuk badira guraso talde batek eskola mota hau mar-txan jarri zuela. Hemen txikiek euren arira ikasten dute. Maisu ohiek ikasgaiez jabetzeko gaia jartzen dute umeen eskuetan. Ba dauzkagu hirutik hamabi urteko hogetamaika ikasle, talde bitan banatuak, Parbulario eta Primaria gisa. Hala ere ikasleok gogara joan daitezke talde batetik bestera. Urteak joanala, eta berezko tirriaz, nausien taldera joan jokera dute.


Bigarren Mailako ikasketak egiteko gure ikasleak Normaleko Institutora doaz. Batetik besterako ordua urreratzen deneko, eredu aldaketarako prestatzen ditugu. Hala ere, txikiak orokorrean, on-dare onak ematen dituzte Institutoan.

Aurtzaindegiko umeek “jolas librea” egiten dute, hots, euren arira ikasten dute. Jolasketa batez aspertzen direnean, beste bat bilatzen dute eta horrela ariketa ezberdinetan trebatzen dira: “eurak nehurtzen dute dagokien ritmoa eta ikasten jarraitzeko erabagitzen alda unea”.

Lehenengo urteetan, maisuen zeregina umeen jarduna lagun-tzea da. Txikiak mundua ezagutzera datoz, baina maizago, inda-rra hartzekotan, nausien besoetan egon nahiago dute<sup>4</sup>.

Lehen Mailako ikasleak edukin antolatuetan sakontzen ekiten diote. Eurak euretara konpontzen dira ekinean. Norbait gai bereziaz arduratzen bada, taldea sortu behar du. Taldea sortuz gero, mai-suaren laguntzaz, hasten dira lanean. Lana osatu eta bukatzeraino irauten du taldeak.

4 Jende nagusiak ba zuen zereginik umeen hezikuntzan aintzinako esko-letan, Sumerreko jakindurian ikusten dugunez: “Anaie nausia aita beraren antzeko da benetan; Aizta nagusia, ama antzeko benetan. Kontu ezazu hori zure anaie nagusiaren aurrean! Era berean, makur zaitez zure arreba nagi-siaren aurrean, zeure amaren aurrean bezala!” (*Instrucciones de Shu-ruppak*, 173-176, D.B. n<sup>o</sup>26, p, 48)



*Ikastola eguna*, eskola hau gurasoek antolatzen dute, "ibilian egiten da bidea", eta mendiko zirkun-zarkuek nabariago egiten ahalegina, atxikiago lantzen gurasoen batasuna eta elkartasunean, estatuaren laguntza barik, dena norbere penztudan jaso behar denean. Talde ohargabea argitzen deneko, Ikastola bezalako miraria sortzen da: ama eskola, haurreskola, loretegi, tximeleta, Baradisu berriak.

Umeek zerbait berezi nahi dutenean, egitasmoak aste betegino iraun dezake, baina helburua zabalagoa denean, ingeles ikastea bezala, adibidez, urte osoa joan daiteke. Tximeletako umeak eten gabeko ariketan dihardute gehiengoan eta erantzukizunaren jabe dira. Geheingoak lan bat erabagitzen duenean, txikiek erantzun eta bete egiten dute.

Irakurten, adibidez, umeek berera ikasten dute. Bakoitzak bere airean, apurka apurka. Eskola arruntean, ostera, aginduriko epera behartuta dagoz, eta ume batzuk ezin dute jarraitu.

Tximeletan hizkuntza ofizialik ez dugunarren, gehien bat gaztelaniaz jarduten dugu, baina ba dauzkagu maisu euskaldunak eta ume euskaldunei euskeraz erakusten zaie. Gurasoek kudeatzen dute Tximeleta. Eurek laguntzen dute eguneroko lanetan, kontuak atera, jantokian serbitu eta ikasketa egitaraua antolatu.



Ama eskolak sormen handikoak dira, biziak eta sendiari atxikiak; bizitzarako hezten dute, politikazko ideario batzutigai jaregin. Ondore bezala, Tximeletan denok ikasten dugu.

Gurasoek batzarrak egiteko elkartzen dira, bakoitzak bere eginkisuna du. Sendien eragina ikusten da Tximeletan. Horrela haurrek ez dute ikasune hau auzoko sentitzen, etxeko etxekonatzat baizik". (w)

### 6.3. Ikastolak eta euskera

Ikastolak<sup>5</sup> euskaldun umeak eskolatzeko sortu ziran, hots, ikasketak nausiak egin aurretik, ama eskolaz eta jakinduriak jabetu zitezten. Euskal familien arteko egitasmoa izan zan XX gizaldiaren asieratik. Frankoren erregimenak debekatu egin zituan, Mussolinik Italian Montessori andereñoaren "Casa dei bambini" bezala. Debeku horrek ondo adierazten digu faxisten xedea ama eskolaren aurkakoa zein den, gizartearen hasieratik eta hona.

Julene Azpeitia *andereñoa*<sup>6</sup> goiztar zebilen Montessori-ren metodoaz arduraturik, baina orduko *auzo-ikastolen* egitasmoa ez zan horren aurreratua, arruntagoa baino. Bizkaiko Aldundiak, gurasoen ekintzaz batean, XX gizaldiaren hasieran 125 *auzo-ikastola* eraiki zituan<sup>5</sup>. Guda gixonek gorroto dute ama eskola, denari begira eta denari idekia dagoelako. Eurak, oster, batasuneko kontrolean dakuse aberastazun guztia, misoginiak darabiltza, maiz eleizan bezala<sup>6</sup>.

5 *Ikastola* <ikas+ola> konposagaieiz osatzen da, *escuela* <esku+ola> eskola, berriz: Biak dira euskera. Bata besteagandik bereiztearren eta etimoen ezjakinean asmatu zen izen berria. *Eskola* deitzen zan etxe aldamenean txaltxuak bezalatzeko zen eskortari. Ondo asmatu zuten *sjole* grekoek eta *schola* latinoek ere...

6 *Andereño* izena *andere* > *andere* + *-iño* niminoz da. Izenak berak dino heziketa zein den amaren eta ama-alaben zeregina giza familian. Ohar *Renenet* > *errientza* eta *Ninsaba*. (Ikus 61 or.)

5 Egitura bikoitzekoak edo bakunak ziran, eskola umeen kopuruari begira, sala bananduak neskentzat eta mutilentzat. Herriko edo auzoko erdigune erosean eraikitzen ziran. Sukalde eta guztikoak ziran, baserri lekutuetatik zetozen umeek berotik jateko modurik izan zezaten. Ba zeukan liburutegia, komunak, aterpea, pelotalekua eta baratz-loretegia ere, umeen saiaketarako.

6 Gudagixonen, nahiz tenplo gizonen, xedea ohartzuz, maizegi adosten dira ama eskolaren aurka, nahiz Nazaretoko profetak esku biak salatu Jainko Erreinu saltzaille. Hagaitik bat egin zuten esku biek Jesusen kontra. Emakumeek bakarrik jarraitu zioten Jesusi gurutzeraino, beste ikasleak bildurrez alde egin zutenean, >





Pauline Kergomard 1838 - 1925, girondatar politikan, okzitaniar hizkuntzaz eta biarnotar, Orthezen, bizitez, euskaldunen auzoko, Nafar Erresumako ondakin, arazo bakoitzari erantzuna emateko nahiko argibide eta sobera adore, estatu edo eleizen babesei edo emendioari so barrik, erantzuteko. Zer itxaso zezakenez gizonen xede eta erregimenatik? Hor agerten da emakumea eta amatasun zindoa...

Espainiar supergizonaren faxismoak hamarkada batzuetan atzeratu zuan ikastolen lana, baina artean erein azia lur onean gorderik iraun zuan eta, askatasun eguzkiarekin batera, fruitua ematen hasi zuan, amaren etxeaganako maitasunak negua uda bihurtzen duelako.

#### 6.4. *Feminismoa eta amatar eskola*

Argien gizaldian ezusteko lore omen da feminismoa. Hareago esan daiteke ama erraiko fruitua dela emakumea, hots, Ama Jainkoaren alaba. Eme sentikera eta bere burueritsia aurrez egon dira beti haurtzaroaren ikuspuntuan, eme izatasun ondore bezala eta ama eginkizun seinalatu. Gizaldien XIX-an eta XX-an emakume bi nabarmendu ziran ume heziketaren ereduak eraberritzean: Pauline Kergomard Frantzian eta Maria Montessori Italian.

Amak haurrak heitzeko duen ahalmena aintzak jotzen du Paulianak, eta ekintza horretan eskolan parte hartzera bultzatzen du, urte bitik eta zazpigarren urteko umeentzat *amatar eskolak* idekiz. Maria Montessori-k, Unibertitate ikasketak egiten lenengoetariko emakumeak, medikutzak eta sikiatria ikasi zituan. Sikiatra bezala, normalean egiten ziren larregikeriak ikusi eta umeeri ematen zitzaizkien tratu txarraz gogait eginik, umeentzako heziketa egokia eratu behar zuela otu zitzaion eta erabaki zuan.

Ohartzekoa da emakume bion laiktasuna: ez elizak, ez gizar-

> "Jesusen serbitzuan Galileatik jarraitzen zioten emakume asko ziran han [Kalbarioan kurutzatuari], urrunetik begira". (Mat. 27:55).

te aginteak ez zituen aukeratu<sup>7</sup>. Ama erraiak emanda bezala, eurak aurreratu ziran, umeteriaz arduratu ziran, gizadi berriaren etorkizuna zutela helburu. Oraintsu arte eleizak elizgintzarako ez du aintzat hartu laikoa, bere apaizak eliteko ikasketak dituelako eta, batez ere, gainerakoei hezia ipinteko Kanon bereziak.<sup>8</sup> Espiritu Sortzaileak gizonezkoak ditu magiaren sorgin eleizetan eta, beraz, Bera libregao ari da herriko plazetan.

Laikoak familia eta ama eskola urragotik jarraitu eta babestu izan ditu, sakristiak beste mistika bat amestu eta maizetan gizatasun bidean erratu du. Halatan, andereiñoak hobeto errespetatzen du umearen izakera, amaren ondoan ikasiagoa delako. Maisu teoria eta erregela asko, edo eskola ariketa multsoa iguin du eta ahienatu egiten ditu andereiñoak, umeentzako ez direlako egokiak, leloak eta lezinoak buruz ikasteko ohitura ere baztertu egiten du, ulertzen ez dena ez delako txikien ikasgai. Jarraitu umeari bere jokuan, bere jokutik atera ikasbidea eta etekina umeari. Har eredu-tzat gizadia bera, sorkuntzako edertia erakutsi, ikusten ikasi, estetika egina dago, izadia maisu handia da. Zertarako ditu gizakiak bost sentzunak? Izadia, kosmoa, edertia eta liburu bizia, zabalik dago.

Helburu orokorra: "umearen hasuntzan gaitasun guztiei deitu eta bide egin, eragozpenak kendu, sasiak albora, eta bere nortasuna garatzen lagundu, bizitzan garaile urten dezan.

7 Pauline hugonotea zan, Bordeleko elizaz, eta espirituz askea, Maria Montessori, ostera familiaz katolika zan, Montcler Ancona-koa (Italian), hala ere, mutileri zegozkien ikasketak egin zituan Erromako Unibertsidadean.

8 Agintea, orohar, misoginoa izan eta *eritsi>eresi* horrek uzkuertzen du eliza katolikua ere. Jesus ostera, feminista izan zan, Ebangelioan agertzen denez. Eleiz buruak, hala ere, baztertu egin zuten Jesusen jokera idekia. *Ezagun>gnosis* jarraile batzuk Ama Jainkoa aipatzen eta otoizten zuten, jakintza bera emetzat zutela, gizonezkoa beste. Jarraileengan bakoitzaren dohaiak aintzat hartzen ziran, emakume edo gizonezko, eta gidaritzaz ardurak ere har zegizkiten: maesak, osagile, igarile, abadesa eta gotzain. Gizonezkoak gero, ortodoxiaren izenean, katea jarri zioten emakumeari, postu onenak galtzeko bildurrez. Jainko Ama aitortzeak asko lagundu izan dio emakumeari. "Ortodoxiak emakumea buru izatearen aurka urten zuan, gizonezkoa aintzat hartu zuan eta Ama Jainkoaren irudia idolotzat jo, batez ere Ama Jakinduriarena". (PAGELS. ELAINE, *Los evangelios gnósticos*. Barcelona, Grijalbo Mondadori S.A., 1996)





Maria Montessori (1870-1952) Asmo eder hau izan zuan emakumeak: garapen handiena lortzen lagundu umeei adimenez, soinkeraz eta gogakeraz, goraino hazi zitezten, denean eta denetan sikologia eta zientziatzko oinarrietaz baliaturik. María Montessorik umeen lanean oinarritzen zuan ikasbide osoa, maisuaren laguntza horretara bultzatuz. Beraz, eskola ez zan kanpotik emateko lezinoak ikasteko, umearen adimena eta baita, barnea hazteko baino, askatasun osoz egindako lanean, hatarako umek behar dituen ikasbide egokiek akeran dituela...

### 6.5. *M<sup>a</sup> Montessori, pedagogia ikasia*

Zaila egin zitzaion M<sup>a</sup> Montessori-ri Erromako Unibertsidadean Medikutzako eskolan onartua izatea. Aitak zailtasun horren berri emanda ere, baimena eman zion. Unibersidadeko atetik sartuaz batera, zera esan zioten: "Ikasle guztia sartu eta bakoitzak bere postua hartzen duenean, orduan sartuko zara, ohitura denez"...

Neskak aixa lortu zuan Medikutza titulua eta gehigarriz modan zegoen Sikiatria aukeratu zuan. Sikiatra lanean hasi orduko, konturatu zan maisuek ume biurriei ematen zien tratu petralaz. Erraiak gora egin zioten eta agirika egin: "Umeak ezin ditezke horrela maniatu; umea eskuratzen jakin behar da..." Halatan, umeen babeserako "Casa dei bambini" sortu zuan.

"Umea, soinez eta adimenez dituen ahalmenez, miraria da gure aurrean. Hori jakin behar dute guraso guztiak, hezitzaileak eta umeekin dabilten guztiak, bizitzaren hasieratik ematen den heziketa onak gizartearen gaurko eta biarko arpegia alda dezakelako. Argi jakin behar dugu, halatan, nor bakoitzaren giza ahalmena aldatzea ez dagoela gure esku. Umeari hazten lagundu genezaioke, bere hezketa esparru zabalagoan egin beharrekoa bai-da



*Alternativa a lo patriarcal:* Frente a la familia patriarcal fundada sobre la propiedad de los bienes y de las personas que se convierte en un sistema cerrado, excluyente, y frecuentemente posesivo, el nuevo proyecto se levanta sobre la sociabilidad y la gratuidad de los bienes y las personas, abierto a la inclusión y la universalidad. Y frente a la verticalidad que se impone desde arriba y reproduce el viejo (des) orden de autarquía y sumisión, Jesús propone un nuevo tipo desde abajo que se levanta desde la autonomía e igualdad de todos los miembros. Al poder monárquico y absoluto de la figura del padre que todo lo somete y domina se opone a la toma de conciencia de la igual dignidad desde la que todas y todos son hermanos: “vosotros, en cambio, no llaméis a nadie “padre” vuestro en la tierra, porque uno solo es vuestro “Padre” [que también es vuestra “Madre”]: el/ la del cielo” (Mt 23, 9). EVARISTO VILLAR, *web de Redes Cristianas*.

familia, gizartea eta izadi osoko legeekin armonian bat eginez”.

Idea honek amaren eskolara garoaz, ostera ere, ama eredua izadiari begira dagoelako, zeru-lur espazioetatik hasi eta larreko belar xume edo lantzen duen baratzeko ari apalenagino eta bereak bizi eta ulerbiderako darabilen berbetaraino. Ama eskolak ekologikoki zaintzen du izadia eta halakoxea da munduarekiko duen bere ideen xedea ere, hitza bera ere erritualki lotzen duela.

Maria Montessori-ren heziketa eredua iraulgarri izan zan mundu guztian. Askok deitzen zioten, bere ereduaren berri eman zezan abots bizian Italian eta European, arestian heziketa berriaren beharra maisu askok aldarrikatua izan bai-zan. Mussolini, Duceak ere Montessori-ren arrakasta uztiatu nahi izian zuan, bere politikazko lehen pausotan eta Ikasurte Berrirako plangintzen Aurkezpenean hitz egiteko gonbitatu zuan. Hara joan zan emakumea ere.

Duce-aren ordezkariak sutsu egin zuan hitz faxismoaren iatzi berri zen plan berriaz eta gero Maria Montessori-ri eman zion hitza. Mariak, ostera, ez zuela ezer esatekorik-eta, mu egin zuan. Nahiago izan zuan, berandu baino lehen, atzerrirako bidea hartu. Gero, Mussoliniren asmoak pot egin zutenean, itzuli ahal izan zuan etxera, Holandan bizi tokia hartu baino lehen.



Egiptoko Magisteritzan ikasle koptoak, hotz, kristauak. (27 orrialdeko ikasleekin faraoien aldia eta musulmena gonbaratzea merezi du) Kristau direna ere izkutatu egiten dute. Euren andereño bat, Luxor-ko alaba, kristaua Oinarrizko Ikasketen irakasle Egipton, Coran legeari irain egin ziolakoaz salatu izan da, hil berri zaien Shenouda Popea (euren aita santua) maitagarria izan dela esan zuelako. Andereñoa kartzelan sartu dute eta bere askatasuna hainbesteko dirutan 20.000 egipziar liratan (2.900 eurotan) erabagi dute. Hori islamiar estatuaren laguntza

### 6.6. Ama eta maesa

Holantxe titulazten zuan Juan XXIII aita santuak bere eskutitz orokor bat *Mater et Magistra* izenekoa, elizak gizarteko arazoez zituen ardurak adierazteko. Halako ahaleginetan Elizarentzat bide egokiena bilatzen zuan 1961 urteak zirela, amaren irudi babeslea gogotan hartuz. Franzisko aita santua ere, “eleizako bizitzan emakumeari lehenbailehen zeregin bereziak eskuratu behar zaizkiolakoan dago” eta eskatu zuan, “emakumea sustraituago eta hurrago eleiz biltzarretan”. Berak esanda, “eliza emea da, *la Iglesia*, eta ez *el Iglesia*, eta aitor-tu zuenez, “eleizaren eme ganora antzeztu nahi nuke, errai orokorra bezala, biziaren sortzaile eta berritzaile”.

Bere ardurako Kultura Kontseiluan aita santuak zera gehitu zuan emakumeen eginkizunaz: “pastoralgintzako arazoan sarturik, espiritu bidean lagungarri, familien eta taldeen gidari eta teologiazko ausnarketan lankide”.

*Ama eta Maesa* eleizak mundan gaur aurkezteko duen titulorik onena, aita santu Onaren gardiz, baina Erromako Kuriak eta klerikalismoak leporatu dioten famaz ez du erraz mereziko halako izenik. Harrigarria da, bestalde, laikoek, emakumeari esker, ikaste heziketan eta herri arazoan parte hartzean, hain goraki aurreratu diren artean, eleizak, ohitura keldo ustez, sakratueran edo alper ritoetan preso



jarraitzen duela, elizgizonen lobbya dela errudun, eta beraz, antzu direla, Ebangelioko emaitzari dagokionez.

Jesusek emakume asko izan zituan jarraile (Mat. 27:55), bera bezalako profeta batengan, ez ohiko ekintzan, patriarkalismo itxuenaren erdian, Jesus feminista, eta nondik Eliza misoginoa? Noren izenean<sup>8</sup>. Jesus bera ere laikoa izan zan. Ez zan apaiz eta ez zuan eurekin harreman gozorik izan, harakinena zelako euren eginkizuna, hots, Jainko oparirako abereak odoltzea eta beste profeta baten aldarria (1 Sam 15:22) “errukia nahi dut, ez bitimarik” errepikatu zalea. *Abade*>*apaiza* Lege Zaharreko joan nortasuna da, izan ere, gaur profeta behar du izan eta liturgian, berriz, Jainko Amaren serbitzaria, Jainko Aitaren serbitzaria den bestean.

### 6.7. Emakumea, jakinduria, nortasuna

Bada israeldarren artean, etxeko isilekoa bezala gordetzen duten nor miragarririk eta Ama Jainko *Shekina* da, *Sophya*<sup>(g)</sup><*subia* mitozkoa, etimoz *Enki*<sup>(s)</sup> jakinaren kideko: *Yakin*<sup>(s)</sup><*xakin/jakin*, beti ere jakinduriari lotua. Gainera, bere irudiaren unea edo egontokia temploko *skena*<sup>(g)</sup>/*iskina* da, maisuen aretoan hatan ere, eta haieri egia xurxulatu edo *izkin* lana egiten. *Shekina* nortasunak hanartean Ama Jainkoak artean izan zuen ohorea<sup>9</sup> eta aulkia gordetzen ditu, bizi barkua ostaz dutenen elizginonen eskutik, ama eskola garaian Sumerren, Egipton eta Israelen ohi bezela.

Mito zaharren ostean, jakinduriazko oharrak datoz, herriaren eskolarako, idazlariek egin ahalegin ederrenak bezala. Apaiz lanak baino, hareago poeten eta profeten lanak dira. Halatsu dager, adibidez, *Kantarik ederrena* eta ohargarria dugu neskearen kexua

8 Bergoglio aita santuak Filadelfia-ko katedralean antzi egin zuan temploa emakumez beteta bai, baina eleizan bertan emakumea horren baztertu ohartzean. Lotsagarri ezeze, esker txarreko ikusten zuan eta aitortzen elizaren partetik.

9 Honela dinoe Sumerren; “Ez alperrik ahotan hartu zure amaren hitzak, ez zure jainkoaren hitzak. Ama Utu bezala da, gizakia edatzen du (*La Enseñanza de Shurruppak*, D.B. nº 29, 248, pag.50) Cf: *Utu*, “*iduski*”, argi eta zuzentasun arketipoa, gramatikazko bigarren nortasunarekin *idetzen* da. *Utu*>*tú*, *zu*, *su*, *you*, *yi*>*hi*, *si* dator. *Ama Nut* ere *An+Utu* osatzen da, *Maat*, bezala eta lehen arketipo honetan dakusgu amaren lehentasuna (Ikus 88 or.) *Ama*rena da gramatikazko lehen nortasuna *mi*, *me*, *ene*, *ni*, *neu*, *moi*, *noi*, etab.





Emakumeak bere lekua bilatzen du gaurko familian eta gizartean. Espilu garbian ikusi nahi ditu zeintzuk diren berari egotzitako orbanak eta zuzentasuna nahi du. Mitoen eta idazki sakratuen gainetik izantasuna eta izadia idoro gura ditu. Azkenik, Jainko Amaren alaba denaz konturatuko da eta, dagokion *etxea* eskatu eta lortu egingo du...” aurkitu dut ene barrenak maite duena, oratu eta ez diot lagako, nere amaren etxean sartu arte, ni sortu ninduenaren ohantzean sartu arte”. (Cant, 3, 4)

(1,6): “Ez niri begitu, beltzeran naiz-eta/ eguzkiak erre bai-nau. Nire nebak nitaz aserretu dira<sup>10</sup>/ mahastia zaintzen jarri naute eta ez dut jagon neure mahastia!” *Kantarik ederrana* idazten hasi den eskribariak halako kexua dakar lehen maite poeman. Nola bideratu maitearen zoriona halako bidegabekeria?

Esakeretan emazte ona aintzat hartzen da “harrri bitxiak baino gehiago balio du”(Esa. 31:10-31). “Jakinduriari idekitzen dio agoa, eta bihotzberatasuna dago bere mingainean”. (Ja, 31, 26) “Emakume jakinak bere etxea eraikitzen du” (14,1). Jakinduriak bere etxea jaso zuan, zazpi zutabekin ornitu zuan” (9,1)<sup>11</sup>; bere maira gonbidatzen ditu gosetuak: Zatoze, jan nere ogitik eta edan neuk prestatu dizuedan ardaotik”. (Esa. 8,5)


Poeten eta profeten oroitzapenean eta Israelgo ohargabeen, Ama egarria ase ezina zan: berak ezin ditu aztu bere erraietako seme-alabak<sup>12</sup>: “Israel ume zelarik, nik maite izan nuen eta Egiptotik deitu nion nire semeari”<sup>13</sup>.

10 *Vulgatak* honela dino: *Filii matris meae pugnaverunt contra me* “nire amaren semeek nire aurka borroka egin zuten”. Cf: Maiteak jasaten duen genero indarkeria salatzen du poetak, maitasunaren garapena abestu aurretik.

11 Hemen zazpi abeak ama hizkuntzaren zazpi arketipoak aitzaten dituela esan daiteke, kosmoko jakinduriaren ordenari dagokionez. (Ikus 100 or.)

12 “Baina Sionek inoan: Jaunak utzi egin nau, Jauna nitaz aztu da. Ama batek aztu ote dezake bere bularreko umea, bere erraietako umeaz erruki gabe? Eurak astuarren ere, nik ez zaitut astuko”. (Is 49, 14-15).

13 “Baina neure seme Efrain da-eta, neure ume, neure atsegina! Agirika egiten >



Gonbaratu (55 orriko) maparekin

[...] “Neuk erakutzi nion Efraini ibiltzen, neure besoetan eramaten nuen. Lokarri samurrez eta maite edeeekin atoratzen nuen; masailen pareraino umea jasotzen duenaren antzeko izan berekin eta jaten emateko, beragana makurtzen denaren antzeko. [...] Bihotzak gainezka egiten dit, nire errai dena dardaratzen.” (Os 11, 1-8)

## VII. AUTORE BERRIEN LEKUKOTZA

Ama eskolari buruz idatzi duten autore berrien eritsia ondo datorkigu. Estructuralisten lengoaiak monemak eta lexemak aipatzen ditu, ama hizkuntzaren etengabeko katea ebaki-ebaki egin eta espal bakoitza aztertzeko, gaurko medikutzak radiografiaz buru garaunekin egin ohi duen bezala. Ama eskola, ostera, aserako mitoei lotuta dator, umea zilbor esteari bezala. Nortasuna berezi daiteke, zilbor estea ebai, baina ama ondarea osorik hartu behar da.

Hitzaren jatorria asmatzeko ez du balio puzken analisiak, ez structuralisten eskolak. Haserako mitoraino jo behar dugu, Jung-en gardiz, “hizkuntza den mito bizia” salba dadin.

Ama eskola kosmoari begira jaio zan eta hara abegira darrai, ifarra erratzeko egin zaizkion amarru guztien gainetik: zeru, eguzki, aire, lur eta haien inguru diharduen gizakia bera. Izena ahozkatuak ez ditu sortzen, *ino in edo esan izan* arabera<sup>1</sup>, aitatiar eskolak ama-

<sup>></sup>diodan bakoitzean, gogoan dut, erraiak dardaratzen zaizkit eta erruki naiz“ (Jer. 31,20).”

1 Halare, “izena duen guzik ba du izana” dino jakinduria batek, baina

katu zuen bezala, amak bere gunaz sortzen bai du erraietako sorkari berria, eta bataiokoa jartzen zaio izena umeari.

Ama eskolaren barrutia etxea, eta etxeakoak egiten duten familia: etxeokoei elkarki begira dakite, amak zer esan duen eta nora abegira esan duen, hots, zein den esankizunaren sinbologia. "Hau zer da?", dino umeak: "Han ikusten duzun zera..." analogizatzen amak, bizitiki bizira, sorkaritiki sortutakoa delako hizkuntza ere, ez halagala. Orduan izadia bera da hizkuntzaren lekuko, deskribatzen duen lurra, tokizenarena bezala, eta ez errege eskolako polikeria izkutua, batera idatzi, bestela ahozkatu beharrezko segetu edo autxerdera.

